

“PALESTINAKO GENEALOGIA FEMINISTA: EMAKUME ANITZEN ISTORIOAK”



erikldgo batzordea
unrwa
euskadi

Agencia de Naciones Unidas para la
población refugiada de Palestina



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gaitasun
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

PALESTINAKO GENEALOGIA FEMINISTA:

EMAKUME ANITZEN ISTORIOAK



erkidego batzordea
unrwa
euskadi

Edizioa: UNRWA Euskadi/Binari Comunicación

Testuak: UNRWA Euskadi/Ana Alba/ Beatriz Lecumberri/ Hanady Muhiar/ Isabel Pérez

Argazkiak: UNRWA Euskadi/Ana Alba/ Beatriz Lecumberri/Isabel Pérez

Lehenengo argitalpena: Bilbo, 2016ko iraila

Bigarren argitalpena: Bilbo, 2018ko martxoa

Lege gordailua: M-8255-2018

ISBN: 978-84-09-00724-0

UNRWA Euskadi/Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia



www.unrwaeuskadi.org

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin egin da.



Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



Egileek eta bizitza istorioen protagonistek argitalpen honetan adierazitako analisiak eta iritziak ez dute zertan bat etorri behar UNRWA Euskadiren, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziekin.

CC by-SA lizentziapean argitaratutako edukiak: Creative Commons



GURE ESKERRIK BEROENAK

Adma Khoury, Amjad Saed Shabat, Ayat Ghrabli, Buzaina Soboh, Eitimad Mutawa, Emtiaz Almograbi, Haneen Hanna, Ihsan Rahhal, Mariam Ashtiyeh, Maysoun Qawasm, Nadia Abu Nahla, Nawal AlGhsein, Sama Aweidah, Samah Salaime, Samia AlQayed eta Zahiyya AlBuhesiri, argitalpen honetako istorioen protagonistei alegia, beren denbora, abegi ona eta gogoetak eskaintzeagatik eta, haien bitartez, Palestinako emakumeei ahotsa jartzeagatik;

Hanady Muhiar Muñumerri, Nazioarteko Zuzenbidean eta Nazioarteko Harremanetan Doktorea, Palestinako emakumeen mugimendua ezagutarazteagatik;

Jerusalemen kazetari diharduten Ana Albari eta Beatriz Lecumberriri; Gazako zerrendan kazetari diharduen Isabel Pérezi, Palestinako emakumeen bizimoduari buruzko istorioak berotasun eta hurbiltasun hain handiz gureganatzeagatik;

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei, argitalpen hau plazaratzen laguntzeagatik, Palestinako emakumeenganako erakutsi duten elkartasunagatik eta, Euskadiko eta Palestinako emakumeen artean aliantzak sortuz eta jakintza trukatzuz, emakumeen ahalduntzearen aldeko sentsibilizazio-kanpainak egiteko eman duten laguntzagatik.

Azkenik, gure eskerrik beroenak ematen dizkiegu euskal-palestinar elkartasun-sare feministako erakunde guztiei, emakumeen eskubideak plazaratzeko eta aldarrikatzeko saregintza-prozesu honetan eman duten laguntzagatik.

Mila esker denoi.

AURKIBIDEA

• Sarrera	4
• Nortzuk gara	6
• Akronimoak	9
• Palestinako emakume mugimenduaren eta mugimendu feministaren bilakaera. Hurbilpen historikoa	11
• Palestinako Lurralde Okupatuko krisi humanitarioa, genero ikuspegitik aztertuta	43
• PLOko mapa	59
• Bizitza istorioak	60
• Adma Khoury	62
• Amjad Saed Shabat	68
• Ayat Ghrabli	72
• Buzaina Soboh	78
• Eitimad Mutawa	84
• Emtiaz Almograbi	90
• Haneen Hanna	96
• Ihsan Rahhal	102
• Mariam Ashtiyeh	108
• Maysoun Qawasmi	114
• Nadia Abu Nahla	120
• Nawal ALGhsein	124
• Sama Aweidah	128
• Samah Salaime	134
• Samia AlQayed	140
• Zahiyya AlBuheisi	146

Palestinarren eta israeldarren arteko gatazkari dagokionez, emakume palestinarrak bihurtzen dira familiaren euskarri ekonomikoak —lan ez-formalak eginez, askotan— eta emozionalak, okupazio- eta blokeo-egoeran ere ahalik eta normalen eta duinen bizitzen saiatzen baitira. Beren eskubideez baliatzeko eta haiek exijitzeko eskubidea dute emakume palestinarrak, haien titular izaki. Emakumeen premiak eta interesak ez-kutatzen badira, berriz, murriztu egiten dira haien eskubideak, eta duintasuna, urratu. Ezinbestekoak dira emakumeak, eragile indibidual zein kolektibo gisara, garapen integratzailean, berdintasunezkoan eta jasangarrian aurrera egiteko, erakunde feministen eta bestelako berariazko zenbait elkarteren bitartez.

Honenbestez, hau du helburu UNRWA Euskadiren argitalpen honek: Palestinako emakumeen eta feminismoaren ikuspegitik azaltzea palestinarren eta israeldarren arteko gatazka eta Israelen okupaziopean dagoen Palestinako lurraldearen krisi humanitaria, emakume horien lekukotasunen bidez erakustea nola berreraikitzen dituzten beren bizitzak, nola egiten duten borroka, nola egiten dieten aurre blokeoari, okupazioari eta sistema patriarkalari.

Argitalpen honen bidez “entzungo” dituzue gatazkari eta okupazioari buruzko zenbait emakume palestinarren ahotsak eta istorioak, erakundeen, hedabideen eta gizarte-eragileen ikuspegi androzentrikoak sarritan ezkutatu ohi dituen horiek, alegia; bide batez, egungo testuinguru historikoak aztertzeke beste ikusmira batzuk aintzat hartzea komeni dela adieraziko zaio euskal gizarteari, hau da, feminismoaren eta genero-ikuspegiaren begirada kontuan hartu behar direla nahitaez.

Horretarako, XIX. mendearen amaieratik gaur egun arte Palestinako emakumeen mugimenduak izan duen garapen historikoa gogoratuko dugu, genero-ikuspegitik aztertuko okupatutako Palestinako krisi humanitaria, eta *Nabka* ezagutu zuten emakume palestinarren hitzak argitaratuko ditugu, euren bizitza, familia eta eskubideetan zenbateko eragina izan zuen jakin dezagun denok; irakurriko dituzue, halaber, Palestinako emakume errefuxiatuen zenbait adierazpen (Israelen bizi diren emakume palestinarrak, Gazako zerrendan okupazioak eta blokeoak duten eragina azalduko duten beste batzuenak...), haien haurtzaroko oroitzapenak eta etorkizunerako itxaropenak; ikusiko dugu, bestalde, komunitateak aitortzen ez duen zenbat lan egiten duten emakumeek jendea zaintzen (ezinbesteko lana Palestinako herritarren erresilientziari eusteko), eta genero-estereotipoak gainditu nahi dituzten Palestinako emakume buruzagien, feministen, ikasleen, nekazarien eta profesionalen iritziak irakurriko.

Leku, adin, testuinguru sozioekonomiko, ingurune geografiko eta estatus sozial desberdinetakoak dira elkarriketatuta ditugun emakume palestinarrak, baina denek egin dute bat beren sentimenduak, nahiak eta aldarrikapenak adierazteko ekimen honetan, eta oinaze-, ahalduntze-, elkertasun- eta maitasun-istorio hauek kontatu dizkigute, guztiak ere erresilientzia-adibide ezin hobeak, oztopo guztien gainetik Palestinako gizarteari eutsi, eusten eta eutsiko dioten giltzarriak baitira.



Emakume gazteak baskibaloira jolasten Kalandiako Emakumeentzako Jarduera Zentroan, Zisjordanian. 1950ko hamarkada. © Argazkilari ezezaguna / UNRWAre artxiboak

Euskal Herriko eta Palestinako emakumeen eta feministen erakundeen arteko Elkartasun Sarearen ekimenetako bat duzue eskuan duzuen testu hau. 2013tik bultzatzen du UNRWA Euskadik elkartasun-sare hori. Zehazki, proiektu honetakoa da argitalpena: *“Palestinako Lurralde Okupatutako emakumeen egoera, beste ikuspegi batetik aztertua. Euskal Herriko eta Palestinako erakundeen arteko sareak indartzen”*. UNRWA Euskadik bultzatzen du proiektua, zeinak erakunde hauen laguntza jasotzen baitu: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarena, eta Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiena. Proiektuaren xedea: emakumeen ahalduntzea sustatzea, aliantza sortuz eta jakintza eta gaitasunak trukatzuz Palestinako eta Euskal Herriko emakumeen artean.

NORTZUK GARA

Palestinar Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (UNRWA) Nazio Batuen agentziarik antzinakoena da. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren agintaldian sortu zen, 1949an, baina 1950eko maiatzaren 1ean hasi zen lanean, 1948ko arabiar-israeldar gerraren ondoren, Palestinako 700.000 errefuxiatu baino gehiagori larrialdiko babesa eta gizarte-laguntza emateko.

NOLA EGITEN DU LAN AGENTZIAK?

Sortu zenetik, etengabe aritu da lanean Agentzia, Ekialde Ertainean nolabaiteko barealdia izan den garaietan zein liskar armatua eta borrokak izan direnean. UNRWAK Palestinako errefuxiatuen ongizate eta giza garapenaren alde lan egin du lau belau-nalditan, honako bost eremu hauetan: Zisjordania, Gaza, Jordania, Libano eta Siria. Agentzia aldi baterako erakunde gisa sortu zen (hiru urterako hasiera batean), baina bere programak pixkanaka egokitu behar izan ditu Palestinako errefuxiatuek sei hamarkada baino gehiagotan izan dituzten premia aldakorrei erantzuteko. Palestinako errefuxiatuak 5 milioi baino gehiago dira gaur egun, eta horietako 1,5 milioi adierazita-ko bost eremuetan prestatutako 58 kanpamentuetan bizi dira oraindik, beren egoera zailerako konponbide baketsu eta iraunkor baten zain.

UNRWAK zerbitzu humanitarioak eta garapen-zerbitzuak ematen ditu zuzenean, honako arlo hauetan: lehen hezkuntza eta lanbide-heziketa, osasun-laguntza, gizarte-zerbitzuen hornidura, azpiegituren hobekuntza (kanpamentuak barne), mikrofinantzak, laguntza humanitaria eta larrialdiko erantzuna. Horretarako, Agentziak 900 instalazio baino gehiago kudeatzen ditu. Instalazio horietan, 30.000 pertsona inguruk lan egiten dute, eta horien % 99k Palestinako errefuxiatuen estatusa du. Bereiziki, milioi-erdi ikasle baino gehiago biltzen dituzten 685 eskola, 9 milioi kontsulta baino gehiago izaten dituzten lehen mailako arretako 137 osasun-zentro, 37 zentro sozial, emakumeentzako programak egiten dituzten 61 zentro eta Palestinako errefuxiatu desgaituentzako 37 errehabilitazio-zentro ditu.

UNRWA ETA GENERO-BERDINTASUNA

Finkatu zenetik, genero-berdintasunaren alde eta Palestinako emakume errefuxiatuen premia espezifikoek erantzuteko lanean ari da Agentzia. Nazio Batuen sistemaren parte denez gero, emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren inguruan ezarritako nazioarteko tresnei jarraitzen die Agentziaren lanak, hala nola Emakumeen aurkako Bereizkeria Mota Guztiak Ezabatzeko Konbentzioari (CEDAW). Horretarako, genero-politika bat, genero-ikuspegia zeharkakotzeko estrategia bat (ikuspegi hori antolamendu-kulturan txertatzeko neurriak ezartzen dituen), bere informazio-sistemak, langileen gaitasunak eta bere lan-arloak ditu.

1951. urtean, Palestinako neska errefuxiatuen % 60 baino ez zegoen eskolatuta, baina lan itzela egin ondoren, 1960. urtean genero-parekotasuna lortu zen UNRWaren



eskoletan, eta gaur egun bere horretan dirau parekotasun horrek. 1962. urtean, emakumeen lehen zentroa sortu zen Ramallahn. Gaur egun, emakumeen 61 zentro dau-
de 5 eragiketa-eremuetan. Zentro horietan, biltzeko, prestakuntza jasotzeko edota
ahalduntze ekonomikorako trebetasunak eskuratzeko aukera dute emakumeek.

Palestinako Lurralde Okupatuaren kasuan (Gaza eta Zisjordaniako eragiketa-eremuetan), UNRWAK egoera humanitariora eta emakumeen egoerara egokitutako estrategia bereiziak garatzen ditu. Estrategia horiek genero-indarkeriari aurre egitera, arre- ta psikosoziala, hezkuntza eta sexu- eta ugalketa-osasuneko zerbitzuak ematera eta prestakuntzaren, mikrokredituen eta sentsibilizazio-prozesuen bidez emakumeen ahalduntzea eta bizibideen sorkuntza sustatzera bideratuta daude. UNRWAK gene- ro-indarkeriari aurre egiteko azken urteotan egin duen lanak, halaber, bizirik iraun duten emakumeentzako arre- ta eta erreferentzia-zerbitzuak ezartzea eta prebentzioa eta komunitate osoaren (gizon, emakume eta haurren) sentsibilizazioa sendotzea izan ditu ardatz.

Gazako zerrendan, UNRWA Berdintasuna Ekintzan programa garatzen ari da. Progra- ma horren helburua zerrendako emakumeen ahalduntzea sendotzea da, eremu publi- ko eta pribatuan aktiboki parte har dezaten, pertsona gisa eta profesionalki gara dai- tezen eta agenda soziala maila guztietan berdintasunezkoa izango den ordena sozial, politiko eta ekonomiko bat ezartzera bidera dadin.

UNRWAK emakumeen erakundeekin eta oinarritzko erakunde komunitarioekin koor- dinatuta egiten ditu ekintza horiek, funtsezko eragileak baitira berdintasunezko gara- pen inklusibo eta jasangarri baterantz aurrera egiteko.

UNRWA EUSKADIREN KONPROMISOA

UNRWA Euskadi 2006. urtean sortu zen, funtsezko bi helbururekin: euskal gizarteari Palestinako errefuxiatuen egoeraren berri ematea eta UNRWAK duela 65 urte baino gehiagoz geroztik egiten duen lan humanitariora eta babes-lana zabaltzea. Gainera, euskal erakunde publiko zein pribatu batzuen babesa bilatzen du UNRWarentzat, Pa- lestinako errefuxiatuei eskaintzen dizkien zerbitzuak mantendu ahal izan daitezen.

Horretarako, bi arlotan dihardu: laguntza humanitariora eta garapena, eta garapene- rako hezkuntza eta sentsibilizazioa Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde his- torikoetan. Garapenerako hezkuntzan, kontzientzia kritikoak suspertzeko, herritarrei parte-hartze eta eraldaketa sozialerako tresnak emateko eta Palestinako errefuxiatuen egoera humanitario txarraren aurrean euskal gizartearen mobilizazioa bultzatzeko jar- duerak egiten ditu. Zeharkako ardatz gisa, erakundeak giza eskubideen sustapenean, nazioarteko zuzenbide humanitarioan, bakearen kulturaren eta genero-berdintasunean oinarrituta betetzen du bere lana.

AKRONIMOAK

- **AISHA:** ingelesezko sigletan, *Arab Women's Forum*, Arabiar Emakumeen Foruma.
- **PA:** Palestinar Agintaritza.
- **ARA:** ingelesezko sigletan, *Access Restricted Area*, Sarbide Mugatuko Eremua.
- **AWA:** ingelesezko sigletan, *Arab Women's Association*, Arabiar Emakumeen Elkarte.
- **AWU:** ingelesezko sigletan, *Arab Women's Union*, Arabiar Emakumeen Batasuna.
- **CEDAW:** ingelesezko sigletan, *Convention on the Elimination of all Forms of Discrimination against Women*, Emakumeen aurkako Bereizkeriamota guztiak EzabatzeKontzentzioa.
- **PKL:** Palestinako Kontseilu Legegilea, Parlamentua.
- **CSW:** ingelesezko sigletan, *Commission on the Status of Women*, Emakumeen Egoerari buruzko Batzorde Juridiko eta Soziala.
- **LBB:** Lan Boluntarioko Batzordeak.
- **NZH:** Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa.
- **GCMHP:** ingelesezko sigletan, *Gaza Community Mental Health Program*, Gazako Buru Osasunerako Komunitate Programa.
- **GUPW:** ingelesezko sigletan, *General Union of Palestinian Women*, Palestinako Emakumeen Batasun Orokorra.
- **HWC:** ingelesezko sigletan, *Higher Women's Council*, Emakumeen Kontseilu Gorena.
- **ICA:** ingelesezko sigletan, *Israeli Civil Administration*, Israelgo Administrazio Zibila.
- **IWS:** ingelesezko sigletan, *Institute for Women's Studies*, Emakumei buruzko Ikerketarako Institutua.
- **AFA:** Askapenerako Fronte Arabiarra.
- **PAFD:** Palestina Askatzeko Fronte Demokratikoa.
- **PAHF:** Palestina Askatzeko Herri Frontea.
- **FPWAC:** ingelesezko sigletan, *Federation of Palestinian Women's Action Committees*, Emakumeen Ekintza Batzordeen Palestinako Federazioa.
- **MOWA:** ingelesezko sigletan, *Ministry of Women's Affairs*, Emakumeen Gaietarako Ministerioa.
- **OCHA:** ingelesezko sigletan, *United Nations Office for the Coordination of Human Affairs*, Gai Humanitarioen Koordinaziorako Nazio Batuen Bulegoa.
- **OHCHR:** ingelesezko sigletan, *United Nations Office of the High Commissioner for Human Rights*, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioa (GENBGK).
- **PAE:** Palestina Askatzeko Erakundea.

- **OME:** Osasunaren Mundu Erakundea.
- **GKE:** Gobernu Kanpoko Erakundea.
- **NBE:** Nazio Batuen Erakundea.
- **PAWA:** ingelesezko sigletan, *Palestine Arab Women Association*, Palestinako Arabiar Emakumeen Elkarte.
- **PCBS:** ingelesezko sigletan, *Palestinian Central Bureau of Statistics*, Palestinako Estatistika Bulego Zentrala.
- **PWU:** ingelesezko sigletan, *Palestinian Women's Union*, Palestinako Emakumeen Batasuna.
- **PLO:** Palestinako Lurralde Okupatua.
- **UAWC:** ingelesezko sigletan, *Union of Agricultural Work Committees*, Nekazaritza Ekintzako Batzordeen Batasuna.
- **UNICEF:** ingelesezko sigletan, *United Nations International Children's Emergency Fund*, Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsa.
- **UNLU:** ingelesezko sigletan, *Unified National Leadership of the Uprising*, Altxamenduaren Buruzagitza Nazional Bateratua.
- **UNRWA:** ingelesezko sigletan, *United Nations Relief and Works Agency for Palestine Refugees in the Near East*, Ekialde Hurbileko Palestinar Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia.
- **UPWC:** ingelesezko sigletan, *Union of Palestinian Women's Commitees*, Palestinako Emakumeen Lantaldeen Batasuna.
- **UPWWC:** ingelesezko sigletan *Union of Palestinian Working Women's Commitees*, Emakume Langileen Palestinako Batzordeen Batasuna.
- **WATC:** ingelesezko sigletan, *Women's Affairs Technical Committee*, Emakume Gaien Batzorde Teknikoa.
- **WCLAC:** ingelesezko sigletan, *Women's Centre for Legal Aid and Counselling*, Emakumeentzako Laguntzarako eta Lege Aholkularitzarako Zentroa.
- **WCSW:** ingelesezko sigletan, *Women's Committee for Social Work*, Gizarte Ekintzarako Emakume Batzordea.
- **WILPF:** ingelesezko sigletan, *Women's International League for Peace and Freedom*, Bakearen eta Askatasunaren Aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga.
- **WSC:** ingelesezko sigletan, *Women's Studies Centre*, Emakumeentzako Ikerketa Zentroa.
- **WWC:** ingelesezko sigletan, *Women's Work Committee*, Emakumeen Lan Batzordea.
- **WZO:** ingelesezko sigletan, *World Zionist Organization*, Munduko Erakunde Sionista.

A photograph of a woman wearing a dark headscarf and a dark long-sleeved garment, holding a young child in a light-colored hooded outfit. They are standing in front of a building with a corrugated metal roof and walls. The entire image is tinted with a blue color. The text is overlaid in the lower right portion of the image.

**PALESTINAKO EMAKUME
MUGIMENDUAREN ETA MUGIMENDU
FEMINISTAREN BILAKAERA.
HURBILPEN HISTORIKOA**

PALESTINAKO EMAKUME MUGIMENDUAREN ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN BILAKAERA. HURBILPEN HISTORIKOA¹

Hanady A. Muhiar Muñumer

Bi gertaerak baldintzatu dute Palestinako emakumeen mugimenduaren historia: batetik, 1948an Palestina historikoko lurraldearen zati handi batean Israelgo estatua sortu izanak eta, bestetik, 1967an Israelek berak Gaza, Zisjordania eta Ekialdeko Jerusalem okupatu izanak. Gertaera batek zein besteak kutsu politiko nabarmena eman diote Palestinako emakumeek euren egoera hobetzeko mugimenduari, testuinguru politiko horrexetan jorratu behar izan baitute borroka hori.

Gauzak horrela, mugimendu feminista soil batez aritzea baino egokiagoa da, behar-bada, emakumeen mugimenduaren historiari aritzea, Palestinako emakumeek emakume gisa dituzten eskubideen alde eta Palestinako nazio-askapenerako mugimenduaren esparruan euren herriaren autodeterminazioaren alde egindako borrokaz ari garenean.

Egia da gertaeren joan-etorriaren ondorioz borroka politikoa emakumeen eskubideen aldeko borrokari gailendu zaiola; alabaina, Palestinako emakumeak jardun publikoan agertu ziren unetik bertatik, bigarren borroka hori beti egon da presente, zailtasun askorekin izan bada ere.

AURREKARI HISTORIKOAK (XIX-1920): OTOMANDAR INPERIOA ETA PALESTINAREN GAINEKO AGINTE BRITAINIARRA.

Palestinako emakumeen borrokari buruzko lehen albistea 1893./1894. urtekoa da, Afula hiriko (gaur egungo Israelgo estatua iparraldean) emakumeak bertako lurretan juduen kokaleku bat eraikitzearen aurka manifestatu zirenekoa.

1920. urtera arte, Palestina historiko osoa Otomandar Inperioaren mendean egon zen. 1920an, ordea, Britainiar Inperioak bere Agintea ezarri zuen, gudan Turkiako gobernuari konkistatutako lurren gainean.

Garai hartan, Palestinako biztanle gehienak nekazariak ziren, baina bazegoen, halaber, arabiar lur-jabez eta jauntxoak osatutako gutxiengo bat ere. Biztanleen % 10 inguru juduak ziren; % 20 inguru kristauak; eta gainerako guztiak, berriz, musulman

¹ Agiri honen zati handi bat «Emakumearen eginkizuna Palestinako estatua eraikitzen» izeneko doktorego-tesian oinarritzen da. Egileak berak prestatu eta defendatu zuen 2016ko urtarrilean, doktore gradua eskuratzeko.

sunitak, gehi musulman xiita eta druso gutxi batzuk. Guztiak 850 bat herri eta hiritan bizi ziren. Otomandar Inperioak arabiar jauntxoek familiak klase gobernatzailen kokatzeko ahalegina egin zuen, tokian-tokian zuten indarra aintzat hartuta. Familia horiek izan ziren, hain zuzen, atzerritarren sarrera kolonialistaren aurkako mugimendu nazionalistaren aitzindariak. Izan ere, garai horretan atzerriko bi indar hasi ziren Palestinan sartzen: batetik britainiarrak eta, bestetik, Europako judu sekularren artean sortutako mugimendu nazionalista berri bat: sionismoa.

Garaiko otomandar eliteak, mendebaldearen asmoen eta indarraren jakitun, bere botereari eusteko erreforma ugari egin zituen alor ekonomikoan, administratiboan eta judizialean. Ildo beretik, mendebaldearen nagusitasunari eta britainiarren okupazioari aurre egingo zion Islam ulerkorra eta liberala aurkezteko premia zela eta, emakumeek esparru juridiko islamdarrean zuten estatusa aldatzeko eta hobetzeko lan egin zuten. Besteak beste, ezkontzan emakumeen egoera pertsonala hobetzeko erreformak egin zituzten (poligamia mugatzea eta emakumeak dibortzioa abian jarzeko arrazoiak ugaltzea, besteak beste).

Beste alde batetik, 1867ko lurrari buruzko lege otomandarrak atzerritarrei lurak saltzea baimentzen zuen. Lege horrek, hain zuzen, Palestinako lurak desjabetzeko, saltzeko, kolonizatzeke eta, azken buruan, Palestina atzerritarren mende uzteko aukera ireki zuen. Erreforma horien ondorioz, Palestina munduko ekonomian txertatu zen eta hazkunde- eta aberastasun-garaia bizi izan zuen. Halere, aldi berean, erreforma horien ondorioz, inperioak kanpoko babesaren behar handiagoa zuenez, europarren sarrera galarazteko aukerak mugatu egin zitzaizkion.

1799az geroztik, Britainiar Inperioak Palestina historikoan sartzeko interesa zuen, Napoleonek Palestinaren aurkako kanpainari ekin eta Indiako kolonia britainiarretarako lurreko bidea arriskuan jarri zuenetik. Hala, XIX. mendearen erdialdean, Britainiar Inperioak pausu bat gehiago eman eta funtsezkotzat jo zuen Otomandar Inperioan enklabe bat sortzea. Helburu hori erdiesteko, bertako biztanleekin harreman zuzenak lortzen ahalegindu ziren britainiarrak.

Otomandar Inperioa limurtzen ere ahalegindu ziren. Juduen immigrazioari ateak irekiz gero, kapital berria sartu eta atzerriko inbasioen arriskua gutxitu egingo zen. 1848tik aurrera, judu etorkinak babestu eta britainiar hiritarrak balira bezala artatzeko agindua eman zioten Jerusalemgo britainiar kontsulatuari.

Garai horretan bertan, Europako judu kultu eta sekularren artean XIX. mendeko estatu-nazioen sorreraren esparruan sortutako ideologia berri bat hasi zen hazten: sionismoa. Ideologia horren sortzaileetakotzat jotzen den Theodor Herzlek *Der Judenstaat* - Estatu judua liburua argitaratu zuen 1896an. Liburu horretan zera proposatu zuen Europako juduen aurkako jazarpenari («arazo judua» terminoa erabili zuen) amaiera emateko bidetzat: judutar komunitate erlijiosoa zena herri bihurtzea eta juduen nazioa izango zen nazio-erakundea eratzea. Horretarako, nazio judua munduko lekuren batean kokatzea bultzatu behar zuten. Eredu horrek nazio baten eskakizunak asetzeko tamaina nahikoa eduki behar zuen eta, gerora, potentzia handien oniritziarekin, estatu judu bihurtuko zen. Alabaina, hori lortzeko, «arazo judua» nazioarteko gai politikotzat hartu beharra zegoen.

Britainiar Inperioaren eta sionisten planek toki batean egiten zuten bat: Palestinan.

Basilean (Suitza) 1897an egin zen lehen Kongresu Sionistan publikoki adierazi zuten Palestinan herri juduarentzako nazio-etxea sortzeko asmoa. 1909an Gazte Turkiarrek boterera iritsi zirenean proiektu kolonial hori indartu egin zen, otomandarren hiriburuan Munduko Erakunde Sionistako (WZO, ingelesezko sigletan, *World Zionist Organization*) ordezkari ofiziala egotea onartu eta bermatu baitzuten. Horren ondorioz, immigrante juduen oldeak iritsi ziren Palestinara. Judu horiek ez ziren iristen Palestinara arrazoi erlijiosoez bultzatuta, lehenago gertatzen zen bezala; aitzitik, Palestinan nazio-erakunde judua sortzeko proiektu kolonial baten esparruan burutzen zuten migrazioa.

Otomandar Inperioa gainbeheran etorri zenean, Europak Ekialde Hurbila kolonizatzeke ateak ireki ziren. Lehen Mundu Gerra amaitu ondorengo hainbat gertaera funtsezkoak izan ziren palestinar emakumeen jardura publikoa eta politikoa zehazteko: batetik, gerra ostean mendebaldeko aliatuek Otomandar Inperioa zatikatzea; bestetik, MacMahon-Hussein posta-trukean (1915-1916) jasota zegoen arabiar erresuma batua sortzeko hitza bete gabe gelditzea; eta, azkenik, Balfour Deklarazioa² (1917), zeinaren bidez Britainiar Inperioa Palestinan herri juduarentzako nazio-etxea sortzearen alde agertu zen.

Atzerritarren sarreraren aurkako erresistentzia tinkoa sortu zen, eta otomandar gobernuak berehala zantatu zituen politika horren aurkako jardura guztiak. Egunkariak itxi eta erabaki horiekin eta beraien ondorioekin kritiko agertzen ziren palestinar ekintzaile politikoak jazarri zituzten. Kontrako ahots horien artean baziren emakumeen ahotsak ere; normalean Palestinako familia gorenetakoa kideak izaten ziren, baina baita emakume nekazari batzuk ere.

Bi faktore funtsezkoak izan ziren Palestinako emakumeen artean generoari eta politikari lotutako kontzientzia sortzeko, eta emakume horiek kalean nahiz politikan murgiltzeko: Alde batetik, emakumeen hezkuntza hedatzen hasi izana eta, beste aldetik, arabiar munduan sortutako mugimendu independentziazaletan, batez ere Egipton, Libanon eta Palestinan emakumeen emantzipazio-mugimendua bultzatu zuena.

Otomandar Inperioaren hezkuntza-sisteman baziren emakumezkoentzako eskolak, baina ez ziren gizonezkoentzako eskolen mailara iristen. Horretaz gain, baziren atzerriko misioek eta tokiko komunitate erlijiosoez eratutako emakumeentzako eskola pribatu ugari ere. Ikastetxe horietara, baina, hiriko gutxiengo ikasiko emakumeak iristen ziren nagusiki: geroago Palestinako emakume-mugimendua eratuko zuten emakumeak, alegia. Emakume horietatik zuzenduko zuten, hain zuzen, Palestinako «emakumeen mugimendu zaharra» izenez ezagutzen dena.

Hartara, emakumeak nazio-askapenerako mugimenduan eta palestinar herriaren autodeterminazioaren aldeko borrokan parte hartzen hasi ziren, hainbat faktore tarteko: hezkuntzaren zabalkundea, XX. mendearen hasieran arabiar eta palestinar

² **Balfour Deklarazioa** (1917ko azaroaren 2a) Arthur Balfour Britainiako Kanpo Harremanetarako ministroak Lord Rothschildi, Britainia Handiko komunitate juduko buruzagiarri, idatzitako eskutitza izan zen. Eskutitzean, «Palestinan herri juduarentzako nazio-etxea sortzeko» britainiarren babesa eskaini zion.

emakumeen artean garatu zen ideia-trukea eta europarren sarrera ekonomikoaren eta politikoaren mehatxua. Emakumeek prozesu horretan izan zuten partaidetza aktiboak agerian jarri zuen Palestinako emakumeen eskubideak bermatzearen garrantzia, hala nazio-borrokari lotuta nola Palestinako gizartearen garapen osoari lotuta. Garai horretan hezurmamitu zen arabiar eta palestinar emakumeen kontzientzia politikoa eta generoari lotutakoa, geroago nazionalismoan eta feminismoan gauzatuko zena.

I. ZATIA: 1920-1978: NAZIO BORROKA, BESTE EZEREN GAINETIK.

1920an Palestina historikoan Britainiar Agintea ezarri eta migrazio judua sustatzen hasi zirenetik aurrera, Palestinako emakume-mugimenduak bi ezaugarri barneratu zituen: mugimendu nazionalista eta klase-mugimendua. Bestela esanda, borroka politikoa eta nazioaren biziraupena gainerako guztiaren gainetik zegoen. Ekintza politikoa jorratzeko erabakiak ekarri zuen emakume-mugimendua abian jartzea. Bost hamarkada -1920an hasi eta 1978ra arte- iraun zuen etapa horretan, Palestinar herriaren nazio-eskubideen aldeko aldarrikapena emakumeen gizarte-eskubideen aldeko aldarrikapenaren gainetik kokatu zen.

1. Emakumeak arlo politikoan antolatzen hasi ziren. Palestinako Arabiar Emakumeen Jerusalemgo Lehen Biltzarra, 1929

Guztiz helburu politikoak zituen emakumeen lehen erakundea 1921ean sortu bazen ere, Jerusalem 1929an egin zen Palestinako Arabiar Emakumeen Lehen Biltzarrak jarri zuen abian Palestinan formalki osatu eta eratutako emakume-mugimendua.

Orduko Palestina gizarte egituratua zen, produktiboa eta ekonomikoki garatua. Nekazaritza zen ekonomiako sektorerik garrantzitsuena eta emakumeek funtsezko eginkizuna zuten esparru horretan. Hirietan jendea zinemara joaten zen, baita literatura-, kirol- nahiz kultura- alorreko ekitaldietara ere, eta kontzertuetan nahiz elkarteek emandako ikastaroetan parte hartzen zuen. Emakume batzuek atzerrian, batez ere Libanon eta Erresuma batuan, egin zituzten goi-mailako ikasketak. Horietako batzuk politikari ospetsuen, intelektualen, kazetarien eta poeten emazteak ziren. Beste batzuk intelektual ospetsuak ziren, gobernuko postuetan aritzen ziren, sendagile edo erizainak ziren, posta-zerbitzuan jarduten zuten edota irakaskuntzan egiten zuten lan.

Hezkuntzaren bidez eskuratutako kualifikazioak eta horren ondorioz lanean, ekonomian, kulturen eta politikan irekitzen zitzaizkien aukerak garrantzi handikoak izan ziren Palestinako klase ertaineko eta goi mailako emakumeentzat. Une hartako jarduera intelektual, literarioa eta politikoa oso garrantzitsuak dira Palestinako emakume mugimenduaren garapena ulertu nahi badugu, emakume ikasiek antolatzen zuten gizarte-askatasun handiagoa zutelako eta mugimenduaren hasierako taktika gehienak idatzizko komunikazioan oinarritzen zirelako.

Garai hartako emakumeek gizarte-alorreko instituzio eta erakunde ugari sortu zituzten. Gehienek izaera konfesionala zuten eta geroago garrantzi handia eskuratuko

zuten Palestinako gizartean. Palestinako emakumeek euren baldintzak hobetzeko egiten zuten lan, eta argi eta garbi borrokatu ziren emakumearen eskubideak eta gizartean zuen egoera hobetzeko. Antzeko borroka garatzen zuten beste emakume batzuek Sirian, Libanon eta Egipton, besteak beste. Halere, Estatu judua sortzeko asmoaren ondorioz eskuratu zuen Palestinako emakume-mugimenduak bere izaera nazionalista.

Migrazio judua goraka zihoan eta, britainiarrek juduen proiektu kolonialari ematen zioten babesa zela eta, hogeiko hamarkadan emakume erakunde berriak sortu ziren. Ez zuten izaera sozialik eta konfesionalik; guztiz bestelakoak ziren, erakunde politiko hutsak, nazionalistak, kolonialismoaren aurkakoak. Kanpotik zetorren mehatxuari aurre egiteko biztanle guztien lankidetzaz eta konpromiso politikoa behar zen; hartara, emakume-mugimendu berriek aurreko guztiak xurgatu zituzten.

Erakunde berrien artean nabarmentzekoak dira Palestinako Emakumeen Batasuna (PWU, ingelesezko sigletan, *Palestinian Women's Union*, 1921) eta, batez ere, Palestinako Arabiar Emakumeen Elkartea (PAWA, ingelesezko sigletan, *Palestine Arab Women Association*, 1929). Politikoki aritzen ziren emakume guztiak erakunde bakar batean biltzea eta emakume-mugimendu sendoa osatzea zuen helburu bigarren erakunde horrek.

Gero eta argiago zegoen Palestinan estatu judua aldarrikatuko zutela eta, britainiar Aginteak proiektu kolonial horren alde jarduten zuela kontuan hartuta, tentsioa izugarri areagotu zen. Palestinako oinarri ekonomiko nagusia nekazaritza zen eta, horregatik, lurraren kolonizazioak biztanle guztiengan izan zuen eragina: egoera egunez egun txarrera zihoan, argi eta garbi. 1920-1921ean, eta berriz ere 1929an, istilu gogorak izan ziren Palestinan. Haien indarkeria-maila zela eta, emakumeen mobilizazio politikoa katalizatzea lortu zuten.

Testuinguru horretan, 1929an, emakumeek biltzar politiko bat egitea erabaki zuten, inposatzen zieten errealtatearen aurkako ekintza bateratua indartzeko. Halatan, urriaren 26an Palestinako Arabiar Emakumeen Lehen Biltzarra egin zuten. Helburuak: independentzia lortzea eta Palestinan «herri juduarentzako nazio-etxea» sortzeko juduen planak eta britainiarren promesak bertan behera utzaraztea.

Biltzarra argi eta garbi nazionalista zen, ekintza bateratuko mugimendu nazionala sortzeko deia egin zuen, eta hainbat ebazpen onartu zituen ildo horretan: Palestina historiakoaren izaera arabiarra suntsitzen zuen Balfour Deklarazioa indargabetzea exijitu zuten; Palestinaren independentzia aldarrikatu; gizonen zuzendutako mugimendu nazionalari babesa eskaini; tokiko merkataritzaren eta enpleguaren independentzia eskatu, ordura arteko egoera etorkinen mesederakoa zelako ustean; judu etorri berriei lurra saltzea galarazteko galdegin zioten Britainiar Aginteari; eta proiektu kolonialaren aurka agertzen zirenean Palestinako herritarren aurkako jazarpena amaitzea aldarrikatu zuten. Hirurehun emakume bildu ziren Biltzarrean. Onartutako erabakiak britainiar agintariei helarazi zizkieten, hala erakundeei nola arduradunei. Biltzarra amaitu ondoren manifestazioa egiteko asmoa zuten, baina, debekua jaso zutela eta, 120 autoko ilara osatu eta isilean ibiltzea erabaki zuten. Ibilgailuek Jerusalem zeharkatu zuten, klaxona jo gabe baina atzerriko kontsulatu guztietan geldialdiak egiten, euren egoera salatzen.



Palestinako biztanleak bere sorterritik ihes egiten du. Gatazka arabiar-israeldarraren ondorioz 700.000 palestinarrerrefuxiatu desplazatuak izan ziren. 1948. © Argazkilari ezezaguna / Nazio Batuen artxiboak

Biltzarraren ostean organo exekutibo bat (Emakumeen Kontseilu Exekutiboa) eta erakunde finko bat (Arabiar Emakumeen Elkarteak -AWA-, ingelesezko sigletan, *Arab Women's Association*) sortu zituzten, lurralde osoan adarrak zabaltzeko asmoarekin. Prentsak luze eta zabal azaldu zuen emakumeen ekintza eta gizonezkoek zuzendutako erakundeen (hala zibilen nola erlijiosoen) baldintzarik gabeko babesa jaso zuen. Ez zegoen atzera egiterik: emakumeak jendaurrean eta politikaren esparruan jokatzeko hasiak ziren.

1929ko Emakumeen Biltzarra antolatu zuten emakumeek bazuten profil berezi bat: emakume gazteak ziren, hogeita hiru urte bitartekoak, askotan ezkongabeak, Palestinako familia ospetsuen, lur jabeen eta aberatsen alabak. Horietako askok lan egiten zuten edo negozio propioak zituzten eta, beraz, segurtasun ekonomikoa zuten, familiak ematen ziezaielkeen diruaz harago. Gehienak ikasiak ziren eta bi hizkuntza edo gehiago ezagutzen zituzten. Emakume horiek Palestinako emakume-mugimenduaren osaera eta izaera zehaztuko zuten.

Emakume horiei «amen belaunaldia» esan zieten, eta beraiek bultzatu zuten emakume-mugimendu eratu eta antolatua, jendaurrean argi mobilizatuko zena, kolonialismoaren aurkako eta nazio-askapenerako mugimenduaren parte zen aldetik. Beraien jardura politikoaren bidez, lehenak izan ziren Palestinako emakumeen eginkizun publiko eta soziala aldarrikatzen, eta etorkizunean generoari lotutako gaietan era antolatuan aritzeko erroak finkatu zituzten.

2. 1926-1939 aldiko greba eta matxinada. Jarduera politikoa eta lehen emakume gudariak.

Lurraren kolonizazioak inpaktu zuzena eduki zuen emakume nekazarien egoeran, nekazaritza-sektorean eginkizun garrantzitsua jokatzen baitzuten. Izan ere, egoera ekonomikoak okerrera egiten zuen, etengabe. Horregatik, AWArek lehen ekintzak nekazarien, nekazaritzaren, merkataritzaren eta industriaren egoera aztertzea bideratu ziren.

Nekazariak zenbat eta lur gutxiago eduki, ekoizteko gaitasun gutxiago zuten eta, ondorioz, diru-sarrerak eskuratu eta zergak ordaintzeko gaitasuna ere murrizten zitzaizkien; etxetik kanporatuak izateko aukera biderkatu eta, azken buruan, lur horiek judu etorkinen esku gelditzeko aukera handitzen zen.

AWAko emakumeek, egoera horren aurrean, nekazaritza-banku bat sortu zuten, boikot ekintza ugari burutu zituzten, protesta manifestazio asko deitu zituzten eta gizonen greba deitutako protestaldietan ere hartu zuten parte. Milaka emakume biltzen ziren protestaldietan, eta emakume nekazarien parte hartzea ere gero eta handiagoa zen.

Aginte britainiarrek indarrez zanpatu zituen protestaldiak. Ez zuen gizon eta emakumeen arteko bereizketarik egiten, eta gero eta ugariagoak ziren atxilotuak, zaurituak eta hildakoak. Indarkeria horrekin batera, talde paramilitar juduen ekintza armatuak ere baziren, Estatu judua indarrez sortzeko erabakia hartua baitzuten.

Ordura arte, testu idatzietan oinarritu ziren emakumeen protestaldiak: komunikatuak, deialdiak, adierazpenak eta salaketak, batzuetan prentsan argitaratuta eta beste batzuetan atzeritarrek Palestinan zituzten ordezkarietara edo garaiko beste nazioarteko erakunde batzuetara igorrita. Baina bide diplomatikoek ez zuten emaitzarik ematen eta britainiarrek ez zuten ezkututzen proiektu sionistaren aldeko jarrera. Izan ere, gero eta etorkin judu gehiago sartzeko baimena ematen jarraitzen zuten.

Yafako portuan talde paramilitar juduentzako arma-biltegia aurkitu zutenean lehertu zen egoera. 1936ko apirilean, palestinar nekazariak ingelesak aurka matxinatu ziren eta, gainera, urrira arte iraungo zuen greba orokorra deitu zuten. Palestinako gizarte osoak hartu zuen parte: gizon eta emakumeek, goi-mailetakoez nahiz txiroenek.

Hirietako emakumeek funtsezko eginkizuna izan zuten greba sustatzen eta egoki errespetatzen zela bermatzen; eta aldi berean, Palestinar herriaren egoera nazioartean salatzeke jarduera diplomatikoari eusten zioten. Emakume nekazariak, euren aldetik, landa-eremuan borrokatzen zutenei lagundu eta babesa ematen zieten. Emakume batzuek parte-hartze zuzena izan zuten borroketan. Eurak izan ziren Palestinako emakume gudariaren irudia sortu zutenak.

Emakumeen erakundeek oso gutxitan erabiltzen zuten indarkeria eta, halere, britainiarrek mehatxutzat jotzen zituzten, gizartea mugiarazteko gaitasun handia zeukatelako. Horregatik, palestinar emakume asko atxilotu, espetxeratu eta ikertu egin zituzten.



Libanoko Nahr el-Bared errefuxiatu-eremua errefuxiatu palestinarrak babesteko neurrien barne sortutako lehen errefuxiatu-eremuetakoa da. 1950ko hamarkada. © S. Madver

3. Emakumeen adiskidetze-eginkizuna.

Protestaldiak protestaldi, etorkin juduek tokiko botere-egitura judua sortzeko aha-leginean jarraitu zuten eta, gainera, britainiarren laguntza zuten, palestinarrak ez bezala. Palestinarrei zegokienez, Arabiako Kontseilu Exekutiboa desagertu ondoren, greba zuzendu eta nazio-mugimenduaren barne-zatiketa politikoa geldiaraziko zuen botere bateratu baten beharra nabarmendu zen.

Izan ere Palestinako nazio-mugimenduak bi familia handiren, huseindarren eta nashasbitarren, arteko barne-gatazka bizi zuen. Emakumeek, ordea, ez zuten hala-korik onartzen. Emakumeen Kontseilu Exekutiboan baziren bi familia horietako ki-deak, baina guztiek batzen zituzten indarrak helburu bateratu baten alde: Palestina-ren independentziaren alde.

Emakumeak nazio-mugimenduaren parte ziren eta beraien erabaki, jarduera eta gomendioak errespetatu egiten zituzten. Gainerako talde politikoak bezainbeste hartzen zituzten kontuan, eta britainiarren Aginteko Gobernua beraien boterearen bel-dur zen, alde batetik gizonezko liderrekin zuten harremanagatik eta, bestetik, masak mobilizatzeko zuten gaitasunagatik.

1936ko matxinadaren lehen urteetan, bi alderdi politikoaren arteko (Arabiako Batzorde Gorena -Huseini- batetik, eta Nazio Batzordea -Nashashibi- bestetik) ezinikusia

gainditzeko deia egin zuten AWako emakumeek. Horrekin batera, baina, beste deialdi batzuk ere egin zituzten: Agintearen Gobernuaren bileretara ez joateko, negoziatzeari uko egiteko eta inolako erabakirik ez hartzeko aurretiaz Nazio Biltzar Oroko-rean bildutako Palestinar herriaren adostasuna eskuratu gabe.

Azkenean, palestinarren arteko ezinikusi guztiak bertan behera gelditu ziren, 1937an Palestinako Errege Batzordeak («Peel Batzordea» delakoak³) Palestina Historikoaren egoera goberna ezina zela adierazi zuenean eta, horrekin batera, Palestina zatitzeko plana proposatu zuenean. Izan ere, Balfour Deklarazioaren bidez sionistei emandako hitza bete nahi zuten britainiarrek.

Arabiako Goi Batzordeak Palestinako Nazio Gutuna prestatu zuen, esanez Palestina arabiar munduaren parte zela eta arabiarrek ez zutela inolako lurrik utziko arabiarrek ez zirenen eskuetan. Ez zuten onartuko euren lurra sionisten kontrolpean uzterik.

Arabiar mundu osoa, Transjordaniako Abdallah printzea izan ezik, Palestina zatitzeko proposamenaren aurka agertu zen. Palestina arabiar mundu osoaren arazo bihurtu zen.

4. Panarabismo feminista eta feminismo arabista. Kausa palestinarraren aldeko Emakumeen Ekialdeko Biltzarra El Cairon, 1938an.

Garai hartako mugimendu independentziazale eta nazionalista arabiarrek Estatua-ren eta gizartearen interesetan oinarritutako politikan sinesten zuten. Konstituzionalistak ziren, herriak aukeratutako gobernuen bidez hitz egin behar zuela pentsatzen zutelako. Sekularrak ere baziren, gizartea orotariko eskola eta sinesmeneko pertsonak osatzen zutelakoan. Gizarte ikasia behar zen, bizitza kolektiboan partaidetza osoa izango zuena. Eta, horretarako, emakumeen garapena funtsezkoa zen.

Horiek horrela, eskualdekako biltzar feministak biderkatu egin ziren. Emakumeek antzeko arazoak zituztenez, irtenbide komunak bilatu nahi zituzten. Emakumeen eskubide eta betebeharez aritzen ziren, emakumearen lege-estatutuaz, boto-eskubideaz, hezkuntza izateko eskubideaz, eta estatus pertsonalari buruzko gaiez, hala nola ezkontzari eta dibortzioari buruzkoez. Halere, Palestinako emakumeek beste lehentasun bat zuten: nazioaren biziraupena. Horregatik, egoera politikoak baldintzatuta hartzen zuten parte emakume-sareetan eta sare feministetan.

Atzerritarren kolonizazioak baldintzatzen zituen emakumeen bilera guztiak, eta independentziari buruz, nazionalismo arabiarri buruz, panarabismoari eta, pixkanaka, panarabismo feministari buruz hitz egiten zuten.

Garai hartako feministek mendebaldeko feministekin harremanak estutzeko ahalgina egin zuten, baina kolonizatzailea/kolonizatua bertikaltasuna ikusi zuten hor

3 **Palestinako Errege Batzordea** 1936an eratu zuten Lord Peelen zuzendaritzapean, Britainiar Agintearen lana aztertu eta etorkizunerako proposamenak egiteko. 1937an argitara emandako adierazpenean Palestinako Agintea eutsiezina zela azaldu eta bi estatu sortzea proposatu zuen: bata judua eta bestea arabiarra.

ere. Gizarte-alorrean, mendebaldeko emakumeek euren kultura eta ohiturak inposatu nahi zituzten. Eta alor politikoan, arabiar emakumeek egoera politikoari buruz, emakumeen bizitzan zuen eraginari buruz egiten zituzten aldarrikapenei eta salaketiei entzungor egiten zieten; ez zuten entzun nahi egoera politikoak emakume-eskubideen alorrean aurrera egitea galarazten zuela. Errealitate horren aurrean, laster feminismo arabiarrari buruz hitz egiten hasi ziren.

Palestina historikoan «herri juduarentzako etxea» sortzeko Europaren babesa tarteke, Europak Ekialde Hurbilean zituen asmo kolonialen erdigunean kokatzen zen Palestina. Eta asmo hori gauzatuz zihoan heinean, Palestina bihurtu zen arabiar feminismoaren bihotza.

Siriako, Libanoko, Irakeko eta Egiptoko emakumeak Palestinaren nazio-askapenari laguntzeko mobilizatu ziren eta eskualdekako lankidetzak sareak antolatu zituzten. Palestinaren kausa bere egiten zuten. Lankidetzak horren ondorioz, Peel Batzordeak proposatutako Zatiketa Plana era koordinatuan eta eskualde guztietan gaitzesteko eta Palestinaren Nazio Gutuna bultzatzeko Biltzar bat antolatzea erabaki zuten. Lehenengo gizona Biltzarra egin zen -Palestina defendatzeko Herrialde Arabiarren eta Musulmanen Munduko Legebiltzarra-, eta gero emakumeen biltzarrak babestu egin zuten.

1938ko urriaren 15ean eta 18an, Palestinaren Kausa babesteko Ekialdeko Emakumeen Biltzarra ospatu zuten El Cairon. Palestinako hamabi emakume hizlari izan ziren bertan. Gobernu-gai bati buruz eztabaidatzen zuen arabiar emakumeen nazioarteko lehen biltzarra izan zen. Era berean, askoren ustez, ekialde arabiarreko emakumeak egoeraz jabetu eta Palestinarekin elkartasunean mugitzen hasteko lehen urratsa eman zen. Aurretiaz ere Palestinaren egoera salatzeko protestaldi ugari eginak zituzten Libanoko, Siriako eta Irakeko emakumeek eta, biltzar horren bidez, jendaurrean agertzea eta elkarrekin aritzea erabaki zuten.

Mendebaldearen inbasio kolonialaren eta mehatxu sionistaren aurkako borroka eskualdeko emakume guztiak bildu zituen, bakoitzaren nortasun nazionalaren gainetik. Emakume horiek banatzen zituzten muga politikoak Europako botere kolonialek artifizialki inposatuak ziren eta, botere horiexek Palestinako lurretan kolonia atzerritar bat eratzeke mehatxuaren aurrean, guztien ekintzak koordinatzea erabaki zuten.

Biltzarrean hartutako hogeita bi erabakietatik lehenengoan zera adierazi zuten: Palestinako arazoa Europak sortu zuela eta, beraz, Europak berak egoera horretarako irtenbide justua bilatu behar zuela. Beste gai batzuk ere aztertu zituzten: Palestinaren izaera arabiarra, edota Palestinaren eta eskualde osoaren gainean zegoen mehatxu sionistari aurre egiteko batasuna erdietsi eta garatu beharra zegoela. Egindako eskaeren artean zeuden, besteak beste, Aginte britainiarraren amaiera, Balfour deklarazioa baliogabetzea, juduen immigrazioa geldiaraztea eta juduei eta beste atzerritar batzuei Palestinako lurak saltzea galaraztea. Zorrotz gaitzetsi zuten 1937ko Zatiketa Plana, eta Britainiar Aginteak 1936ko matxinada kontrolatzeko neurri gogorren aurka azaldu ziren. Gainera, produktu nazionalen kontsumoa sustatu eta atzerriko produktuei boikota egitea proposatu zuten.

1938ko Emakumeen Ekialdeko Biltzarrean, independentziari eta generoari lotutako gaien inguruan bildu zituzten indarrak arabiar emakumeek. Hala, feminismo arabiarraz eta panarabismo feministaz hitz egiten hasi zen. Biltzarra egin eta urtebetera, palestinar emakumeek beste erakunde bat sortu zuten: Arabiar Emakumeen Bata-suna [edo Sindikatua] (AWU, ingelesezko sigletan, *Arab Women's Union*). Erakunde berria indartuz joan zen, denborak aurrera egin ahala.

Halere, Palestinako lurretan nazio-erakunde atzerritar bat osatzeko mehatxuaren aurrean, emakumeek utzi egin behar izan zuten eskualdeko eta nazioarteko agertokia. Palestinako emakumeek ezin izan zuten Biltzar gehiagotan parte hartu, eta utzi egin behar izan zituzten eskualde mailan sortutako koordinazio- eta partaidetza-guneak nahiz nazioartean parte hartzen zuten foroak.

Izan ere, 1938ko Biltzarraren ondoko urteetako gertaerek eta, batez ere, 1948ko guda, Palestinar herriaren eta bereziki emakumeen etorkizuna baldintzatu zuten, gaur egunera arte. Harrezkero, nazioaren biziraupena izan da beraien lehentasuna.

5. 1948ko guda. Exodoa eta babesa. Emakume-mugimendua eta nazio-biziraupenaren aldeko borroka.

Palestinak oso egoera konplexu eta zaila zuen aurrean. Gero eta zailagoa zen arabiarren matxinadak kontrolatzea, eta gero eta ugariagoak eta bortitzagoak ziren indar paramilitar sionisten ekintza terroristak (britainiarren nahiz Palestinako herritar zibilen aurkakoak).

Egoerak Erresuma Batua gainditu zuen eta, Bigarren Mundu Gerraren ondoren ahulduta egonik, Palestinaren arazoa Nazio Batuen esku uztea erabaki zuen. Azkenean, Estatu Batuen laguntza eskatu eta herrialde hori berehala kokatu zen proiektu sionistaren alde. Pixkanaka-pixkanaka, Britainiar Inperioa agertoki politikotik desagertu egin zen.

25 urtetik gora Britainiar Agintearen pean egon ondoren, Palestinako egoera demografikoa goitik behera aldatuta zegoen. 1922an 750.000 biztanle inguru zituen Palestinak, eta 1946aren amaieran, 1.850.000. Biztanle juduen kopurua % 725 hazi zen, Lehen Mundu Gerraren ondoren 56.000 izatetik 1946an 608.000 izatera helduz. Biztanleria judua batez ere hirietan bizi zen, % 70 - % 75 inguru Jerusalemen, Jaffan, Tel Aviven, Haifan eta inguruetan kokatu baitzen⁴.

Dena dela, inori ez zitzaion burutik pasatu 1947ko azaroaren 29an Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 181 (II) ebazpena onartu ondoren gertatu zena. Ebazpen horrek Palestina historikoa zatitu eta Estatu judu bat eta Estatu arabiar bat (biak batasun ekonomiko bakar batean bilduta) sortzea eta Jerusalem hirian nazioarteko araubidea ezartzea proposatzen zuen. Eta, horrekin batera, 1948ko abuztuaren 1a baino lehen britainiarrak erretiratzea eta Palestinaren gaineko Agintea bertan behera uztea ere bai. Gertaerek, ordea, guztiz bestelako bidea hartu zuten eta ebazpen lotesle hori ez zen inoiz bete.

⁴ Palestinar herriaren eskubide besterenezinak gauzatzeko Nazio Batuen Erakundeak batzordea: *Palestinako arazoaren jatorria eta bilakaera, 1917-1988*. Nazio Batuak. New York, 1990.



Emakumeen Prestakuntza Zentroa Ramallahn, Zisjordania. 1960ko hamarkada. © Argazkilari ezezaguna / UNRWAre artxiboak

Batzar Nagusiaren bozketa baino egun batzuk lehenago, herritar palestinarren eta juduen arteko borrokak hasi ziren. 1948ko maiatzaren 14an, Ben Gurionek Israelgo estatua aldarrikatu zuen, alde bakarretik, Nazio Batuen gomendioari muzin eginez. Estatu batzuek (horien artean Estatu Batuek eta Sobiet Batasunak) berehala onartu zuten estatu berria. Biharamunean, aurreikusita zegoena baino lehen, britainiarrek Palestina historikoaren gaineko Agintea utzi zuten. Eta egun horretan bertan, Jordania, Egipto, Irak, Libano eta Siria Israelgo estatu sortu berrian sartu ziren, Palestina historikoaren lurra defendatzeko asmoz. Ondorioz etorri zen gerrari *Independentziaren Gerra* esaten diote Israeldarrek, eta *Nakba* (Hondamendia) palestinarrek.

1948ko gerrak Palestinako gizartea zatikatu zuen, ordura arteko Palestina historikoa fisikoki suntsitu eta milaka eta milaka palestinarrek euren etxea utzi eta ondoko herrialdeetan eta beste leku batzuetan babesa hartu behar izan zuten. Exodo masibo horrek ondorio suntsitzaileak izan zituen Palestinako herritarren artean, batez ere emakumeen artean.

Arabiar herrialdeek esku hartu aurreko hiletan ere, mugimendu sionista hasia zen sortzeaz zegoen Estatu juduaren lurren gaineko kontrola eskuratzeko neurriak hartzen. Gero eta lur gehiago eskuratzeko indarra erabiltzen zuten, eta arabiar herritarren exodo masiboa eragin zuten.

1949ko otsaila eta apirila bitartean Nazio Batuek bitartekaritza-saio batzuk egin ondoren, Israelek batetik, eta Egiptok, Siriak, Jordaniak eta Libanok bestetik, armistizioa adostu zuten, gero bakea lortzekotan. 1949ko armistizioak zehaztu zituen Israelgo Estatuaren eta Jordaniak eta Egiptok administratutako Palestina-ko lurraldeen arteko mugak. Aurrerantzean, muga horri «Marra Berdea» esango zioten. Gerraren ondorioz, Israelek Palestinaren zati handiena bereganatu zuen. Hortik kanpo gelditu zen Jordan ibaiaren mendebaldeko ibai-aldea (Zisjordania), Jordaniako arabiar legioak okupatu zuena, eta Gazako Zerrenda, Egiptok administtratuko zuena.

Gerra amaituta, baina, Palestinako herritarrek inoiz ikusi gabeko krisi humanitarioa zeukaten aurrean. 1948an, 1.237.000⁵ palestinar zeuden; gerra amaitu ondoren, erdiak baino gehiagok erbesterako bidea hartua zuen.

1948ko abenduaren 11n, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 194 (III) ebazpena onartu zuen. Palestinar errefuxiatuentzat funtsezkoa zen, besteak beste honako hauek jasotzen baitzituen:

«nazioarteko zuzenbidearen printzipioei jarraiki eta ekitate-arrazoiak direla bide, etxera itzuli eta auzokideekin bakean bizi nahi duten errefuxiatuei ahalik eta lasterren itzultzea baimendu behar zaie. Etxera ez itzultzea erabaki dutenei, berriz, kalte-ordaina eman beharko zaie, euren ondasunen truke eta galdu eta kaltetutako guztiaren truke. Galera edo kalte hori gobernu edo aginte ardura-dunek ordaindu beharko dute».

Palestinako errefuxiatuak etxera itzultzeko eskubidea aldarrikatzen duen ebazpen hori urtero-urtero errepikatu du Batzar Nagusiak 1948tik hona. Alabaina, bete gabe jarraitzen du.

Larrialdi horren aurrean, 1949ko abenduaren 8an, eta 302 (IV) ebazpenaren bidez, Palestinako errefuxiatuen egoerari aurre egiteko agentzia berezi bat sortzea erabaki zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Beraren asmoa: herritarrei laguntzea eta euren egoera hobetzeko garapen-programak abian jartzea. Horrela sortu zen Ekialde Hurbileko Palestinar Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (UNRWA, ingelesezko sigletan). Agentzia berria 1950eko maiatzaren 1ean hasi zen lanean eta 726.000 pertsonak eman zuten izena palestinar iheslari edo errefuxiatu gisa.

Palestinar errefuxiatuei babesa eskaintzea izan zen lehen eginkizunetako bat. Hasiera batean, beraientzat sortutako kanpalekuetako oihaldendetan hartu zuten ostatu errefuxiatuek. Palestinarren exodoa hasi eta hamar urte igaro zirenean, berriz, oihaldenda guztien ordeztu eraikuntza finakoak eraiki behar zirela iragarri zuen UNRWAKo Komisario Nagusiak Nazio Batuen Batzar Nagusiaren aurrean. Palestinar errefuxiatuen egoerarako bidezko eta behin betiko irtenbidea iristen ez den bitartean, UNRWAK aldian-aldian berritu du mandatua, eta horrela jarraitzen du gaur egun ere.

⁵ Palestinar herriaren eskubide besterenezinak gauzatzeko Nazio Batuen Erakundeko batzordea: *Palestinako arazoaren jatorria eta bilakaera, 1917-1988*. Nazio Batuak. New York, 1990.

Eta, exodoak eragindako egoera horretan, Palestinako gizartea zatikatuta, emakume-mugimenduaren lana eten egin zen. Bat-batean, emakume palestinarrek banatuta zeuden: batzuk Marra Berdearen (1949ko armistizioaren marraren) alde batean eta bestean gelditu ziren, eta beste batzuk inguruko herrialdeetara (batez ere Jordania-ra, Libanora eta Siriara), erbestera, abiatu ziren.

Marra Berdearen barnean gelditu ziren emakumeak Israeleko gobernuaren pean gelditu ziren. Marra Berdetik kanpo gelditu zirenen kasuan, Zisjordanian gelditu zirenak Jordaniaren gobernupean gelditu ziren eta Gazako Zerrendan gelditu zirenak, berriz, Egiptoren administraziopean. Batzuek nahiz besteek 1948ko gerraren ondorioei egin behar izan zieten aurre eta, beraz, nazio-iraupenean laguntzea izan zen guzti-guztien lanaren ardatza.

1948 eta 1967 artean, inguruko herrialdeetan errefuxiatutako emakumeen jardun soziala eta politikoa indartu egin zen. Hala, emakume-mugimendua antolatu eta egituratu egin zen, batez ere Libanon. Beste muturrean, Marra Berdearen barnean eta kanpoan gelditu ziren emakumeen kasuan, 50-60ko hamarkadara arte ezin izan zuten euren lana koordinatu eta berrantolatu.

Zailtasunak zailtasun, Marra Berdearen barnean gelditu ziren emakume batzuk berantolatzen hasi ziren. Batik bat Alderdi Komunistan eta Nazio Askapenerako Ligan afiliatutako intelektualak ziren, ikasle mugimenduan hasi berriak ziren emakume gazteekin batera. Nazareteko emakumeek Emakumearen Berpizkunde Mugimendua sortu zuten, eta Haifara eta Akrera ere iritsi ziren. 1952tik aurrera, emakume judu arrerakoiak gehitu zitzaizkion mugimenduari, eta 1973an Emakume Demokratikoek Mugimendua sortu zen. 1976an, Arabiar Emakumeen Elkarte (AWA) berriz jarri zen abian Akren.

Laurogeiko hamarkadan ugaltu egin ziren Israel barneko emakume-mugimenduak. Gai sozialei eta emakumeen eskubideei eta egoerari erreparatzen zioten nagusiki. Horri esker, Israelgo palestinarren artean gai feministetan aurrera egiteko aukera egon zen. Alabaina, ez zen berdin gertatu palestinarren eskubideei zegokionez, zigor gogorak jasotzeko arriskua baitzuten. Aldarrikapen politiko oro klandestinitate-tik jorratu behar zen.

Israelgo palestinarrek 90eko hamarkadara arte itxaron behar izan zuten alor politikoan mobilizatzeko eta, euren eskubideak defendatuz, Israelgo estatuaren politika bazter-tzaile etengabeen aurka jarduteko⁶. Garai horretan bertan hasi ziren koordinatzen Zisjordaniako eta Gazako herritarrekin, bai eta erbestean zeudenekin ere.

1948ko gerraz geroztik Zisjordanian, Gazan eta erbestean bizi ziren emakumeei zegokionez, agintean zeuden estatuen menpe jarraitzen zuten, gerraren ondorioei eta etxe eta ondasunen galerari aurre egin beharrean.

6 Informazio gehiago Lege Diskriminatzaileen datu-basean (*Discriminatory Laws Database*). Adalah-The Legan Center for Arab Minority Rights in Israel (Israelgo gutxiengo arabiarren eskubideen aldeko legezko zentroa) erakundeak urtean behin kaleratzen du. Helbidea: <http://www.adalah.org/en/law/index> [2016ko irailean aztertu du egileak datuak kontsultatzeko].

Erbestean zeuden palestinar emakumeen kasuan, oso egoera desberdinak bizi zituzten: goi-mailako eta maila ertaineko emakume palestinarrek egoera errazagoa bizi zuten, bizitza berria abiarazteko baliabide ekonomikoak eta prestakuntza nahikoa zutelako.

Emakume nekazarientzat, ordea, egoera guztiz bestelakoa zen. Gehien-gehienak errefuxiatu-zelaietan kokatu zituzten. Zelaiak hiriguneetatik urrun zeuden eta bi-zi-baldintzak, pobreziatik hurbil. Egun batetik bestera, emakume nekazarien bizi-modua goitik behera irauli zen eta egoera horrek amorrarazi eta sumindu egiten zituen.

Izan ere, lurraren galerak emakume nekazariei eragin zien lehenengo eta behin, gerra aurretik nekazaritza-alorrean funtsezko eginkizuna betetzen baitzuten. Premiak eraginda, gizonezko asko beste herrialde batzuetara abiatu ziren lan bila, eta errefuxiatu zelaiak emakume, haur eta adinekoen bizileku bilakatu ziren. Gauzak horrela, emakume nekazari asko lan-merkatuan sartu ziren eta, horrela, emakumeak gizartean tradizioz jokatzeko zuen rola aldatuz joan zen.

Palestinako familiak konturatu ziren hezkuntza zela mugikortasun soziala eta euren egoera sozial eta ekonomikoa hobetzeko modu bakarra. Alabaina, UNRWako eskolak eta mugimendu nazionalisten beka batzuk ziren palestinar gehienentzako heziketa-aukera bakarra.

1948ko hondamendiak eragindako premia humanitarioak bultzatuta, izaera sozialeko erakundeak sortu zituzten emakumeek. Horietako asko Gurutze Gorriarekin eta UNRWArekin batera aritu ziren errefuxiatuak babesten eta laguntzen. Zisjordanian eta Gazan soilik, halako 70 erakunde inguru sortu zituzten.

Beste alde batetik, 1948a baino lehenago sortutako emakume-erakundeek (Palestinako Emakumeen Batasunak - PWU, 1921-, Arabiar Emakumeen Elkartek - AWA, 1929 - eta Arabiar Emakumeen Batasunak - AWU -, 1939) lanean jarraitu zuten, baina muga handiekin. Zisjordanian, Gazan, Ekialdeko Jerusalem eta erbestean, Egipton, Jordanian, Kuwaiten, Libano eta Sirian berrantolatu ziren.

50eko eta 60ko hamarkadan iritsi zen arabiar nazionalismoaren bultzada gorena, bi ideologiaren babesean: Ba'ahtismoa batetik, eta Naserismoa bestetik. Palestinako emakume asko - batez ere klase ertaineko errefuxiatuak - alderdi nazionalistetan eta panarabiarretan (besteak beste B'ath-en, Arabiako Alderdi Nazionalistan) eta alderdi komunistetan sartu ziren.

Diasporako palestinarrek, gizon nahiz emakumeek, hauskortasun politiko handia bizi zuten eta, pixkanaka, 1948a baino lehenago sortutako instituzioetatik zetozen egitura politiko, ekonomiko eta sozialak berreraikitzen hasi ziren. Babestuko zituen Estatu baten faltan, bizirauteko gutxieneko zerbitzuak eskaini nahi zizkieten herri-tarrei. Izan ere, errefuxiatu guztiek antzeko sentimenduak zituzten: sakabanaketa-sentsazioa, nazio-asmoak gauzatu ezinak eragindako frustrazioa, eta Estatu baten falta larria. Nazio-erakunde propioa sortzeko ekintza bateraturako oinarriak jarrita zeuden, beraz.

Lurralde-zatiketak eta erbesteak eragindako zailtasunen gainetik, eta 50eko eta 60ko hamarkadan egindako ahaleginari esker, 1964an Palestina Askatzeko Erakundea (PAE) sortu zen. 1948ko gerraz geroztik, Palestinako biztanleak ordezkatzeko zuten lehen erakunde politikoa izan zen.

Palestinako Kontseilu Nazionaleko 422 partaideetatik 45 emakumeak ziren, eta 21ek ordezkari gisa hartu zuten parte. Hiru emakume Palestinako Kontseilu Nazionaleko kide izan ziren, eta bi Prestaketa Batzordeko kide.

Emakume-erakundeen lan bateratuaren ondorioz, 1965ean Palestinako Emakumeen Batasun [edo Sindikatu] Orokorra (GUPW, ingelesezko sigletan, *General Union of Palestinian Women*) sortu zen. Gaur egun, sare horren pean egituratzen da Palestinako emakume-mugimendu osoa, eta horixe da, gainera, Palestinako emakumeak PAEn ordezkatzeko dituen herri-erakundea, Palestinako nazio-askapenerako mugimenduaren baitan. Esan daiteke GUPW sortzea izan zela Palestinako emakume-mugimenduaren historiako gertaerarik garrantzitsuenak.

6. 1967: Zisjordania, Gaza eta Ekialdeko Jerusalem okupaziopean. Gene-ro-kontzientziaren garapena; emakumeen politizazio-maila igotzea; eta emakume-mugimenduaren zabalkundea

1967an, arabiarren eta israelarren arteko beste gerra bat izan zen: alde batetik Israel eta beste aldetik Siria, Egipto, Jordania eta Irak. Gerra amaituta, Zisjordania (Ekialdeko Jerusalem barne), Gazako Zerrenda, Siriako Golan eta Egiptoko Sinai okupatuta zituen Israelek. Israelen ekintza horren ondorioz, Zisjordaniako eta Gazako Zerrendako palestinar gehienek euren etxeak utzi behar izan zituzten berriro ere. 350.000 lagun inguru barneko errefuxiatu bihurtu ziren, horietako asko bigarren aldiz, 1948ko Hondamendia eta gero inguru horretan babestu baitziren.

1951ean, Israelek 1949ko abuztuaren 12ko Genevako Konbentzioa sinatu eta berretsi zuen. Nazioarteko lau Hitzarmenek arautzen dute Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH). Horren helburua: gatazka armatuen biktimak babestea; bereziki gatazkan parte hartzen ez dutenak (zibilak, osasun-langileak, giza erakundeetako kideak) baina baita dagoeneko gatazkan parte hartzerik ez dutenak ere (zaurituak, gaixoak, naufragak eta gerrako gatuak).

Gerra amaitu ondoren, Jordaniak eta Egiptok Zisjordaniaren eta Gazaren gaineko aginteak utzi zituzten. Harrezkero, lurralde horiek Israelen okupazio militarren arabidepean daude. Eta, orduz geroztik, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arabera potentzia okupatzaile gisa duen betebeharra etengabe urratu du Israelek.

1967ko gerrak eta Palestinako lurralde osoaren okupazioak beste inflexio-puntu bat ekarri zion Palestinar herriari. Israelen okupazioak kolapso politiko, sozial eta ekonomiko berririk eragin zuen Palestinako gizarteko sektore, klase eta instituzio guztietan. Israelen okupazio-politikak inpaktu suntsitzailea izan zuen eta, berehala, palestinar gizonek eta emakumeek erresistentzia-mugimendu eratua sortu zuten, gizarte osoa nazio-izaeraren defentsan mugiarazi eta Palestinaren askapenaren eta autodeterminazioaren alde borrokatzeko. 1967az geroztik, mugimendu nazionala herri-mugimendu bihurtu zen.

1967ra arte, mugimendu nazionala (PAE sortu berria barne) klase-mugimendu nazionala izan zen. Arabiako erregimen aurrerakoi batzuei lotuta zegoen eta ez zeukan erresistentziarako programa garbirik. Egitura politiko eta sozialak klase-, genero- eta erlijio-banaketan oinarritzen ziren eta ez zeukaten Israelen okupazioak zekartzan erronka berriei aurre egiteko gaitasunik.

Testuinguru horretan, emakume-mugimendua, nazio-mugimendua bezalaxe, elite tradizionalisten zuzendaritzapean zegoen. Alabaina, 1967tik aurrera, emakumeek helburu garbi bat agindu zioten euren buruei: Palestinako Emakumeen Batasun Orokorra (GUPW) aldarazi eta gizarteko klase guztietako emakumeak nazio-borrokaren alde mugiarazteko herri-erakunde bihurtzea.

1967ko porrotaren ondorioz, aurretik zetorren ideia bat berpiztu zen: Palestina askatzeko borrokan arrakasta erdiestekotan, emakumeen partaidetza beharrezkoa eta funtsezkoa zen. Eremu publikoan eta politikoan klase sozial berri bat sartu ahal izateko funtsezko faktore bat egon zen: errefuxiatu-zelaietako emakumeek, horietako gehienak nekazariak, hezkuntzarako sarbidea izan zuten. Emakume-belaunaldi berri horren bideak, egitura eta antolamendua guztiz berriak izan ziren, eta sofistikazio politiko handiagoa eskuratu zuten.

50eko hamarkadaren amaieratik aurrera, hainbat fakzioz osatutako palestinar erresistentzia-mugimendua abian zen eta, 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Palestina askatzeko bide bakarra borroka armatua zelako ideia nagusitzen hasi zen haien artean. Hala, 1965ean Israelen aurkako lehen ekintza armatuak egin zituzten. Erakunde horien guztien artean nabarmendu ziren Palestina Askatzeko Mugimendu Nazionala (*Fatah*, 1959); Palestina Askatzeko Herri Frontea (PAHF, 1967), Palestina Askatzeko Fronte Demokratikoa (PAFD, 1969) eta Askapenerako Fronte Arabiarra (AFA, 1969).

Emakume asko aritu ziren erresistentziako erakundeetan, baina laster ohartu ziren erakundeon programetan sexuen arteko berdintasuna aldarrikatu arren, erakunde batek ere ez zuela horren inguruko inolako estrategiarik zehaztu. Aldarrikapen publikoaz harago, emakumeek oso partaidetza eta ordezkaritza murrizta zuten nazio-mugimenduan.

Emakumeen ustez, fakzioek emakumeentzako berariazko zelulak sortu zituzten eta horrek sexuen arteko bereizketa indartu egiten zuen. Gainera, egoera ekonomiko eskasa zela eta, batez ere klase ertain eta altuko emakumeak erreklutatzen zituzte-nez, herrietako eta errefuxiatu-zelaietako emakumeak baztertu eta klaseen arteko banaketa indartzen zuten.

Fatah-k ez zuen nahi kontrol patriarkala eta sexuen arteko bereizketa mantentzen zuen tradizioaren aurka egiterik; ez jendaurrean behintzat. PAFDri eta PAHFri dago-kenez, esparru horretan jarrera aurrerakoiagoa erakutsi zuten eta emakumeei buruzko bi buletin argitaratu ere egin zituzten. Barne-mailan, ordea, eta *Fatah*-k bezala, ez zuten urrats handirik egiten.

Emakumeen bazterkeria eta erabilera ageri-agerian gelditu zen 1969an, palestinar erresistentziaren fakzioek PAEren boterea eskuratu zutenean. Emakumeak, prakti-



Errefuxiatu palestinarrek Allenby Zubiko mugan ihesi 1967ko gatazken ondorioz. 400.000 palestinar inguruk ihes egin zuten Jordan ibaian zehar bigarren arabiar-israeldar gatazka sahisteko. 1967. © Argazkilari ezezaguna / UNRWAre artxiboak

kan, desagertu egin ziren Palestinako Kontseilu Nazionaletik. Nabarmen gelditu zen, beraz, emakumeek oso sarbide hertsia zutela fakzioetako ordezkaritza postuetan. Palestinar emakume ekintzaileak baztertuta eta erabilia sentitu ziren eta, horrenbestez, genero-kontzientzia nabarmen garatu zen, aurreko aldi baino askoz ere gehiago.

Dena dela, nazio-larrialdiak bere horretan jarraitzen zuenez, egoera horretan ere emakume gehienek nazio-borrokaren aldeko jardunean jarraitu zuten. Emakumeak inoiz baino gehiago mobilizatu ziren eta, horrenbestez, emakume-mugimenduaren osaera eta klase-aniztasuna zabaltzea lortu zuten.

1967tik aurrera, Palestinako emakume-mugimenduko liderrak eta egiturak kanpoan antolatu ziren, nazio-askapenerako gainerako mugimenduarekin gertatzen zen bezala. Hasiera batean Jordaniatik aritzen ziren, eta 1970eko Irail Beltzaren ondoren Libanotik.

Iraultza Libanon hedatu zen garaian izan zen, hain zuzen, emakume-mugimenduaren historiako jarduera politikorik handiena. Epealdi hori 1971n hasi eta 1982ra

luzatu zen; alegia, Israelek Libanoko hegoaldea inbaditu eta PAE estatu horretatik irtetera behartu zuten arte. Urte horietan, palestinar emakumeek garrantzi handia eskuratu zuten nazioartean. Azpimarratzekoa da, adibidez, Emakumeari buruzko Mundu Biltzarretan izan zuten partaidetza⁷. Palestinar emakumeak Mexikon izan ziren 1975eko lehenengo Biltzarrean (Nazio Batuen Emakumeentzako Hamarkada aldarrikatu zuen hartan), bai eta ondoren Kopenhagen (1980), Nairobin (1985) eta Pekinen (1995) egin zirenetan ere.

Palestina barnean, berriz, bizirik irautea zen emakumeen lehentasuna, guztiz mugatuta baitzeukaten antolatzeko gaitasuna. Okupazioaren lehen urteetan, Gazak armen bidez egin zuen aurre. Zisjordanian, berriz, jarduera politikoa guztiak klandestinoak ziren.

Zisjordaniako, Gazako eta Ekialdeko Jerusalemeko palestinarrek Israelen okupazio militar bortitzarekin amaitu nahi zuten. Alabaina, pixkanaka-pixkanaka, okupazioa anexio bihurtzen ari zen, eta kanpoaldetik aritzen ziren liderrek ezer gutxi egin zezaketan, nazioartean egoera hori salatzeaz harago. Egoera horretan, ezinbestekoa zen lurralde okupatuan antolatzen hastea.

Illo horretan, antolatutako masa mugimendu herritarraren oinarriak eraikitzen hasi ziren palestinar biztanleak, Palestina barnean. Jarduera soziala eta lan komunitarioa ziren mugimendu horren euskarriak. Egoera berri horren ondorioz, nazio-askapenerako borrokaren erdigunea kanpoaldetik Palestina okupatu barnera pasatu zen.

1972an Lan Boluntarioko Batzordeak eratu ziren (LBB). Helburua: palestinar okupatuak zerbitzuak hornitzea; hau da, Israelek, nazioarteko zuzenbidearen aurka, ukatzen zizkien zerbitzuak. Batzordeak aukera bakarra ziren Palestinar gizartearen iraupenerako ezinbestekoak ziren oinarriko azpiegiturak erabat kolapsatzea saihesteko.

LBBak abian jartzeko lehen urratsak ikasleek eman zituzten, horien artean emakume ikasle askok. Eskulanaren eta lan intelektualaren arteko hormak eraitsi nahi zituzten eta, horretarako, kontzientzia kolektiboa sustatzea, komunitateari laguntzea eta emakumeen eskubideak hobetzea proposatu zuten. Nazioa berreraikitzeko ahalegina zen, Israelen okupazioa guztiz kontrako bidean ari zen bitartean.

Ikasleek, lehenengo eta behin, kaleak garbitu zituzten, errepideetan zoladura jarri zuten, hormak berreraiki zituzten, basoak landatu, ebatsitako lurrak itzultzeko eskatu, estolderia sortu, eta nekazariei uzta biltzen ere lagundu zieten. Kaleak eta espaloiak eraiki eta ikastetxeak berritu zituzten.

Emakume eta gizon horiek behar zen tokietan aritzen ziren eta, pixkanaka, udalekin elkarlanean jarduten hasi ziren. Ondorioz, Palestinako Lurralde Okupatu osora hedatu ziren Lan Boluntarioko Batzordeak. Antolaketa eredu horrek mobilizazio politikoa eta gizarte-zerbitzuen hornikuntza biltzen zituen. Jarduera guztiz demokratikoa zuten, eta klase- eta genero-gaiei aurre egiteko oinarriak finkatu zituzten.

⁷ Emakumeari buruzko Mundu Biltzarrei buruzko informazio gehiago: <http://www.unwomen.org/es/how-we-work/intergovernmental-support/world-conferences-on-women> [2016ko irailean kontsultatu da].



Errefuxiatu palestinarak Allenby Zubiko mugan ihesi 1967ko gatazken ondorioz. 400.000 palestinar inguruk ihes egin zuten Jordan ibaia zehar bigarren arabiar-israeldar gatazka sahisteko. 1967. © Argazkilari ezezaguna / UNRWAre artxiboak

Batzordeei esker, emakumeek eta gizarte osoak Palestina askatzeko borrokan parte hartzeko aukera izan zuten.

GUPWeko emakumeei dagokienez, lanean jarraitu zuten, baina klandestinitatean, halaberharrez. Israelek erakunde horren jarduna debekatu zuen eta emakumeek zailtasun asko gainditu behar izan zituzten ohiko jarduerak jorratzeko. Gizarte- eta ongintza-gaiak lantzen zituzten emakume-erakundeak baino ezin ziren aritu askatasun pixka batekin.

Okupazio eta zapalkuntza politikoaren ondorioz, emakumeak areago politizatu ziren. Hasiera batean ez zieten kasu handirik egiten, baina pixkanaka, atxiloteta arbitrarioen oldea beraiengana ere iritsi zen. Iturriaren arabera kopurua aldatu egiten da, baina 1967 eta 1979 bitartean gutxienez 2.000 emakume eta neskatu atxilotu zituztela jotzen da. Kopuru horiek agerian jartzen dute emakumeek nazio-borrokan gero eta partaidetza handiagoa zutela.

Egoerak eraginda (Palestinako emakumeen politizazio eta partaidetza handiagoa, okupazioaren pean bizi zuten egoera berezia, emakume izateagatik aurre egin beharreko oztopoak...) emakume-mugimenduak emakumeen berariazko eskubideei erreparatu zien. Hala, 1978tik aurrera, «Emakume Mugimendu Berriari» buruz hitz egiten hasi ziren.

II. ZATIA: 1978-1991: EMAKUMEEN ESKUBIDEAK NAZIO BORROKAREN ZERBITZUAN. EMAKUME BATZORDEAK ETA 1987ko INTIFADA

Okupazioaren lehen urteetan nerabezaroan zeuden emakume asko unibertsitatean ikasten edo lanean hasita zeuden, eta euren beharrian eta asmo zehatzak merezi zuten lekuan egotea nahi zuten.

Izan ere, gizonekin eskuz esku aritu arren, esparru askotan baztertuta sentitzen ziren. Batez ere langile-sindikatueta eta ardura- edo lidergo-postuetara iristeko aukeran.

Erabiliak sentitzen ziren eta, horregatik, lehen aldiz euren eskubide espezifikoaren alde mobilizatzea erabaki zuten. Eginkizun garrantzitsua zutela jakinik, eta emakumeen interes espezifikoetarako espazio egokirik aurkitu ezinean, espazio propioak sortzea erabaki zuten.

Hala, lehen aldiz, emakumeen eta nazioaren askatasuna, biak elkarrekin lotu zituzten. Gero eta argiago ikusten zuten ezinezkoa zela Palestina askatzea emakumeak askatu gabe. Urte horietan egindako lanak nabarmen zabaldu zituen emakume-mugimenduari oinarriak: kolonialismoaren aurkako klase-mugimendu nazionalista izatetik kolonialismoaren aurkako herri-mugimendu nazionalista izatera igaro zen.

Emakumeen eskubideen aldeko borrokak nazio-borrokaren zerbitzuan jarraitzen bazuen ere, 1978 eta 1982 bitartean Emakumeen lau Batzorde eratu ziren, palestinar emakumeak emakume izateagatik aurre egin beharreko gai eta egoeretara bideratuta.

1978ko martxoaren 8a historikoa izan zen emakume-mugimenduan: iragana eta etorkizuna bereiziko zituen mugarria. Izan ere, emakumeen nazioarteko egunean, Emakumeen Lan Batzordea (WWC, ingelesezko sigletan, *Women's Work Committees*) sortu zen, emakume langileen eskubide espezifikoak defendatzeko.

Emakumeen Lan Batzordea sortu zuten emakumeak israeldarren okupazioaren pean haziak ziren, sozialki jantzita eta politikoki konprometituta zeuden, eta alor batean nahiz bestean aktiboak ziren. Emakumeen emantzipazioa sustatu nahi zuten, eta aldi berean nazio-askapenaren aldeko indar guztiekin batera jardun. Egoera politikoari aurre egiteko, emakumeak indartu egin nahi zituzten, gizartearen parte ziren heinean.

Okupazio militarren pean zeuden horretan, ezinezkoa zen palestinar emakumeen egoera hobetzerik, okupazioak emakumeengan zuzenean eta bereziki zuen inpaktua ulertu gabe.

Lurra konfiskatzeak, etxeak eraisteak, kokaleku juduak eraiki eta herritarrak derrigorrez lekualdatzeak... horiek guztiek Palestinako ekonomiaren ardatz nagusietako bati, nekazaritzari, erasotzen zioten. Eta nekazaritzan, hain zuzen, palestinar emakumeek funtsezko eginkizuna betetzen zuten historikoki.

Israelen okupazioak Palestinako Lurralde Okupatuan garapen ekonomikoa galarazten zuten. Lurraren konfiskazioak, kolono israeldarrek kokalekuak sortzeak eta baliabideen



Kaleko iskanbila Gazako eremuan Lehengo Intifadan. 1988. © George Nehmeh / UNRWaren artxiboak

gaineko kontrolak nekazaritzako lurren kopurua murriztu egin zuten, eta nekazaritza, ordura arteko produkzio-bide nagusia, larriki kaltetu.

Gauzak horrela, eta okupazioak edozein garapen industrial eta merkaturatzeko aukera oro galarazten zuenez, palestinar ugari (emakumeek nahiz gizonek) Israelgo merkaturan bilatu behar izan zuten lana.

Egoera horretan, erraz uler daiteke Emakumeen Lan Batzordeen lehen helburuetako bat honako hau izatea: emakume langileek okupazio-testuinguruan bizi zuten egoera espezifiko. Horretaz gain, baina, emakumeen osasuna, hezkuntzarako sarbidea eta lan-eskubideen egoera ere landu zituzten. Horren guztiaren ondorioz, emakumeek Palestinako langile-sindikatuaren jardueretan zuten partaidetza izugarri handitu zen.

Halere, nazio-gaiari lotutako desberdintasun politikoak tarteko, ideologikoki fakzio politikoekin lerratutako emakume-batzorde berriak sortu ziren.

- 1981ean, Alderdi Komunistatik hurbil zeuden emakumeek Emakume Langileen Palestinako Batzordeen Batasuna (UPWWC, ingelesezko sigletan, *Union of Palestinian Working Women's Committees*) sortu zuten.
- Urte horretan bertan baina hilabete batzuk geroago, PAHFtik hurbil zeuden emakumeek Palestinako Emakumeen Lantaldeen Batasuna (UPWC,

ingelesezkot sigletan, *Union of Palestinian Women's Committees*) sortu zuten.

- Urtebete geroago, 1982an, Fatah-tik hurbil zeuden emakumeek Gizarte Ekin-tzarako Emakume Batzordea (WCSW, ingelesezko sigletan, *Women's Committees for Social Work*) sortu zuten.
- Azkenik, 1978ko Emakumeen Lan Batzordeak, PAFDtik gertuago zegoenak, 1989an izena aldatu eta Emakumeen Ekintza Batzordeen Palestinako Fede-razioa izena hartu zuen (FPWAC, ingelesezko sigletan, *Federation of Women's Action Committees*).

Emakumeen lau batzorde horiek alor politikoan desberdintasunak bazituzten ere, emakumeei lotutako gaietan lankidetzat estuan jarduten zuten.

Helburua zera zen: emakume-mugimendu bateratua sortzea, emakumeak nazio-as-ka-penaren alde mugiarazteko eta, aldi berean, emakumeen egoera sozioekonomi-koa eta hezkuntza indartzea, Palestinako gizartearen baitan euren emantzipazioa lortzeko funtsezko elementua zelakoan.

Esparru teorikoan, argi zegoen emakumea emantzipatu gabe ez zegoela Palestina emantzipatua eta independentea izatea. Esparru praktikoan, ordea, nazio-borrokak zeukan lehentasuna eta, ondorioz, planteamendua kontrakoa zen: nazio-askapena-ren borroka eskuratuta etorriko zen emakumearen askapena.

Alabaina, okupazioaren indarkeria nagusi zen eta oso zaila edo ezinezkoa zen edo-zein lorpen errealitatean gauzatzea. 1987an Intifada lehertu zenean, baina, emaku-meen mobilizazio-maila agerian gelditu zen.

Hamar urtean, milaka emakumek eman zuten izena batzorderen batean. Batzorde guztiek zituzten adarrak Palestinako hiri gehienetan. Batzordeen lanaren emaitza agerian gelditu zen 1988ko martxoaren 8an deitutako manifestazioan, emakumeen partaidetza izugarria izan baitzen.

Berriz ere, nazioaren biziraupenak emakumeak bateratu eta aldarrikapen feministak atzean utzarazten zizkien, guztiz itzali gabe bada ere. Urte horretako abenduan, ba-tzordeetako emakumeek elkarren arteko desberdintasunak ahan-tzi eta Emakumeen Kontseilu Gorena (HWC, ingelesezko sigletan, *Higher Women's Council*) eratu zuten. Kontseilu horrek emakumeen lana koordinatzen zuen nazio mailan eta, horrekin ba-tera, Altxamenduaren Buruzagitza Bateratu Nazionalak (UNLU, ingelesezko sigletan, *Unified National Leadership of the Uprising*) emandako aginduak bideratzen zituen. UNLUk indar politiko guztiak biltzen zituen, 1987ko Intifadan erresistentziako ekin-tzak koordinatzeko. 1988an, Israelek Kontseiluaren jarduera debekatu zuen eta une horretatik aurrera batez ere gizarte-jardueretan aritu zen. Alor politikoa klandestini-tatetik jorratu zuten, beraz.

Lan komunitarioaren bidez, lehen aldiz, okupazioari barnealdetik aurre egitea lortu zuten. Adin eta gizarte-maila guztietako gizon eta emakumeak publikoki hartu zuten

parte Israelen okupazioari aurre egiten. Errealitate horrek egitura sozial, ekonomiko eta politiko tradizionalak aldarazi zituen eta, oro har, gizarteak klaseari eta generoari lotutako gaiei buruzko kontzientzia handiagoa hartu zuen. Espazio publikoan izandako partaidetza politikoak ordezkaritza politikoan isla handiagoa izateko borrokatu ziren emakumeak, ordura arte esparru hori gizonen esku egon baitzen.

Halere, eta emakumeek garai horretan aurrerakuntza handiak egin bazituzten ere (batez ere mobilizazioaren alorrean), okupazioa zen, oraindik ere, aurre egin beharreko oztopo nagusia. Eta, horrekin batera, nazio-erakunderik ez izatea, egoera horretan ez zeukaten- eta emakumeen eskubideen babesa praktikan bermatzeko lege-esparrua jorratzeko eremurik. Zailtasunen gainetik, ordea, Batzordeek gaur egun arte jarraitu dute, egoeraren arabera jokabidea egokituta.

III. ZATIA: 1991-2016: EMAKUMEEN AGENDA NAZIONAL BATEN BILA.

1. Askatasunaren eta autodeterminazioaren lilura. Erakunde feministen sorrera (1991-2000).

1987ko Intifada itzaliz joan zen, harik eta Osloko Hitzarmen bidez erabat itzali zen arte. Osloko lehen Hitzarmena («Palestinako behin-behineko Gobernu Autonomoari buruzko Printzipioen Aldarrikapena» ere esaten zaio) 1993ko irailaren 13an sinatu zuten Israelgo Gobernuak eta PAEk.

Oslo sinatutakoaren bidez, bi alderdiek elkar aitortzeko prozesua ireki zuten: Palestinak Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 242 eta 338 ebazpenak (indarkeriari uko egiteari buruzkoak) onartu eta Israelgo estatuari bakean eta segurtasunean bizi izateko eskubidea aitortu zion. Israelek, bere aldetik, PAE palestinar herriaren ordezkaritzat onartu eta bake negoziazioekin aurrera jarraitzeko prestutasuna adierazi zuen.

Hitzarmenen arabera, Israel apurka-apurka baina zehaztutako epeetan erretiratu zen Palestinako Lurralde Okupatutik, eta figura administratibo autonomo bat sortu zen, Israelek lurralde okupatua utzi ahala eremu horiek era mugatuan eta behin-behinean gobernatzeko. Horrela sortu zen Palestinar Agintea (PA). Gobernu autonomo horri hainbat eskumen aitortu zizkioten, batez ere administrazio zibilari lotutakoak, bai eta Palestinako Lurralde Okupatutako eremu jakin batzuen gaineko segurtasuna ere.

Osloko hitzarmenetan zehaztu zutenenez, lurralde okupatua hiru eremutan banatu zen:

1. A eremua. Eremu horretan, administrazio zibila eta segurtasunaren kontrola oso-osorik PAren esku gelditu zen. Gaur egun, eremu horrek Zisjordaniako lurraldearen % 18 inguru hartzen du, eta tartean Palestinako zortzi hiri nagusiak, Gaza izan ezik: Jenin, Nablus, Tulkarem, Qalqilya, Jeriko, Ramallah, Belen eta Hebron hiriaren zati handi bat.

2. B eremua. Kasu horretan, administrazio zibila PAren esku dago, baina segurtasunaren kontrola Israelekin batera gauzatu behar du. Zisjordaniako % 22 inguru hartzen du, tartean Palestinako 400 hiri eta herri txiki. A eta B eremuek, biek batera, lurraldearen % 40 eskas hartzen badute ere, Zisjordaniako ia palestinar guztiak biltzen dituzte.
3. C eremua Israelen kontrolpean dago, erabat. Eremu horrek Zisjordaniaren % 60 hartzen du, eta bertan daude Zisjordaniako baliabide natural gehienak eta israeldarren kolonia eta kokaleku guztiak.

Osloren bokazioa zera zen: Israelgo agintariak pixkanaka Palestinako Lurralde Okupatutik joatea. Palestinako gizarteak ilusioz eta itxaropenez ikusi zuen bake-prozesua. Azkenean, gehiegi irauten ari zen tragedia baterako erantzun eta irtenbideak izatea espero zuten. Baina, pixkanakako erretiratze hori ez da inoiz gauzatu.

Palestinako emakumeak ere ilusioz beteta zeuden, batez ere gazteenak. Lidergo postuetan ordezkaritza izateko eta beraietan parte hartzeko arazoak desagertu egingo zirela eta etorkizuneko Palestinako Estatua gizonen berdintasun-baldintza beretan osatuko zutela pentsatzen zuten. Alabaina, errealtatea oso bestelakoa zen, oraindik ere. Prozesu negoziatzailea egituratuko zuten batzorde teknikoak osatzeko 300 postu sortu ziren; bada, lau emakumek baino ez zuten partaidetza aktiboa izango batzordeotan.

Orduantxe, 1992an, erabaki zuten emakumeek Emakume Gaien Batzorde Teknikoa (WATC, ingelesezko sigletan, *Women's Affairs Technical Committee*) osatzea. Emakumeen gaiak aztertzeke batzorde tekniko berezia zen, asmo zehatz batekin: bake-prozesuan genero-ikuspegia txertatzea eta Emakumeen Agenda Nazionala zehaztu, diseinatu eta proposatzea. Emakumeen lanaren ondorioz sortu ziren genero-unitateak (24 inguru) ministerio eta gobernu-instituzio sortu berri guztietan.

Gero eta argiago zegoen emakumeen eskubideei arreta espezifikoa eta zehatza eskaintzeko beharra, eta behar horren ondorioz sortu ziren, hain zuzen, emakumeen eskubideen egoera aztertu eta garatzera zuzendutako espazio berriak. Azpimarregarriak dira, besteak beste, 1989an sortutako Emakumeentzako Ikerketa Zentroa (WSC, ingelesezko sigletan, *Women's Studies Centre*), 1991n sortutako Emakumeentzako Laguntzarako eta Lege Aholkularitzarako Zentroa (WCLAC, ingelesezko sigletan, *Women's Centre for Legal Aid and Counselling*) eta 1994an sortutako Birzeiteko Unibertsitateko Emakumeei buruzko Ikerketarako Institutua (IWS, ingelesezko sigletan, *Institute of Women's Studies*). Azken horri dagokionez, emakumeen alorra aztertzeke Palestinan egindako lehen ekimen akademikoa izan zen, eta arabiar mundu osoan dauden bietako bat.

Palestinako Estatua sortzeko prozesuan genero-gaietara bideratutako nazioarteko fondoek bultzada handia eman zioten soil-soilik emakumeen alorrera bideratutako ikerketa-zentroen eta erakundeen sorrerari. Harrezkero eta gaur egun arte, emakumeei arreta egin edo arlo hori aztertzen duten beste zentro asko ere sortu dira.



Ormaren bista Qalqilyan, Zisjordania. 2003. © J.C. Tordai / UNRWAre artxiboak

Lehen aldiz, generoari eta emakumeei lotutako gaiak berariaz eta zehatz aztertzen ziren.

Palestinako 1996ko hauteskundeetan jarri ziren agerian emakumeen lanaren emaitzak. Izan ere, lehendakariagaien artean zegoen Samiha Salameh Khalil, Palestinako emakume-mugimenduan ibilbide historikoa jorratu zuen emakumea. Emakume horrek sortu zuen 1965ean Zisjordanian eta Gazan dagoen gizarte-erakunderik indartsuena, gaur egun ere lanean jarraitzen duena. Halere, Yasser Arafatek eskuratu zituen boto gehien, eta urte horretako urtarilean Palestinako Aginteko lehen lehendakaria izan zen.

Geroago, 2000. urtean, Palestinako Emakumeen Batasun (edo Sindikatu) Orokorrak (GUPW), Palestinako Emakumeen Lantaldeen Batasuna (UPWC) izendatu zuen GUPWeko administrazio-kontseiluko buruzagitzarako. Harrezkero, palestinar emakumeak PAE baitan ordezkatzen dituen funtsezko egituraren lana berpizteko lanean ari dira.

Urte horretan bertan, emakumeek historian egindako lana balioan jartzeko ebazpena onartu zuen Palestinako Kontseilu Nazionalak. Ebazpen horretan emakumeen egoera hobetzeko borondatea adierazten zuen: «Independentziaren Aldarrikapenaren agerian oinarrituta eta palestinar emakumeak gure borroka sozial eta nazionalean bete duen eginkizun aitzindaria aintzat hartuta, nazio-laneko esparru guztietan palestinar emakumeen eginkizuna indartzeko eta emakumeen partaidetza erabakigune guztietara eramateko lan egitea erabaki du Palestinako Kontseilu Nazionalak».

Halere, emakumeen lehen lorpenak bistaratzen ari ziren unean bertan, agerian gelditu zen bake-prozesua lilura-une bat izan zela eta oraindik ere, gizarte patriarkalean bizi izateak dakartzan mugen gainetik, palestinar emakumeen oztoporik handienak beste batzuk zirela: erbestean bizi beharra, Israel barneko legezko diskriminazioa eta, batez ere, okupazioaren bortizkeria, horixe baitzen euren eskubideen urraketarik garrantzitsuenak.

2. Bete gabeko promesak: (2000-2016).

1999tik 2000ra, Israelen okupazioak gero eta politika bortitzagoak erabili zituen, eta bake-prozesua itzulerarik gabeko puntura iritsi zen. Palestinako herritarrek 2000ko Intifadaren bidez («Bigarren Intifada» eta «Al-Aqsaren Intifada» ere esaten diote) adierazi zuten euren nahigabea.

2000ko irailean, Ariel Sharonek, garai hartako Israelgo oposizioaren buruak, Al-Aqsako meskita bisitatu zuen, justu Camp Davideko elkarriketek huts egin ondoren. Eta, hain zuzen, negoziazio-prozesuko gairik garrantzitsuenei eta delikatuenei buruzko azken hitzarmena lotzea zen elkarriketa horien asmoa: segurtasuna, Jerusalem, mugak eta errefuxiatuak. Herritar palestinarrek probokazio larritzat hartu zuten bisitaldi hori, eta horixe izan zen Intifadaren eragilea, Israelen okupazioaren ondorioz metatutako tentsio handia zela eta.

Hilabete geroago, urrian, Nazio Batuek Segurtasun Kontseiluaren 1325 ebazpena onartu zuten («Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna» izenez da ezaguna). Emakumeek erabakigune guztietan parte hartzea sustatzen du ebazpenak eta, bereziki, emakumeek gatazka armatuetan jokatu duten eginkizuna aipatzen du. Izan ere, gatazkak prebenitzeko eta irtenbideak bilatzeko izan duten garrantzia azpimarratu eta negoziatio-prozesuetan eta bakea sendotzeko prozesuetan emakumeen partaidetza bultzatzen du. Palestinako emakumeentzat oso ebazpen garrantzitsua izan zen baina, batik bat 2000. urtetik aurrera okupazioaren indarkeria goraka zihoalarik, PAk ezin izan zuen 2006. urtera arte onartu.

2001ean Ariel Sharon Israelgo lehen ministro izendatu zuten eta, berehala, ordura arte lotutako akordioak eta negoziatioak arbuia eta Yasser Arafatekiko harremanak eten zituen. Palestinar Aginteko lehendakariari Ramallahtik irtetea galarazi eta, praktikan, PAN baliogabetu egin zuen.

Intifada horrek bazuen 1987koarekiko desberdintasun bat: bortizkeriaren maila. Palestinarrak eraso suizidak egiten hasi ziren eta Israelek, bere aldetik, berriz ere inbaditu zituen Osoko hitzarmenaren ondorioz utzi berri zituen Palestinako hiriak (A eremu-koak). Gehien-gehienetan, biztanle zibilak ziren Israelen erasoan jomuga. Tankez eta helikopteroz egindako inbasioak eta herri batzuen gainean egindako bonbardaketa indiskriminatuak eten bat ekarri zuten Israelen okupazioan, ordura arte inoiz ez bezalako bortizkeriaz jarraitu baitzuen Palestina okupatzen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa urratzen.

Muturreko bortizkeria hedatu zen horretan, Palestinako emakumeen mugimenduak ia jarduera guztiak eten behar izan zituen. Berriz ere, nazio-iraupena zen lehentasuna.

Krisi humanitario orokortu berri horren aurrean, UNRWak Gazarako eta Zisjordaniarako lehen larrialdi-deia egin zuen. Harrezkero urtean behin errepikatu du, Palestinako errefuxiatuen giza eskubideak babesteko eta behar humanitarioak asetzeko asmoz. Ildo berean, 2002ko martxoaren 12an, NBEko Segurtasun Kontseiluak 1397 ebazpena onartu zuen, zeinaren bidez Palestinako Estatua sortzea erabaki zuen.

Eraso suiziden aurrean bidezko defentsa argudiatuta, 2002ko ekainaren 23an Israelek Harresi bat eraikitzeke lanei ekin zien. Harresi horrek Marra Berdea zeharkatzen du, baina gutxi gorabehera % 20 Israelgo lurretan, eta gainerako % 80a, berriz, Marra Berdea zeharkatu eta Zisjordaniako lurretan barna. Leku batzuetan 22 kilometro ere barneratzen da, biztanle asko biltzen dituzten kokaleku israeldarrak barnean hartzeko. Besteak beste, Ariel, Gush Etzion eta Maale Adumin. Harresia bukatzen dutenean, Zisjordaniako lurraldearen % 9,4 inguru, Ekialdeko Jerusalem barne, Harresiaren bidez isolatuta eta Israeli lotuta egongo da. Guztiz burutzen dutenean 712 kilometro inguru izango ditu, Marra Berdearen bikoitza baino gehiago (312 km).

2003ko urriaren 21ean, Jordaniak proposatutako A/RES/ES-10/13 ebazpen ez-lotestea onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (144 boto alde, 4 aurka eta 12 abstentzio). Haren bidez, Israeli harresiaren eraikuntza bertan behera uzteko eta orain arte eraikitakoa eraisteko dei egiten zaio, 1949ko armistizio-marratik aldentzen delako eta nazioarteko zuzenbidearen xedapenekin bateraezina delako.

2004ko uztailaren 9an, Palestinako Lurralde Okupatuan harresia eraikitzeak dakartzan ondorio juridikoei buruzko kontsulta-iritzia (A/ES-10/273) eman zuen Nazioarteko Justizia Auzitegiak, Nazio Batuen Batzar Nagusiak hala eskatuta (A/RES/ES-10/14). Nazioarteko Justizia Auzitegiaren esanetan, «Israelen nazioarteko zuzenbidearen urraketak eten behar ditu; Palestinako Lurralde Okupatuan, Ekialdeko Jerusalem eta inguruetan barne, eraikitzen ari den harresiaren lanak berehala bertan behera utzi behar ditu, nahitaez; bertan dagoen egitura berehala eraitsi behar du; eta baliogabetu egin behar ditu, berehala, harresiari lotutako lege- eta arau-egintza guztiak». Nazioarteko Justizia Auzitegiaren ebazpenaren gainetik, Israelen Harresia eraikitzeke legez kanpoko lanekin jarraitzen du gaur egun ere.

Israelen okupazioaren bortizkeriak Palestinako herritar zibilak inoiz baino gogorrago kolpatu dituen urte horietan, 2003an, sortu zuen Palestinako Agintaritzak Emakume Gaietarako Ministerioa (MOWA, ingelesezko sigletan, *Ministry of Women's Affairs*). Ministerioaren helburu nagusia: ministerio guztietan genero-gaiak era koordinatuan eta harmonizatuan sustatuko direla bermatzea. Horren ondorioz, gobernazio (probintzia mailako banaketa administratibo) bakoitzean Emakumeen Gaietarako Zuzendaritza bat ezarri zen, Ministerio horri lotuta.

Bigarren Intifadaren amaiera 2005ean izan zela jotzen bada ere, hiri batzuetan, hala nola Nablusen, blokeoak 2007. urtera arte iraun zuen.

2005. urtera arte Israelgo estatuak Gazako Zerrenda fisikoki okupatu zuen, gaur egun Zisjordania okupatzen duen bezala. Okupazioa aipagai dugunean, Zerrenda barruan armadaren presentzia, kolonoen kokalekuak eta beste presio-bide batzuk mantentzeaz ari gara. Urte horretan, Ariel Sharonek kokalekuak eraistea agindu,

armada erretiratu eta aireko, itsasoko eta lurreko kontrolaren bidezko okupazioa-ri eman zion bide. Izan ere, blokeo sozioekonomiko horrek indarrean dirau gaur egun ere.

Nazioarteko komunitateak sustatutako 2006ko urtarrileko palestinar lege-gintza-hauteskundeetan gehiengoa lortu zuen Hamasek Palestinako Lurralde Okupatu osoan: 76 aulki eskuratu zituen Hamasek, eta 43 Fatah-k. Halere, hauteskundeetan garailea izan arren, hainbat hilabetetan *Fatah*-ren aurka armez aritu ondoren eskuratu zuen Hamasek Gazako Zerrendako boterea. *Fatah*-k bere aldetik, Zisjordanian gobernu hartu zuen. Horiek horrela, Palestinako Batasun Nazionalako Gobernu deuseztatu egin zen. Israelek are gehiago mugatu zituen Gazatik irteten ziren edo Gazara zihoa-zen pertsonen eta salgaien joan-etorriak eta, ondorioz, erregai- eta elektrizitate-hor-nidura nabarmen murriztu zen. Hala, inoiz ikusi gabeko krisi humanitarioa sortu zen, bertako palestinarrek bizi zuten isolatze ekonomikoa, soziala eta geografikoa gehitu baitzitzaion blokeo-egoerari.

Harrezkero, Israelek hainbat eraso militar egin ditu Gazako Zerrendaren aurka, pa-lestinar biztanleen eta bereziki emakumeen bizi-baldintzak nabarmen kaltetu dituz-tenak.

2008ko abenduaren 27tik 2009ko urtarrilaren 18ra, Israelek «Berun urtua» izeneko eraso militarra egin zuen Gazan, eta 1.400 palestinar hil eta 5.000 zauritu zituen, ho-rietatik gehienak zibilak. 2012ko azaroan, berriz, «Defentsako Zutabea» eraso egin zuen. Zortzi egunean, airez, itsasoz eta lurrez eraso zioten Zerrendari, eta are gehia-go ahuldu zituzten aurreko erasoetan kaltetutako azpiegiturak. Ondorioz, 12.000 pa-lestinarrek aldi batez lekualdatu behar izan zuten, 1.700 etxe eraitsi edo larri kaltetu zituzten, eta beste milaka etxek kalte txikiak jasan zituzten. 158 hildako eta 1.268 zauritu izan ziren.

2014ko uztailetik abuztura bitartean, 50 egunez, Israelek «Marjina Babeslea» eraso suntsitzailea egin zuen Gazaren aurka, lurrez, airez eta itsasoz. Hildako ugari ez ezik, 1967ko okupaziotik Gazako Zerrendan inoiz ikusi gabeko suntsiketa ere eragin zu-ten; izan ere, etxeak eta azpiegiturak masiboki hondatu zituzten. Milioi bat pertsona inguruk (Zerrendako biztanleen % 28k) lekualdatu behar izan zuten Gaza barnean, eta babeslekutat izendatutako UNRWako 81 eskolatan bilatu zuten babesa horieta-ko gehienek. Hildako 2.220 palestinarretatik 1.492⁹, gutxienez, zibilak izan ziren, eta 1.500 haur umezurtz gelditu ziren, aita, ama edota biak galduta. Adineko pertsona asko ere bakarrik gelditu ziren. 60 eta 69 urte bitarteko emakume alargunen kopu-rua % 40 hazi da. 11.231 lagun zauritu zituzten: gutxienez 3.374 neska-mutil, 2.088 emakume eta 410 adineko. Israelen aldean 71 lagun hil ziren: horietatik bost zibilak, eta horietatik bat haurra eta beste bat atzerritarra; palestinarrek jaurtitako suzirik eta morteroek dozena bat zibil zauritu zituzten: horietatik sei haurrak.

Zailtasun guztien gainetik, emakumeak lanean jarraitzen ahalegintzen dira, baita testuinguru horretan ere. 2000. urtean jasotako agindua betez, 2007-2008tik aurre-ra emakume-erakundeen eta -batzordeen lan koordinatua bultzatzeko lanari heldu

9 Fragmented lives. Humanitarian Overview 2014, OCHA oPt, March 2015.



Fosforo bonbak UNRWAre instalazioak kolpekatuz, Beit Lahian, Gaza. 2009. © AFP Photoren adeitasunez

zion berriro Palestinako Emakumeen Lantaldeen Batasunak (UPWC). Lan horren guztia- ren emaitza 2009an azaleratu zen, Palestinako Emakumeen Batasun Orokorren Biltzarra deitu (1985an egin zen azken biltzarra) eta hauteskundeak antolatu zituzte- nean. UPWC bera aukeratu zuten erakundeko idazkaritzarako.

Aginte Palestinarrak, bere aldetik, genero-gaiak gizarteko maila eta sektore guztie- tan zeharka txertatzeko Estrategia Nazionala jorratu zuen 2011 eta 2013 bitartean, Ministro Kontseiluak genero-gaiak sustatzeko 2009an onartutako aurrekontu-le- rroari esker.¹⁰

2009an bertan, eta Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, Mahmoud Abba- sek 19. Lehendakaritza Dekretua sinatu zuen, Emakumeen aurkako Bereizkeria mota guztiak Ezabatze- ko Konbentzioa (CEDAW) berretsiz. 2014ko apirilaren 1ean, Pales- tinako Estatua nazioarteko 15 konbentzio eta hitzarmeni atxikitzeko eskaera igorri zion APk Nazio Batuei. Horien artean zeuden Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioar- teko Ituna, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, CEDAW eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa.

Geroago, 2011-2019 aldirako Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze- ko Estrategia Nazionala onartu zuen Agintaritza Palestinarrak. Maila instituzionalean beste urrats batzuk ere egin dira, hala nola Palestinar Agintaritzako gainerako ministerioetan genero-unitateak ezartzea eta gobernazio (probintzia mailako banaketa adminis- tratibo) bakoitzeko hiri nagusietako polizia-etxeetan familia babesteko unitateak ezartzea. Azken horiek 2008an ezarri ziren genero-indarkeriari heltzeko, langile eta baliabide gutxierekin bada ere.

¹⁰ Palestine National Authority: *Cross-Sectoral National Gender Strategy: Promoting Gender Equality and Equity, 2011-2013*. PNA, Ministry of Women's Affairs.

Nolanahi ere, palestinar emakumeen lorpenen eta borroka etengabearen gainetik ere, emakumeek eta gizarte osoak patriarkatuaren, diskriminazioaren eta esplotazioaren pean jarraitzen dute, bai etxeetan, bai lantokietan. Oztopo horiek are zailagoak dira, gainera, diskriminazio-sistema legal, sozial eta ekonomikoetan gauzatzen diren egiturazko oztopo kulturaletan oinarritzen diren heinean. Alabaina, horren guztiaren gainetik, Israelen okupazio bortitzak dakartzan oztopoei aurre egiten jarraitzen dute. Izan ere, Nazio Batuek eurek 1975az geroztik kondenatu duen okupazio hori da palestinar emakumeen garapenerako oztoporik handiena. Azken kondena Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak egin zuen 2016ko ekainean. Era berean, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak «Palestinar emakumearen egoera eta bera babesteko laguntza» izeneko txostena plazaratzen du urtean behin, Emakumeen Egoerari buruzko Batzorde Juridiko eta Sozialaren aurrean (CSW, ingelesezko sigletan, *Commission on the Status of Women*) aurkezteko.¹¹

Emakumeen eskubideen aldeko borroka beti da zaila, baita egoera normalean ere. Bada, Palestinar herriaren iraupena bera arriskuan dagoenean, borroka hori askoz ere zailagoa, ia ezinezkoa, bihurtzen da. Alabaina, egoera horrek eragiten dituen zailtasun zenbatezinen gainetik ere, euren eskubideak eta Palestinako herriaren autodeterminazioa defendatzeko borrokan jarraitzen dute palestinar emakumeek.

11 2016. urteari dagokiona hemen aurki daiteke:
http://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=E/CN.6/2016/6&referer=http://www.unwomen.org/es/csw/csw60-2016/official-documents&Lang=S

**PALESTINAKO LURRALDE
OKUPATUKO KRISI HUMANITARIOA,
GENERO IKUSPEGITIK AZTERTUTA**

PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUKO KRISI HUMANITARIOA, GENERO IKUSPEGITIK AZTERTUTA

2012ko azaroaren 29an, Nazio Batuen estatu behatzaile izatea onartu zioten Palestinari; ez, ordea, erakunde horretako kide egitea. Hala eta guztiz ere, Palestinako Agintaritzak (PA) ez du benetako aginpi-derik ez bere mendeko lurraldean, ez haren mugetan, ez aire eta itsas eremuetan, ezta zerbitzatzen duen biztanleriarengan ere.

Honenbestez, ez du oso oparoa ematen Palestinako Lurralde Okupatuaren (PLO) etorkizunak. Gogora dezagun 65 urte direla jada arabiarren eta israeldarren arteko lehenbiziko gerra izan zela eta 720.000 palestinarrek beren etxeetatik alde egin eta errefuxiatu bihurtu zirela.

Gatazkarekin eta okupazioarekin lotura duten Israelen politikek eta jardunbideek etengabe zatikatzen dute PLO

Gatazkarekin eta okupazioarekin lotura duten Israelen politikek eta jardunbideek etengabe zatikatzen dute PLO, eta bertan behera uzten eskualde horretara bakea eta egonkortasuna eramateko ekimen oro. Antsietate-maila handiak eta ezegonkortasun soziala eragiten ditu indarkeria sistematikoak biztanleen artean. Ohikoak izaten dira Zisjordaniko errefuxiatu-eremuetan Israelgo segurtasun-indarren erasoaldiak eta indarkeria, eta kolonoek ere maiz egiten diete eraso Palestinako herritarrei. Ondorio hauek ekarri ditu Israelen okupazioak: palestinarren jabetzak suntsitzea, laborantza-lurretara sartzeko ezintasuna eta lurrak konfiskatzea israeldarrentzat asentamenduak eraikitzeko, batez ere C Eremuan eta Jerusalemen ekialdean. Gerora asentamenduak kokatu zituzten inguruetan zeuden 2011n suntsitu ziren egituren % 60.

Ez die berdin eragiten PLOko gatazkak gizonei eta emakumeei, mutilei eta neskei

Bien bitartean, ez dago gaur egun ez inongo bake-prozesurik, ez zuzeneko elkarriketarik Israelen eta PAREN artean. Egoera ikusirik, gatazka berehalakoan konponduko denik ezin aurreikusi; aitzitik, badirudi Israelek “egintza burutuen” bidetik jarraituko duela, hots, asentamenduak hedatzen, zigor kolektiboak ezartzen, Gazako zerrenda setiopean edukitzen eta PLO bidegabeki ixten. Krisi humanitarioak okerrera egingo duela ondorioztatzen dugu, beraz, eta negoziazio-mahaira itzultzeko eguna *sine die* atzeratuko dela.

Ez die berdin eragiten PLOko gatazkak gizonei eta emakumeei, mutilei eta neskei, berriazko genero-alderdiak baititu. Osotasun fisikoaren aurkako mehatxu bidegabeak jasaten dituzte Palestinako mutikoek eta gizonek; emakumeek eta neskek, berriz, beste era bateko arazoak pairatzen dituzte: ziurgabetasun handiagoa elikadura aldetik, zailtasun handiagoak osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak jasotzeko, genero-indareriak etengabeko egoerak, zeharkako indarkeriak eragindako traumak eta beste zenbait gizarte-jardura kaltegarriren mehatxua (herentzia- eta jabetza-eskubiderik eza edo eskubide mugatua, nesken ezkontza goiztiarra, mugikortasun-mugak...). Gazako zerrendan 2014an izan ziren borroketan, adibidez, neurritz kanpoko ondorioak jasan zituzten hango neskek eta emakumeek beren bizitzetako zenbait arlotan. Hori dela eta, okerrera egin du hango emakumeen egoerak —lehendik ere nahikoa eskasa—, Israelen blokeoa eta Palestinako gizartearen barruko diskriminazioa direla medio. Bereiziki kezkatzekoa da hauen egoera: alargunena, Palestina barruan bizilekuz aldatu behar izan duten neska eta emakumeena, desgaitasunen bat dutenena, nerabeena eta emakume nekazariena¹.

Horrenbeste zoritxarren hartzaile izan arren, Palestinako gizartearen giltzarri eta eraikitzaile sendoak dira hango emakumeak. Palestinako gizarteak, oro har, eta batez ere emakumeek jada ezaugarri duten erresilientzia du oinarri nagusi eusteko ahalmen horrek. Hona zer den erresilientzia: jasandako traumen eragina gutxitzeko eta eguneroko bizimoduan ahalik eta duintasun handienaz jarduteko eraldatze-prozesua.

Palestinako gizartearen giltzarri eta eraikitzaile sendoak dira hango emakumeak

Normalean, ez dute bakarka egiten gizartearen trinkotasunari eusteko lan hori, taldean baizik. Beren eskubideen alde jarduteko antolatzen dira, gizarte zibilaren erakundeetan edo oinarritzko elkarteetan, errefuxiatu-eremuetako emakume-zentroetan eta bestelako gizarte-mugimenduetan. Aldaketa-eragile aktiboak dira: jakintza, aliantzak eta sareak partekatzen, eraikitzen eta sortzen dituzte, bakoitza bere egoera sozial, ekonomiko eta kulturaletik abiatuta.

2015ean, 4,74 milioi lagun bizi ziren Palestinako Lurralde Okupatuan² (gizonezkoak, % 50,8; emakumezkoak, % 49,2). Zisjordanian, militarren okupaziopean, 2,89 milioi lagun bizi dira³; Gazako zerrendan, berriz, 1,85 milioi, horiek ere militarren okupaziopean eta, 2007az geroztik, ondasunen eta herritarren sarrera-irteera blokeatuta dutela. Biztanleriaren % 39 inguru 15 urtetik beherakoa da, eta % 2,94 da urteko hazkunde-tasa⁴, ingurune horretako handienetakoa. Munduko handienetakoa da Gazako zerrendako populazio-dentsitatea: 4.000 biztanletik gora kilometro karratuko. PLOn bizi diren herritarren ia erdiak, 2,1 milioi lagun, errefuxiatuak dira: Zisjordanian, populazioaren % 33;

¹ *The Gaza Strip: the long term impact of the 2014 hostilities on women and girls*, ONU Mujeres y OCHA tPo, 2015eko abendua.

² *Palestinians at the end of 2015*, Palestinian Central Bureau of Statistics (Palestinako Estatistika Bulego Zentrala, PCBS ingelesez).

³ *Palestinians at the end of 2015*, PCBS.

⁴ Ibid.

Gazan, berriz, % 76⁵. Errefuxiatuak dira, hain juxtu ere, gatazka horretako alderdirik ahulenetako bat, eta etengabe jasaten dute giza eskubideen urraketa, Israelen okupazio-politika eta jarduerak direla medio. Testuinguru horretan, krisi humanitarioaren zenbait alderdiri egin behar izaten diote aurre Palestinako herritarrek:

MURRIZKETAK ONDASUNEN ETA HERRITARREN JOAN-ETORRIEI

Palestinako herritarren joan-etorriei ezartzen zaizkien murrizketak fisikoak (israeldarren kontrol militarrek —*checkpoint* direlakoak—, bideak ixteko blokeak, etab.) eta burokratikoak dira (toki jakin batzuetara joateko eta iristeko mugak, inguru batzuk itxitzat edo mugatutzat izendatzea, etab.). Elkarrekin konbinatuta, murrizketa horiek galarazi egiten diete palestinarek beren auzokide eta senideekiko harremana, oinarritzko zerbitzuak eskuratzea, laborantza-lurretara eta bestelako bizibideetara iristea, eta areagotu egiten dute PLOren zatiketa. Nabarmen areagotu ziren Israelgo gobernuaren murrizketa horiek bigarren Intifadaz geroztik, 2000ko irailetik aurrera alegia.

Harresia da Zisjordanian mugitzeko oztopo nagusia. Eraikita dago jada haren % 62; Zisjordanian barneratzen da trazatuaren % 85, eta Baztertze Eremua (*Seam Zone*⁶) deritzon barrutian dauzka konfinatuta 11.000 palestinatar.

Harresia da Zisjordanian mugitzeko oztopo nagusia

Harresia dela eta, oinarritzko zerbitzuak (eskolak, ospitaleak...) eskuratzeko lehen baino bi eta bost aldiz bitarteko bide luzeagoak egin behar izaten dituzte 60 komunitatek (190.000 herritar inguru). Bestalde, Israelgo agintariekin aldeztu aurretik koordinatuta sartu behar izaten dute beren lurretara 90 palestinatar komunitatek, sailak israeldarren 56 asentamendu edo *outpost*⁷etan edo haien inguruetan dauzkatenek alegia. Normalean, egun-kopuru jakin baterako eman ohi zaie lur horietara sartzeko baimena, olibak biltzeko garaian⁸. Horrez gain, baimen bat behar dute Palestinako herritarrek Harresiaren eta Lerro Berdearen artean dauden “eremu itxietara” sartzeko. Baimena lortutakoan, nekazaritzako lanetarako jarritako 85 atetatik bakarrik sar daitezke eremu horietara. OCHAk zabalduetako datuen arabera, % 60 txikiagoa da eremu horretako olibondoak uzta Harresiaren Palestinako aldean dauden zuhaitzena baino.⁹

Zenbait kalkuluren arabera, bestalde, 543 oztok galarazten dute Zisjordanian herritarren joan-etorria; kopuru horretatik, % 17 israeldarren *checkpoint*ak edo kontrol mi-

5 Palestinians at the end of 2015, PCBS.

6 Nazioartean Lerro Berdea deritzen 1949ko armistizio-lerroaren eta Harresiaren artean dagoen lur-eremuari deitzen zaio *Seam Zone*.

7 Asentamendu iraunkor bat eraiki aurretik egiten diren asentamendu ez-formalei deitzen zaie *outpost*.

8 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2014*, OCHA tPo, 2015eko martxoa.

9 *Idem/Ibid*. Agiri horren arabera, egunero zabalitzen dituzte ate horietako 9, astero edo aldian behin 13, eta aldian behin 63.

litar iraunkorrak edo aldi baterakoak dira.¹⁰ 2014aren eta 2015aren artean, berriz, % 10 areagotu zen oztopoen kopurua, Nablusen eta Hebronon sarreretan ugaltu egin baitziren murrizketak. 2015ean, mugikortasuna eragozten zuten 95 bat oztopo zeuden Hebrongo H2 eremuan, hots, hiri horren % 20an, barne zirela israeldarren 18 kontrol militar edo *checkpoint* iraunkor¹¹. Israelen erabateko kontrolpean dago Hebron hiria. H2 eremuan dauden 15 ikastetxeetara iristeko arazoak izaten dituzte 4.000 neska-mutiko palestinarrek murrizketa horiek direla eta.¹²

297.000 lagun inguru bizi dira C Eremuko 532 bizitegietan, % 27 errefuxiatu gisara erregistratuak. Eremu horretan daude Zisjordaniako komunitate zigortuenetako batzuk, alderdi humanitarioei dagokienez.¹³ Jordanen haraneko eta Itsaso Hilaren ertzeko % 87 ingurura ezin dira sartu palestinarrek. C eremutat dago sailkatuta inguru horretatik gehiena.

Gazako zerrendari dagokionez, hango 1,8 milioi biztanleei eragiten die 2007an Israelen ezarritako blokeoak. Nazioarteko zuzenbideak jasotzen dituen giza eskubide oinarritzkoenak ere urratzen ditu zigor kolektibo horrek. Blokeo hori dela eta, gutxitzen ari da Gazako biztanleria, hondatzen ari dira herritarren bizi-baldintzak, eta urritzen oinarritzko zerbitzuez eta azpiegituez baliatzeko aukera.

Blokeoa dela eta, gutxitzen ari da Gazako biztanleria

Israelen eta Egiptoren kontrolpean dauden hiru pasabidek oztopatzen diete Gazako herritarrei kanpora irtetea: Erez eta Kerem Shalomekoek (Israel) pertsonak eta ondasunak kontrolatzen dituzte; Rafahkoak (Egipto), berriz, pertsonak. Gazako zerrendatik Israelera eta Zisjordaniara ondasunak esportatzeko eta hango herritarrak arrantza-uretara eta laborantza-lurretara heltzeko oztopoek ekonomiaren garapena eragotzi, inbertsioak uxatu, eta iraunkor bilatzen dituzte langabezia-tasa (handia), elikadura-ziurgabetasuna eta kanpoko laguntzarekiko mendekotasuna.

2007az geroztik, berriz, itxita dago palestinar guztientzat Israeletik mugako Erezeko pasabidea, larrialdi medikoetarako eta nazioarteko erakundeetako langileentzat izan ezik. Egiptorekiko muga dagoen Rafahko pasabidea, berriz, aldi behin zabaltzen dute, Egiptoko agintarien onespenezekin betiere, bai sartzeko, bai irteteko. Alabaina, Egiptoko presidente zen Mohammed Morsi kargutik kendu zutenetik, 2013ko uztailetik, asko murriztu diete palestinarrei pasabide horretatik igarotzeko aukera.

Merkantzia-trafikoa, berriz, 2007koa baino % 40 txikiagoa da egun, eta oso mugatuta dago zerrendan ekoizten diren ondasunen salmenta haien saltoki tradizional izan den Zisjordaniako merkatuan.

10 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

11 *Idem/Ibid.*

12 *Idem/Ibid.*

13 *Area C Vulnerability Profile*, OCHA tPo, 2014. http://www.ochaopt.org/documents/ocha_opt_fact_sheet_5_3_2014_en.pdf

2015ean, 1.350 kamioikada produktu (nekazaritzakoak gehienak)¹⁴atera ziren Gazako zerrendatik nazioartera, Zisjordaniara eta Israelera, Kerem Shalometik. Blokeoa hasi zenetik, Israelera joan ziren lehen kamioiak ziren haiek. 2007an, aldiz, 5.774 kamioikada produktu atera ziren Gazatik Israelgo, nazioarteko eta Zisjordaniako merkatuetara.¹⁵

Israeliek Gazako zerrendan egin zuen azken erasoaldiaren ondoren (2014), Gaza Berreraikitze Mekanismoa (*Gaza Reconstruction Mechanism*, GRM)¹⁶ deritzon behin-behineko hitzarmena sinatu zuten Palestinako Agintaritzak eta Israelgo gobernauak. Nazio Batuen Erakundeak sustatu zuen hitzarmena, zeinaren helburua hau baitzen: Gaza berreraikitze eta konpontzeko lanetarako makineria eta materialen sarrera baimentzea, betiere programei lehentasuna emanaz eskari indibidualen aurretik. Palestinako Barne Ministerioko, Israelgo gobernuko eta UNSCO edo Ekialde Ertaineko Bake Prozesurako Nazio Batuen Koordinatzaile Bereziaren Bulegoko ordezkariak osatutako unitate bat arduratzen da mekanismo horren jardunaz. Bestalde, Palestinako Agintaritzak kudeatzen duen datu-base batean jasotzen dira mekanismoko proiektuetarako emandako akreditazioak, eraikitzaileak eta materialen eta eraikuntza-ekipoen hornitzaileak, Gazako zerrendatik eskatzen eta han banatzen diren materialen jarraipena egiteko. Israelgo gobernauak ere hartzen du parte akreditazio-prozesu horretan. Eraikuntza-materialak dira Gazako zerrendako inportazioen % 59¹⁷. 2016ko martxorako, berreraikita edo konponduta zeuden azken erasoaldian kaltetutako 82 ospitale eta osasun-zentroetatik 78, bai eta kaltetutako edo suntsitutako 259 ikastetxeetatik 243 ere¹⁸.

GRM mekanismoa beharrezkoa dela esan zuen 2015eko apirilaren 1ean Robert Turnerrek, UNRWA erakundearen Gazako zerrendarako zuzendari operatiboak, baina are beharrezkoagoa dela blokeoa kentzea. *“Gaza berreraikitze, ezinbestekoa da GRMren bidez baliabideak eskuragarri egotea, blokeoa kentzea eta egoera politikoa egonkortzea”*.

Gazako zerrendaren blokeoa dela eta, ezin dira eskuratu funtsezko sendagaietatik asko. Diabetesaren, esklerosi anizkoitzaren, minbiziaren eta beste zenbait gaitzen aurkako tratamenduak eten egin behar izaten dira, medikamenturik eza dela medio, eta Gazatik kanpora dauden ospitaleetara bidali behar izan dira paziente asko eta asko, dagokien tratamendua jaso dezaten. Gazatik irteteko, ordea, Israelgo edo Egiptoko agintaritzen baimen bereziak behar dira (Erezko pasabiderako, Israelen baimena; Rafahkorako, Egiptorena); hori dela eta, are handiagoa da gaixoen antsietatea eta hertsura. 2015eko lehen bederatzi hilabeteetan, onartu egin ziren Erezko pasabidetik Israelgo edo Zisjordaniako osasun-zentroetara joateko pazienteen baimen-eskaeretatik % 80; % 5 (780), berriz, atzera bota ziren, eta % 16k (2.648) ez zuten erantzunik jaso eta, horrenbestez, medikuarekiko hitzordurik gabe geratu ziren eta atzeratu egin behar

14 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, 2016ko ekaina eta *Access of people and goods in 2015*, 2016ko martxoa, OCHA tPo.

15 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2014*, OCHA tPo, 2015eko martxoa.

16 <http://www.unsco.org/Gaza%20Reconstruction%20Mechanism%20Fact%20Sheet%209%20October%202014.pdf>

17 *Access of people and goods in 2015*, 2016ko martxoa, OCHA tPo.

18 *UNSCO Report to the Ad Hoc Liaison Committee*, 2016ko apirilaren 19a, in *Fragmented lives: Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

izan zuten tratamendua. Urte berean, 2015ean, 178 pazientek zeharkatu zuten Rafah-ko pasabidea Egiptorantz, Palestinako Osasun Ministerioak Egiptoko gobernuari bidalitako zerrendan 1.670 bazeuden ere¹⁹.

Bestalde, 350 megawatt (MW) behar dira Gazako biztanleria hornitzeko, baina, gaur egun, zifra horren erdira ere ez da iristen MW kopurua. Erregairik eza eta elektrizitate-sistemak zein -zentralak jasandako kalteak direla eta, egunean 12 eta 18 ordu bitartekoak izaten dira elektrizitate-horniduraren etenak Gazako zerrendan.

ETXE-ERAISPENAK ETA HERRITARREN LEKUALDATZEA

Zisjordanian, larriki ari dira areagotzen nahitaezko desjabetzeak eta lekualdatzeak, zenbait arrazoi direla medio: lur-konfiskazioak, eraikuntza-lanetarako murrizketak, asentamendu-eraikuntzaren ugaltzea, biztanleriaren birkokatze-planak, etxebizitzaren eta/edo egituren eraispena diru-sarrerak izateko (ukuiluak eta abar eraikitze), besteak beste.

2015ean, palestinarren jabetzako 523 eraikin eraitsi zituzten Zisjordanian, batez ere C Eremuan eta Jerusalemen Ekialdean. 2.434 herritarri eragin zieten eraispenek, eta haietatik 630 beste norabait joan ziren bizitzera.²⁰ 2013ko kopuruarekin alderatuta, eraikin gutxiago eraitsi ziren 2015ean eta 2014an (591²¹), baina % 6 igo zen eraispenengatik lekualdatutako jende-kopurua 2014an (1.177 lagun²²), 2013koarekin alderatuta. Etxebizitza gehiago eraitsi zelako handitu zen pertsona lekualdatuen kopurua. Israelgo administrazio zibilak zabalduetako informazioaren arabera, C Eremuan palestinarren 911 eraikin eraisteko agindua eman zuen Israelgo administrazioak 2014an, eraikitze baimenik gabe eginak zirela argudiatuta. Agindu horietatik, 36 bakarrik bete ziren (% 4); gainerako eraispenak, berriz, aurreko urteetan emandako aginduei zegozkien.²³ 2010etik 2014ra bitartean, 2.020 eraikuntza-eskari egin zituzten C Eremuko palestinarrak; horietatik 33 onartu zituen Israelgo agintaritzak²⁴.

C Eremurako planifikazio murriztaileak eta zonifikazioak eragin dute gehienbat herritarren lekualdatzea, bai eta asentamenduen hedatzeak eta errefuxiatuen eta artzainen aurkako indarkeriak ere. Zisjordanian erdialdeko 46 komunitatetako 7.500 beduino eta artzain palestinar baino gehiago daude nahitaezko lekualdatzearen arriskupean Israelgo agintarien birkokatze-plana dela eta. 2014ko abuztuan aurkeztu zituen Israelgo administrazio zibilak (ICA, ingelesez) Jerikotik gertu herri berri bat eraikitze eta komunitate horiek hara eramateko planaren lerro nagusiak. Urte horretan, 70 bat etxebi-

19 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, 2016ko ekaina eta *Access of people and goods in 2015*, 2016ko martxoa, OCHA tPo.

20 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, 2016ko ekaina, OCHA tPo.

21 Press Release; UN Resident and Humanitarian Coordinator calls for an immediate halt to demolitions and forced displacement in the West Bank, 2015eko urtarrilaren 23a.

22 Press Release; UN Resident and Humanitarian Coordinator calls for an immediate halt to demolitions and forced displacement in the West Bank, 2015eko urtarrilaren 23.

23 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2014*, OCHA tPo, 2015eko martxoa.

24 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

zitza- eta bizibide-egitura eraitsi, itxi edo konfiskatu zituen ICAk komunitate horietako hamarretan (gutxienez).

Etxebizitarik gabe geratzeak eta nahitaez lekuz aldatu beharrak nabarmen areagotzen du familien mendekotasuna laguntza humanitarioarekiko

Etxebizitarik gabe geratzeak eta nahitaez lekuz aldatu beharrak nabarmen areagotzen du familien mendekotasuna laguntza humanitarioarekiko. Gazako zerrendan, atzerriko laguntzaren mendeko da biztanleriaren % 80.²⁵ 2014ko Hegi Babesgarria erasoaldiaren ondorioak 2016an ere nabari dira. Kalte txikiak izan zituzten 145.000 bat etxek eraso hartan; 6.000 inguruk, kalte larriak, eta beste 18.000 suntsitu egin zituzten, edo oso hondatuta utzi. 2015eko amaieran, lekualdatutako familien % 15 bakarrik itzuli zen etxera, gainerakoenak artean konpontzeke zeuden eta. Bien bitartean, erasoaldi hartan suntsitu edo larriki hondatutako beren etxeetatik kanpora jarraitzen dute 16.000 familiak, hau da, gutxi asko 90.000 lagunek (% 47, neskak edo emakumeak; % 53, mutilak edo gizonak. Errefuxiatu-estatusa dute horietatik bi herenek²⁶). Beren etxeen hondakinen artean bizi da familia horien laurdena.

Ofizialki, emakumeek ez dute galarazia etxearen edo lurraren jabe izatea, baina normalean gizonezkoak izan ohi dira jabetza-agirien titular. Beren senar, guraso eta anaiekiko harremanaren bitartez ziurtatzen dute emakume palestinarrek etxebizitza izateko eskubidea. Hori dela eta, arrisku handiagoa dute emakumeek etxerik gabe geratzeko familiako gizonezkoren bat hiltzean (aita, gurasoa...) edo dibortziaztean. Lege islamiarren arabera (xaria), eskubidea dute emakumeek herentziaren parte bat eskuratzeko (normalean, oinordeko gizonezko bati dagokionaren erdia); hala eta guztiz ere, auzitegietatik kanpora ere presio handiak jasan ohi dituzte emakumeek beren eskubideei uko egin diezaieten edo legez dagokiena baino parte txikiago bat onar dezaten.

Aipatutako egoerak direla medio etxerik gabe geratzen diren eta lekuz aldatu behar izaten duten emakumeek galdu egiten dute beren bizitzaren erdigunea, non pribatasuna eta autonomia izaten duten, beren gizarte-egitura eraikitzen duten eta diru-sarreratxo batzuk izateko jarduerak egiten dituzten. Arreta berezia eskatzen du emakume horien egoerak.

INDARKERIA

Etengabeak dira giza eskubideen urraketak eta herritarren segurtasunaren aurkako mehatxuak Gazan ez ezik, bai eta Zisjordanian ere, Jerusalemen Ekialdea ere barne dela. 2015ean, 15.477 palestinar eta 304 israeldar zauritu ziren Palestinan; hil, berriz, 169 palestinar eta 25 israeldar. Zisjordanian izan ziren gertakari horietatik % 90 baino gehiago. Eskualde horretan eragin dituzte hildako eta zauritu palestinar gehien,

²⁵ 2015 Strategic Response Plan oPt, OCHA tPo.

²⁶ *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

2005az geroztik, Israelgo indar armatuekiko borrokek, OCHak zabaldutako datuen arabera.²⁷

Bestalde, biziki areagotu da Zisjordanian palestinarren aurkako kolono israeldarren indarkeria 2009az geroztik. 2014an, ugaldtu egin ziren palestinarrei heriotza edo zauriak eragin zizkieten kolonoen erasoak; aldiz, gutxitu egin zen palestinarren jabetzetan kalteak eragin zituzten erasoak kopurua. Halaber, nabarmen igo zen herritar israeldarren heriotza eragin zuten palestinarren eraso-kopurua ere, aurreko urtekoarekin alderatuta. 2013an, 92 palestinar eta 39 israeldar hil edo zauritu ziren; 2014an, berriz, 105 palestinar eta 87 israeldar.²⁸ 2015ean, 97 hildako palestinar eragin zituen kolono israeldarren indarkeriak, eta 130 aldiz egin zieten eraso kolonoek palestinarren jabetzei.²⁹ Urte horretan, 11.254 zuhaitz kaltetu, ipurditik atera edo lapurtu zizkieten palestinarrei, olibondoak batik bat; 2014an, 9.390.³⁰

Etengabeak dira giza eskubideen urraketak eta herritarren segurtasunaren aurkako mehatxuak

2015aren amaieran, 6.000 bat palestinar zeuden Israelgo espetxeetan; haietatik, adingabeak ziren 442. Palestinako gizonak, gazteak eta mutilek emakumeek eta neskek baino gehiago jasan ohi dituzte Israelgo militarren indarkeria eta atxilotetak.

Alabaina, genero aldetik berariazko arazoak izan ohi dituzte emakume atxilotuek, barne direla arreta mediko desagokia, haurdunaldiarekin lotutako arriskuak, kartzelan erditzeari dagozkionak, eta sexu-jazarpena. Gainera, askatzen dituztenean, beren komunitateetan laidoztatuak eta baztertuak izateko arrisku handia dute emakumeek.³¹

Bestalde, bat-bateko aireko erasoak direla eta, hilik edo zauriturik geratzeko beldurra dute palestinar gehienek, eta antsietate-sintomak pairatzen dituzte. Neska-mutiko gehienek jasan dute gatazka, gehiago edo gutxiago, eta senide edo ezagunen bat hil diete; hori dela eta, antsietate-maila handia izan ohi dute. Ezin da neurtu zenbateko oinazea eragin zuen Hegi Babesgarria operazioaren 50 eguneko erasoaldiak: senideen heriotza, zauriak, anputazioak, etxe-suntsitzeak... UNICEFen kalkuluen arabera, trauma larriak dituzte 360.000 neska-mutikok, eta laguntza psikosozial urgentea behar dute.³²

Israelen okupazioaren zuzeneko indarkeriaz gain, beren gizartearen balio patriarkale-na ere jasaten dute emakume palestinarrek. Okupazioaren eta blokeoaren eraginez,

27 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

28 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2014*, OCHA tPo, 2015eko martxoa.

29 *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

30 Ibid / Idem.

31 *Access Denied: Palestinian Women's Access to Justice in the West Bank of the Occupied Palestinian Territory: Where are women? Where is women's accessibility to "justice"? Are there possibilities for justice in the context of military occupation?*, NBERen PLOko Emakumeentzako Bulegoa, 2014.

32 *2016 Humanitarian Needs Overview*, OCHA tPo, 2015eko ekaina

areagotu egin dira gizarte palestinarraren balio patriarkalak, bai eta era guztietako genero-indarkeria ere. Oso frustratuta sentitzen dira gizon asko, eta antsietate-maila handia jasaten dute; ez daukate ez aginterik, ez botererik, etengabe umiliatzen baititu Israelgo armadak. Horrez gain, handia da langabezia-tasa, eta zaila lana aurkitzea; hori dela eta, ezin dute bete beren eginkizun tradizionala, hau da, ezin dira familiaren hornitzaile izan. Jakina, egoera horrek ez du justifikatzen genero-indarkeria, baina areagotu egin du, zalantzarik gabe.

Israelen okupazioaren zuzeneko indarkeriaz gain, beren gizartearen balio patriarkalena ere jasaten dute emakume palestinarrek

Ez dago nahikoa daturik arazo horren prebalentzia, irismena eta ondorioak behar bezala aztertzeko, datu estatistikoak ez baitira jasotzen ez sistematikoki, ez maiztasun jakin batekin. Palestinako Estatistika Bulego Zentralaren arabera (PCBS), indarkeria psikologikoa jasan zuten 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen % 62k 2011n; % 23k, berriz, indarkeria fisikoa, eta % 11k bere bikotekidearen sexu-indarkeria, behin gutxienez. 2012an, 12 feminizidio izan ziren PLOn; 2013an, berriz, 28, NBeko PLOko Emakumearen Bulegoak zabalduko datuen arabera.

Oro har, emakumeek ez dute salatzen genero-indarkeria, familia barruko kontua dela jotzen baita. Gainera, oso mugatuak dira emakumeak babesteko mekanismoak, eta apenas duten emakumeek haien berri. PCBSk 2011n zabalduko datuen arabera, genero-indarkeria jasanez gero inkestatutako emakumeen % 0,7k bakarrik eskatuko luke erakunde espezializatuen laguntza (emakumeentzako erakundeena, poliziarrena eta beste zerbitzu publiko batzuen); gainerakoak, berriz, isilik geratuko lirateke (% 65), edo familiari laguntza eskatuko (% 30). C Eremuan eta Jerusalemen ekialdean zerbitzuez baliatzeko dauden zailtasunek eta mugikortasunari jartzen zaizkion murrizketek are gehiago zailtzen dute babesa ematea genero-indarkeria jasaten duten emakumei. Gazako zerrendan, berriz, jazarpena eta genero-indarkeria jasateko arrisku are handiagoa dute lekualdatutako neskek eta emakumeek, harrera-etxeetan, alokairuko apartamentuetan edo suntsitutako etxeen hondakinen artean bizi baitira, pribatutasunik gabe. Zenbait kalkuluren arabera, 294.000 emakumek eta neskak behar dute laguntza legala, sanitarioa eta psikosoziala genero-indarkeria dela eta³³.

Neskak oso gazterik ezkonarazteko joera areagotu egin da azken urteotan, batez ere pobrezia eta pilaketa gehien pairatzen duten komunitateetan.³⁴ PCBSk zabalduko datuen arabera, 18 urte bete aurretik ezkondu ziren Gazako zerrendako 49 urtez behetiko emakumeen % 28,6; % 2,8, berriz, 15 urte bete aurretik (Zisjordanian, % 1,6). Bizimodu eskasak, pilaketak eta bizibiderik ezak bultzatuta, familia askok erabakitzen dute alabak eskolara ez bidaltzea edo oso gazterik ezkonaraztea. Batez ere Palestina barruan lekualdatutakoen artean gertatzen da hori. Familia horien ikuspegitik, alaba

33 2016 Humanitarian Needs Overview, OCHA tPo, 2015eko azaroa.

34 Needs of women and girls in humanitarian action in Gaza. Gender Alert for the 2016 Response Plan, NBE Emakumeak eta OCHA tPo, 2015eko abuztua, eta Early Marriage in Gaza: Causes and Impact, Palestine (Draft), Women's Affairs Center, 2015.

babesteko modu bat da hura gazterik ezkontzea eta, bide batez, familiaren zama ekonomikoa gutxitzeko bide bat, kide bat gutxiago baitu horrela sendiak.³⁵

Arrazoi hauek bultzatzen dituzte familiak 15 urteko neskek ezkonaraztera: Palestina barruan lekualdatutako bizimoduaren ziurgabetasunak, pilaketak eta familien arteko harreman-sarea galdu izanak. Neskek babesteko neurritzat daukate ezkontza familia horiek; bide batez, familian kide bat gutxiago izateak arindu egiten die hainbeste jende mantendu beharraren zama. Ezkontza goiztiarrak maiz ekarri ohi du berekin neskek eskola utzi beharra, familiaren presioagatik edo ikastetxeak hala erabakita.

Arazo askori egin behar izaten diete aurre errefuxiatu palestinarrek, eta are gehiagori desgaitasunen bat dutenek, batez ere emakumeek, neskek eta mutikoek. Diskriminazioa, isolamendua eta bazterkeria direla eta, indarkeria, gehiegikeriak, abandonoa eta esplotazioa jasateko aukera gehiago dute desgaituek. Indarkeriaren biktima izateko hiru edo lau aldiz probabilitate handiagoa dute desgaitasunen bat duten neskek eta mutikoek. Neska eta emakume desgaituek bi aldiz gehiago pairatzen dituzte gehiegikeriak, indarkeria eta esplotazioa desgaitasunik ez dutenek baino, denbora luzeagoz pairatzen ere, eta lesio larriagoak eragiten dizkie indarkeriak. Emakume ezkongabe desgaituek, berriz, diskriminazioa eta bazterkeria jasateko probabilitate handiagoa dute desgaitasunik ez dutenek baino.³⁶

OSASUNA

Zirkulazio-murritzketek biztanleria osoari eragozten diote osasun-arreta egokia jasotzea, baina emakumeek eta neska-mutikoek arrisku bereziak pairatzen dituzte. Anemia dute 9 eta 12 hilabete arteko haurren % 70ek eta haurdun dauden emakumeen % 35ek, elikadura-ziurgabetasunagatik eta mikromantenugai gutxiko dietagatik.

**Jaioberrien osasuna arriskuan ipintzen dute
elektризitate-horniduraren etenek, medikamenturik ezak eta
osasun-ekipoak eskuratzeko ezintasunak**

Burdina-gabeziak, berriz, zuzeneko eragina du amen eta umekien morbiditatean eta hilkortasunean. Azken bost hamarkadetan lehenbizikoz, igo egin da haurren heriotza-tasa Gazako zerrendan: bizirik jaiotzen diren mila umeko 22,4 hiltzen dira; 2008an, berriz, milako 20 zen tasa. Bestalde, jaioberrien osasuna arriskuan ipintzen dute elektризitate-horniduraren etenek, medikamenturik ezak eta osasun-ekipoak eskuratzeko ezintasunak. Okupazioak eta blokeoak eragiten dituzte gabezia horiek, batez ere Israelen erasoaldi militarretan. Hagi Babesgarria operazioa egin zenean, haurdun zeuden 40.000 emakume geratu ziren osasun-zerbitzurik jaso ezinik, osasun-zentroetara joateko zailtasunak zirela eta.

³⁵ *Needs of women and girls in humanitarian action in Gaza. Gender Alert for the 2016 Response Plan*, NBE Emakumeak eta OCHA tPo, 2015eko abuztua.

³⁶ *Supporting persons with disabilities. Disability Programme Fact Sheet*, UNRWA, 2016.

Harresiak, berriz, honetara behartzen ditu Zisjordaniako 60 komunitate palestinar, non 190.000 lagun bizi diren: ohikoak baino bi-bost aldiz luzeagoak diren ibilbideak egitera oinarritzko zerbitzuetara iristeko; besteak beste, eskolara eta ospitalera. Klinika mugikorrek dituzte zenbait erakunde humanitariok (UNRWA...) eta Palestinako Agintaritzak, osasun-zentrorik eskura ez duten herritarrek artatzeko, bai eta haietara iristeko zailtasunak dituztenak ere, Harresia edo beste oztoporen batzuk direla eta. Gazako zerrendako lehen mailako arretako zerbitzuen eta ospitaleen gabeziek, berriz, arazoak eragiten dituzte zenbait gaitz kroniko eta ez-kutsakorren aurkako tratamenduan (diabetesa, hipertentsioa, minbizia...), eta zenbaitek Gazatik kanpora joan behar izaten du tratamendu bila, oztopo ugariri aurre eginez.

**Harresiak ohikoak baino bi-bost aldiz luzeagoak diren
ibilbideak egitera oinarritzko zerbitzuetara iristeko;
besteak beste, eskolara eta ospitalera behartzen ditu
Zisjordaniako 60 komunitate palestinar**

Kalte nabarmena egiten die Gazako herritarren osasun fisikoari eta mentalari trauma psikologikoek, pobreziak eta ingurumenaren hondamenak. *Gaza Community Mental Health Programme* GKE palestinarren arabera, trauma osteko estresa pairatzen zuten Gazako herritar helduen % 31k eta adingabekoen % 51k Hegi Babesgarria operazioa eta gero.

URA ETA SANEAMENDUA

PLOko etxeen % 53 bakarrik daude konektatuta hondakin-uren saneamendu- eta tratamendu-sarera (C Eremuko komunitateen % 30 bakarrik). Jakina, osasun-arazo ugari eragiten ditu horrek. Uraren prezioa, berriz, izugarri igo da, garraio-kostuen igoera eta ur-iturri tradizionalak eskura ez izatea direla medio.

**PLOko etxeen % 53 bakarrik daude konektatuta
hondakin-uren saneamendu- eta tratamendu-sarera**

Zenbait kalkuluren arabera, eguneko eta pertsonako 60 litro ur baino gutxiago kontsumitzen dute Zisjordaniako 492 komunitatetako milioi bat herritarrek. Urruti dago kontsumo hori Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen duenetik, hau da, 100 litro eguneko eta pertsonako. Gazako zerrendan, 90 litro ur kontsumitzen da, eguneko eta pertsonako; beraz, OMEk gomendatzen duen mailaren azpitik han ere. Gainera, kalitate eskasekoa da ura. Kutsatuta dago akuiferoaren % 90 baino gehiago, eta urak ez ditu betetzen giza kontsumorako nazioarteko estandarrak. 2016an erabat erabilgaitz gera daiteke Gazako akuiferoa, eta 2020an konponezina izango litzateke kaltea³⁷.

³⁷ *Gaza in 2020, a Liveable Place?* United Nations Country Team in the oPt, 2012ko abuztua.

Egunero, tratatu gabeko edo partzialki tratatutako 95 milioi litro ur isurtzen dira Mediterraneo itsasora. Arriskuan jartzen ditu isurketa horrek bai herritarren osasuna, bai arrantza-sektorea. Material-sarreraren aurkako blokeoa eta elektrizitate-horniduraren etengabeko etenak direla eta, ezin izan da eraiki ur- eta saneamendu-azpiegiturarik.

Egunero, tratatu gabeko edo partzialki tratatutako 95 milioi litro ur isurtzen dira Mediterraneo itsasora

Astean hiru egunetik behin jasotzen dute ura Gazako etxeen % 40k, eguneko 5-8 orduz.³⁸ Eskasia hori dela eta, emakumeek ez dute apenas izaten denborarik beren premiak asetzeko eta diru-sarreraren bat dakarkien jardueretan aritzeko. Gizon eta emakumeen arteko rol-banaketa tradizionala dela eta, emakumeak eta neskak arduratzen dira gehienbat etxeko lanez —besteak beste, ur-horniduraz—, eta egoera normaletan baino denbora gehiago eman behar izaten dute haiek egiten.

HEZKUNTZA

Garrantzi handia du hezkuntzak Palestinako herritarrentzat. Alfabetizazio-tasa % 96,4 da, eta 10 urtetik gorako herritarren % 22,7 hamahiru urtez aritu da ikasten. Baina eze-gonkortasun iraunkorra eta indarkeria ditu testuinguru Palestinako hezkuntza-sistemak. Eskola-ordutegian egin ohi dira operazio militarrek eta kolonoen erasoak, eta, batzuetan, eskola-umeak zauritzen dituzte.

Ezegonkortasun iraunkorra eta indarkeria ditu testuinguru Palestinako hezkuntza-sistemak

Zisjordanian, israeldarren kontrol militarrek zeharkatu behar izaten dituzte neska-mutikoei batzuetan, edo lehen bost minutuan egiten zituzten bideen ordeaz askoz luzeagoak hartzen, eskolara iristea eragozten dieten oztopoak saihesteko. Denbora ez ezik, garraio-kostua ere hartu behar da aintzat. C Eremuko 39 eskola eraisteko arriskupear zeuden 2013ko abuztuan, OCHAk zabaldutako datuen arabera; bestalde, neska-mutikoen % 40k uzten dute eskola 12. mailara iristean.

Gazako zerrendan, azpiegitura-premia ugari eragin dituzte blokeoak eta israeldarren Berun Urtua eta Hagi Babesgarria operazio militarrek. Hagi Babesgarria erasoaldiaren aurretik, 250 eskola berri behar zituzten eremu horretan; erasoaldi hark UNRWAKo eskoletan (83) eta Palestinako gobernuaren mendekoetan (189) eragindako kalteak direla eta, areagotu egin da ikastetxe-premia³⁹. Gabezia horri aurre egiteko, txanda bikoitzak egiten dituzte gobernu-eskolen % 80k eta UNRWAKen % 93k⁴⁰. Gazako

38 2016 Humanitarian Needs Overview, OCHA tPo, 2015eko azaroa.

39 2015 Strategic Response Plan oPt, OCHA tPo.

40 Ibid / Idem.

muga-hesiaren inguruko eskolek jasotzen dute tiro gehien, zeinek 17 neska-mutiko zauritu dituzten 2011ko irailaz geroztik. Eskola-umeen segurtasuna zaintzearen, eskolarako bide seguruagoak bilatzen dihardute gurasoek eta eskoletako langileek, jakinik luzeagoak izango direla ordezeko bideak. Hala eta guztiz ere, antsietatea eta estresa pairatzen dute neska-mutiko askok eta askok.

Antsietatea eta estresa pairatzen dute neska-mutiko askok eta askok

ELIKADURA-ZIURGABETASUNA ETA BIZIBIDEAK

Elikagaien segurtasuna da PLOko kezka nagusietako bat. Elikagai jakin batzuk eskura garri ez egoteaz gain, beste arazo bat dute hango herritarrek: elikagaiak erosteko ahalmen urria. Batez beste, diru-sarreraren % 55 inbertitzen dute elikaduran Zisjordaniako familiek; Gazan, berriz, % 48.

Palestinako Lurralde Okupatuko (PLO) familien % 27k, 1,6 milioi lagunek, elikadura-ziurgabetasuna⁴¹ jasaten dute (Gazako familien % 47k, Zisjordaniako % 16k, errefuxiatu-eremuetakoen % 39k eta emakumeak familiaburu direnen % 32k), arrazoi hauengatik batik bat: okupazioa, gatazka, pertsonen eta ondasunen mugikortasunaren aurkako murrizketak, prezio-igoera eta langabezia-tasa, geroz eta handiagoa.

Hegi Babesgarria operazioaren ostean, Gazako herritarren % 73k jasaten du elikadura-ziurgabetasuna, OCHAK egindako kalkuluen arabera. Populazioaren % 26,6 erabateko pobrezian bizi da (Zisjordanian, % 18,4; Gazan, % 40,3), egunean 3,5 dolar baino gutxiagorekin, kalkulu horiek adierazten dutenez. Hori dela eta, laguntza humanitarioaren mendeko dira Gazako zerrendako familien % 80.

Mikromantenugai bat baino gehiagoren gabezia jasaten dute Palestinako herritarren % 50ek

2015ean, langabezia-tasa % 41,5 zen Gazan; Zisjordanian, berriz, % 15,4. Bereziki handia da Gazako emakumeen langabezia-tasa (% 63,6), 15 eta 29 urte bitarteko gazteena (% 62) eta emakume gazteena (% 82,6).⁴² Bestalde, oso baxua da Palestinako emakumeen partaidetza-tasa lanindarrean (% 19,4), gizonezkoenarekin alderatuta (% 71,5). Soldatetan ere ikusten da emakumeen eta gizonen arteko aldea: gizonen soldataren % 75,8 jasotzen dute Palestinako emakumeek (PCBS, 2016).

Mikromantenugai bat baino gehiagoren gabezia jasaten dute Palestinako herritarren % 50ek. Bereziki da kezagarria Gazako neska nerabeen egoera: % 72k hartzen dute D

41 2016 Humanitarian Needs Overview (complete document and Dashboard), OCHA tPo, 2015eko azaroa.

42 2016: Humanitarian Needs Overview, OCHA tPo, 2015eko azaroa eta *The Gaza Strip: The long-term impact of the 2014 hostilities on women and girls*, OCHA tPo, 2015eko abendua.

bitamina gutxiegi; % 64k, berriz, A bitamina gutxiegi.⁴³ Prezioen igoera eta erosteko ahalmenaren jaitsiera direla eta, bizirauteko zenbait estrategia erabiltzen dituzte palestinarrek: elikagai merkeagoak eta mantenugai urriagokoak kontsumitzea (Gazako herritarren % 56), objektu pertsonalak saltzea, egunean otordu gutxiago egitea (% 36), familien zorpetze-maila areagotzea, adingabeek eskola uztea (neskek, batez ere), osasun-gastuak murriztea, baliabide naturalen gehiegizko ustiaketa, eta abar.

Zisjordanian, palestinarren bizibideak hondatu eta kaltetu egiten dituzte mugikortasunaren murrizketek eta C eremura sartzeko oztopoek (eremu horretan daude, izan ere, palestinarren lur eta baliabide gehienak), azpiegitura-erakundeak eta israeldarren legez kanpoko asentamenduen hedatzeak. 2015ean, 2014an baino bi aldiz egitura gehiago eraitsi eta produkzio-bide gehiago konfiskatu ziren (174 eta 81, hurrenez hurren), eta 163 komunitateri murriztu zitzaion lurrerako irispidea, batez ere C Eremuan eta Jerusalem ekialdean⁴⁴.

Gutxitan aurkitzen dute lekuri Palestinako emakumeek lan-merkatu formalean, eta sektore ez-formalean dihardute askok

Gazako nekazariak ezin dira iritsi bere laborantza-lurraren % 35era, Israelek muga inguruko eremuetara (Sarbidetako Mugatuko Eremuak; ARA, ingelesez) eta zerrendako iparraldera joateko ezarritako murrizketak direla eta. 2015ean, 80 palestinar hil eta 80 zauritu zituzten eremu horietara sartzen ari zirela (2014an, 5 hil eta 143 zauritu zituzten; Hagi Babesgarria operazioak biktimak ez dira sartzen zenbaketa horretan).⁴⁵ Arrantza-leak, berriz, sei itsas milia bakarrik barneratu daitezke itsasoan arrantza egitera, hau da, Osloko Hitzarmenetan adostutako arrantza-eremuaren % 73 murriztu diete (20 itsas miliako eremua adostu zen Oslon). 2014an, 59 arrantzale atxilotu zituzten itsasoan, eta 27 ontzi konfiskatu.

Rol-banaketa tradizionalak dioten arren emakumeak etxeko lanak eta gizonak etxetik kanpoko soldatapeko lana egin behar dituztela, gizon asko daude hilda, zaurituta edo espetxean. Hori dela eta, askoz ere eginkizun garrantzitsuagoa dute emakumeek familiaren mantenua eta zaintza, ur- eta jan-hornidura, eta seme-alabentzako heziketa eskuratzeko ahaleginean. Alabaina, gutxitan aurkitzen dute lekuri Palestinako emakumeek lan-merkatu formalean, eta sektore ez-formalean dihardute askok, nekazari-, jostun- edo saltzaile-lanetan, egoera prekarioan eta eskubiderik gabe gehienetan.

2014ko Gazako erasoaldi militarra eta gero, erantzukizun gehiago bereganatu dute emakumeek eta neskek, zeinak, maiz, ezinean, estresatuta edo deprimituta sentitzen diren, bat-bateko galerengatik edo erantzukizunen areagotzeagatik. Erasoaldi horretan nekazaritzako eta artzaintzako lurrek jasan dituzten kalteak, bestalde, murriztu egin dituzte emakumeentzako enplegu-aukerak.

⁴³ *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

⁴⁴ *2016: Humanitarian Needs Overview*, OCHA tPo, 2015eko azaroa

⁴⁵ *Fragmented lives. Humanitarian Overview 2015*, OCHA tPo, 2016ko ekaina.

Batzuetan, familiaburu bihurtzen dira emakumeak (Gazako familien % 8⁴⁶), eta beren seme-alaben mantentzaile ekonomiko eta emozional. Bizitzaren zaintzarekin eta iraunkortasunarekin lotutako lan ikusezin horri esker diraute bizirik komunitateek eta aurre egiten diete Israelen okupazioaren eta blokeoaren ondorioei. Rol-aldaketa horrek areagotu egiten ditu gizonen depresioa, estresa eta ezintasun-sentsazioa, ez baitira gai beren familiei oinarritzko hornigaiak emateko, ezin baitituzte bete bizi diren gizarte patriarkal horren irakaspenak. Genero-indarkeria eragin ohi du, askotan, ezintasun horrek.

EMAKUMEEN PARTAIDETZA POLITIKAN ETA GIZARTEAN

Parte-hartze garrantzitsua dute politikan Palestinako emakumeek, aurreko kapituluan adierazi dugunez. Erabakiak hartzen diren guneeetan eta erakunde publikoetan, ordea, ez dute dagokien ordezkaritza-maila, zenbait arrazoi direla medio: mugikortasunaren aurkako murrizketak, gizartearen balio patriarkalak eta enplegua lortzeko zailtasunak.

Emakumeak erabakiak hartzen diren guneeetan eta erakunde publikoetan ez dute dagokien ordezkaritza-maila


2006ko hauteskunde legegileetan⁴⁷, aulkien % 12,9 eskuratu zituzten emakumeek Palestinako Kontseilu Legegilean (PLC), % 12 Zisjordanian eta % 15 Gazan. Hautagai emakumeen portzentajea % 11,2 izan zen (% 4,3 tokiko zerrendetan eta % 16,9 nazio-mailakoetan), botoa eman zutenen % 46 emakumeak ziren arren. Palestinako Agintaritzak 2015ean osatutako gobernuako ministerio-mailako postuetan, 17tik hiru zeuden emakumeen esku. Palestinaren Askapenerako Erakundearen kontseilu nagusiak (OLP) urte horretan adierazi zuenez, % 30eko ordezkaritza-kuota izango dute emakumeek Palestinako erakundeetan, Palestinako Emakumeen Batasun Orokorrak egindako eskariari erantzunez. Errefuxiatu-eremuak gobernatzen dituzten Herri Batzordeetan, berriz, oso eskasa da emakumeen ordezkaritza-maila. Epaileen % 15,6, polizien % 3,4 eta kazetarien % 25 dira emakumezkoak Palestinan⁴⁸.

46 *The Gaza Strip: The long-term impact of the 2014 hostilities on women and girls*, OCHA tPo, 2015eko abendua

47 *Women, political participation and decision-making. Fact Sheet*. NBE Emakumeak, 2013.

48 PCBSk 2016ko "Emakumearen Nazioarteko Egunean" (martxoak 8) plazaratutako prentsa-oharra.

Palestinako Lurralde Okupatuko mapa, 2014ko abendua, OCHA







BIZITZA ISTORIOAK



ADMA KHOURY:

“Ezin gara lqriten
bizi, soilik hil”

Beatriz Lecumberrik idatzia

Adma Khoury 12 urteko neskatxa zen 1948ko amaieran, Israelgo Estatu sortu berriko armada lqritera, Libanoko mugatik hiru kilometro eskasera, heldu zenean. Egun hori gogoan iltzatuta du. Ezin hobeto oroitzen du israeldar militarrek iristear zirela, auzokideek –tartean beraren gurasoek– bandera zuria altxatu zutela elizako kanpandorrean. Nekazari eta abeltzainak ziren, kristauak, egoera horren aurrean zer egin jakin gabe zeuden, eta ez zuten inolaz indarkeriarik nahi.

Soldaduak hainbat egunez gelditu ziren herrian eta ikusi zuten ez zegoela arabiar gerrillarik. Halere, egun batean herritarrei esan zieten bi astez euren etxeetatik joan beharra zutela, ingurune hori ez zelako segurua. lqriten bizi ziren 600 lagunak alboko Rameh herrira eraman zituzten (Israelgo lurretan dago herri hori ere).

“Oraindik begien aurrean dut gertatua: herriko ume guztiak urduri eta pozik geunden, autobusetan igo behar genuelako. Dibertigarria zela iruditzen zitzaigun”, azaldu digu gaur egun 80 urte dituen Admak. Haifako hirigune historikoan bizi da, Israelgo iparraldean. Etxea apala da eta kafea eta pastak prestatu dizkigu gurekin hitz egiten duen bitartean.

lqrit ordu gutxitan hustu zuten. Herriko apaiza eta gizon gutxi batzuk baino ez ziren gelditu lurra zaintzen, baina geroago horiek ere behartu zituzten joatera. Herria huts-hutsik gelditu zen, eta herritarrek, bien bitartean, berehala itzultzekotan. Izan ere, horixe zen asmoa; baina ez ziren inoiz itzuli. Hilak joan ahala, Ramehn kokatutako lqritarrak kezkatzen hasi eta legezko ekimenak hasi zituzten Israelgo justiziaren aurrean.



*Oraindik zerbait ona gertatuko den itxaropena daukat.
Hiltzen naizen egunean galduko dut*



“Inoiz gurasoak etxera itzultzen ziren, baina armadaren baimen berezia behar genuen horretarako. Dena txukun zegoen ikustera eta euren lurretatik bueltatxo bat ematera baino ez ziren joaten. Inoiz ez ginen etxetik aldatu eta sekula ez genuen ezer etxetik atera, ziur ginelako bueltatu egingo ginela”, jarraitu du kontatzen Admak.

1951n, Israelgo Auzitegi Gorenak lqriteko biztanleak itzultzearen aldeko epaia eman zuen, baina aste batzuk geroago Admaren familiak irratian entzun zuen Gabon Egunean herria goitik behera eraitsi zutela, Israelgo agindu militar baten ondorioz.

“Ordutik ezin gara lqriten bizi, soilik hil. Ziurrenik, horixe izango da nire patua”, baietsi du, negarrez, adineko emakume horrek. Izan ere, 70eko hamarkadatik aurrera, lqriteko biztanleei eta euren ondorengoei herriko hilerrian hilobiratuak izateko baimena aitortzen die Israeliek. Soilik hilerria eta elizaren zati bat daude zutik bonbardaketaren ondoren.

lqriten 12 urte soilik eman zituen arren, herriak, horren suntsiketarik, deserriratzearen kalbarioak eta itzultzeko grinak markatu dute Admaren bizitza.

Oraindik ere ezin ditu deskribatu gurasoen etsipena, herrira itzultzeko hamarkadetako borroka, Israelgo justiziaren aurrean egindako ekimen etengabeak. Etxeari buruz hitz egitea lqriti buruz hitz egitea da.

“Zoriontsuak ginen, geure buruaz aski, lurretik ateratakoa nahikoa zen bizi izateko. Hautzaro zoragarria izan nuen eta lqriten egon denak erraz uler dezake hori. Paradisu galdua da”, dio.

Admak arrazoi du. lqriten aztarnak muino berde hostotsu batean daude, Israelgo ipar muturrean; urteko egun gehienetan zerua urdin egoten da eta natura joria da. Herriaren beheko aldean dago Admak behin eta berriro aipatzen duen hilerria, etengabe hazten ari dena. Maldan gora oraindik nabaritzen dira galtzada zaharren eta etxeen aztarna batzuk, dagoeneko zuhaitzek eta sasiak janda.

“Ederto dakit non zegoen gure etxeko atea”, ziurtatu du.

Santa Maria eliza dago muinoaren tontorrean. lqriteko biztanleak katoliko melkitak ziren eta gaur egun ere euren fedeari eusten diote. Oraindik entzuten da kanpandorre apalaren hotsa: jai berezietan, hala nola Pazkoan eta Gabonetan, bai eta hilean behin egiten den mezan ere. Admak ez du inoiz hutsik egiten. Azken garaian, Bulus

senarraren (hura ere lqritekoa) osasun-arazoak direla eta, bisitak tartekatu egin behar izan ditu. Senarrak taka-taka bat behar du ibiltzeko.

“lqriter a heldu eta elizara igotzen naizenean zoriontsua naiz, indartsua. Handik joatea, aldiz, gogor-gogorra da”, dio, berriro ere negar-malkotan.

“Imajinatzen ahalegintzen naiz zer izango zen gure bizitza heritik joan beharrik izan ez bagenu, nolakoa izango zen gure familia, dozenaka urtean banatuta eta sakabanatuta dagoena. Eta herri osoa bilduta imajinatzen dut. Oraindik zerbait ona gertatuko den itxaropena daukat. Hiltzen naizen egunean galduko dut”, jarraitu du.

Elkarrizketa egiteko unean bi egun falta dira familia osoa lqriter a Pazkoko meza ospatzera joateko, eta emakumearen aurpegian zirrara nabari da.

“Zergatik guri, inguruetako gainerako herri kristauak inolako kalterik jasan ez bazuten? Dozenaka urte eman ditut galdera hori egiten”, pentsatu du, ozen. Izan ere, kilometro gutxira dauden beste herri kristau batzuk, hala nola Fassuta eta Mi’ilya, mantendu egin zituzten. Shomera herria ere aipatu digu. Shomera israeldar herria da eta lqriteko biztanleak kanporatu ondoren sortu zuten udalerriaren lurretan, Libanoko mugatik are hurbilago. Eta Libanoko mugatik hurbil egotea izan zen, hain zuzen ere, 1948an biztanleak heritik ateratzeko agindu militarrenaren justifikazioa.

Admaren familiak hainbat urte eman zituen Ramehn. Israelgo Estatua sortu baino lehen, aita britainiar polizientzat egiten zuen lan, eta ondoren Ramehko olibondo-landa batean hasi zen lanean. Eta hala joan ziren urteak. 1961ean, Bulus Khouryekin ezkondu zen Adma. lqriten auzokideak ziren eta berriro ere auzokide izan ziren Ramehn. Biek oroitzen dute ezkongai bihurtu ziren garaia, barre konplizeekin. “Ramehn musulman asko zeuden eta barre egiten zuten elkarrekin dantzan ikusten gintuztenean. Haien zat sinetsa zen”, diote. Geroago, Bulusek harakin-lana aurkitu zuen Haifan eta gaur egun ere bizi diren etxera joan ziren.

“Gure belaunaldiko jende asko herriko auzokideekin ezkondu zen, lehenagotik elkar ezagutzen genuelako eta beharrezko konfiantza sentitzen genuelako. Baina baziren ezkondu gabe gelditu zirenak, zain, egunen batean herrira itzuli eta bizitza berregingo zutela pentsatzen zutelako. Jende horrek ia uko egin diote bizi izateari, ez dute familiarik eduki”, azaldu du Admak, senarrak gozo eta irribarretsu begiratzen dion artean.

Admak bere adineko emakume kristauen itxura argia du: ile laburra, egoki tindatua; prakak jantzita eta ezkontzako eraztuna ez ezik, medaila bat eta gurutze bat ere aldean. Etxean bost seme-alaben eta 15 biloben argazkiak eta lqriteko elizaren irudi handi bat ikusten dira. “lqriteko familien etxe guztietan dago irudi hori bera”, azaldu digu.

70eko hamarkadan itzuli ziren bera eta bere familia lehen aldiz lqriter a, eremu militar itxi izateari utzi zionean. Umeekin itzuli eta elizan eta inguruan kokatu ziren, oihaldendetan eta behin behineko etxoletan.

Beste familia batzuek ere erabaki berdina hartu zuten, eta guztien artean txandak egin zituzten uneoro norbait herrian egoteko, inork lanik utzi behar izan gabe eta umeen



hezkuntza utzi behar izan gabe. Admak eta bere familiak bost urte eman zituzten horrela, justiziak berreraikitze baimena aitortu arte. Baina inoiz ez zen epaia iritsi.

“Gogorra zen. Ez zegoen errepiderik eta dena astoz edo oinez garraiatu behar izaten genuen: janaria, koltxoak, umeak... Eraikitzen eta landatzen hasten ginen, baina israeldarrak etorri eta dena suntsitzen zuten”, deitoratu du.

Garai horretan, Israelen Iqriti buruz hitz egiten zuten. Admak manifestazio askotan hartu zuen parte; hasieran jende andana biltzen zuten baina, denbora pasatu ahala, geroz eta gutxiago. Mugimendua itzaltzen joan zen eta jendea, pixkanaka, eguneroko bizitzara itzuli zen. Duela hamarkada bat, ordea, gaia berriro azaleratu zen, aitona-amonen borroka berreskuratu zuen belaunaldi berri bati esker.

“Beste garai batzuk ziren, baina borroka honetan gizonek eta emakumeek berdin jardun dute. Dena elkarrekin egin dugu, herri osoa aritzen zen borrokan. Eta guretzat benetako gudua zen, ez sinbolikoa. Benetan itzuli nahi genuen. Etxea emanaz gero,

gaur bertan itzuliko naiz, baina ez dago inolako aukerarik”, azaldu du, berriro ere hunkituta.

1995ean, Gobernuko batzorde batek berriz ere gomendatu zuen biztanleak Iqritera itzultzea, eta konpentsazio ekonomikoa behar zutela gehitu zuen, gainera. Ez zuten ezer egin, ordea, eta 2003an, Ariel Sharon lehen ministroak erabaki zuen segurtasun arrazoiak zirela eta, itzulera ezinezkoa zela. Ondorioa: Iqriteko gaiak izoztuta jarraitzen duela.



Borroka honetan gizonak eta emakumeak berdin jardun dute



Biztanleen ustez, diskriminatu egiten dituzte, palestinarrek direlako eta kristauak direlako. Beraien historia *Nakbare* beste aurpegi bat da. *Nakba* hitzak ‘hondamendia’ esan nahi du arabieraz, eta Israelgo Estatua sortu ondoren 700.000 palestinar euren lurretatik kanporatu zituzten garaia aipatzeko erabiltzen da. Adma arabiar-israeldarren % 20 horretako bat da. Israelgo Estatua sortu ondoren alde egin ez zuten palestinarrek eta haien ondorengoek osatzen dute gutxiengo hori. Bere kasuan, 1948az geroztik Israelgo herritarra da, nahiz eta hango hizkuntzarekin, kulturarekin eta erlijioarekin identifikatu ez. Harrezkero beti sentitu da “bigarren mailako herritarra” eta gaur egun arte ez du lagun israeldarrik, nahiz eta hebreeraz hitz egin eta bere auzoan juduak, musulmanak eta kristauak batera bizi.

“Ni palestinarra naiz, kristaua eta Iqritekoa. Ez dut neure burua israeldartzat jotzen. Israelek okupatu egin gintuen baina nik palestinarra izaten jarraitzen dut”, baietsi du.

Sei seme-alabak, ordea, Israelgo gizartean ongi txertatuta daude; arabieraz eta hebreeraz alfabetatu dituzte, herritik kanpoko jendearekin ezkondu dira eta ez dute gurasoen nortasun urratirik.

Admak justu-justu amaitu zuen lehen mailako eskola eta ez zuen unibertsitatera joaterik eduki. Emakume apal eta zuhurra da, baina ustekabeko indarra dario Iqritera itzultzeko borroka aipatzen duenean. Seme-alabei goi-mailako ikasketak eskaini ahal izatea da bere harrotasunik handienetako bat. “Berdin mutilai eta neskei. Gure hiru alabak unibertsitatera joan ziren, hirurek egin dute karrera eta hirurek egiten dute lan. Nire garaian pentsaezina zen protagonismoa dute gaur egungo emakumeek. Eta ondo dago. Beharrezkoa da”, iritzi dio.

Egunaren zati handiena etxean senarrarekin ematen du, senarra ezin baita laguntzarik gabe kalera joan. Igogailurik gabeko bigarren solairuan bizi dira eta horrek asko mugatzen ditu joan-etorriak. Bilobak askotan etortzen zaizkio bisitan, ia-ia egunero. Horietako bat, Julian, askaria hartzera etorri berri da. “Batzuetan bakarrik joaten naiz mezatara, baina ez dut senarra bakarrik luzaro utzi nahi”, azaldu digu.

“Halere, Jaungoikoak asko lagundu dit. Fedeari esker, itxaropenari eutsi diot. Gainera, eliza da herrian zutik dirauen eraikin bakarra, eta eliza hori gure etxe bihurtu da”, erantsi du.



Admak suertea duela uste du, Zisjordaniako eta Gazako palestinarrek ez bezala, bidaiatzeko aske delako. Hala, Espainian, Grezian eta Turkian egon da, eta nahi duenean Zisjordaniara joaten da, hala nola Belenera eta Nablusera. “Arazoak arazo, errazagoa da hemen bizi izatea, Ramallahn okupaziopean baino”, adierazi du.

Haifan herri eta erlijio desberdinek bizikidetza baketsu samarra lortu dute eta bertatik, palestinarren eta judutarren arteko gatazka, batzuetan, urrun ikusten da. Admarentzat, negoziazioak, bide-orriak, 1967ko mugak... gai konplexuegiak dira. Bakeaz duen ideia askoz ere oinarritzkoagoa da. “Bi Estatu, Estatu bat... guk bakean bizi nahi dugu, ez besterik; eta bakea lortzeko, itzulera ziurtatu behar da. Israelek kanporatu gintuen, eta berak utzi behar digu itzultzen”, azpimarratu du.

Admari kostatu egiten zaio amets egitea, atzera egiterik balu zer aldatuko lukeen erabakitzea, edota bere desiorik gogokoena erabakitzea. Etsipen zintzo eta onbera nagusitzen zaio eta bizitza den bezalakoa onartzen du. “Gure familia ondo badago, neu ere ondo nago”, errepikatu digu behin baino gehiagotan.

“Berriro ere 20 urte banitu, ikasi eta ume txikiekin lan egingo nuela uste dut. Umeekiko grina itzela dut, itzultzeko borrokarekin dudaren parekoa. Halere, eta goibeldu egiten naizen arren, ezin gara iraganean iltzatuta bizi, eta 80 urterekin ere etorkizunerantz begiratzen dut”, esanez agurtu gaitu irribarretsua.

“Gizarteak ez
nau onartzen;
zergatik kezkatu
behar dut nik
gizarteagatik?”



Isabel Pérezek idatzia

Gazako ikus-entzunezko produkzio-etxe bateko bulegoan, gazatar talde batek Ekialde Hurbilak bizi duen egoera nahasiari buruz hitz egiten du. Guztiak ere gizonezkoak dira: kamerak, editoreak eta korrespontsalak. Amjad atean agertu da eta irribarre zabalaz egun on esan ondoren, emakume gazteak kafea hartu eta elkarriketan sartu da. Lankideek begiratu eta erdi burlaka galdetu diote: - A, baina zuk horri buruz badakizu ezer, ala?

HEZKUNTZA, ETORKIZUNERAKO ATEA

Amjad Saed Shabatek 25 urte ditu eta 1948an israeldarrek etxetik kanporatu zituztenean Beit Hanounen, Gazako zerrendako iparraldean, kokatu ziren palestinar errefuxiatuen hirugarren belaunaldikoa da. Gaur egun Gaza hirian bizi da, gurasoak bertara joan baitziren bera eta ahizpa oraindik txikiak zirenean.

“Gazako ingurune lasai batean bizi gara. Etxebizitza amarena da. Beit Hanounen era tradizionalen bizi ginen: familia-etxean, solairu bakoitzean bikote bat eta euren seme-alabak –azaldu du Amjadek–. Beit Hanounen eta Gazaren arteko desberdintasun nagusia pentsaera da. Gazan jendea ez da hain tradizionala eta itxia. Gazara joateak nire pentsaera jorratzen lagundu zidan”.

Amjad bizi den etxebizitzan emakumeak baino ez daude: ama-alabak dira, aita 2009an hil baitzen minbiziak jota. Emakume gazteak salatu duenez, Rafah eta Egipto arteko muga itxita eduki duten aldi luzeek (Israelek muga itxi zuen 2007an Hamasek Gazako agintea eskuratu zuenean) kalte handia eragin diete minbiziz jotako gaixoei, besteak beste bere aitari. Izan ere, Israelek debekatu egiten du Gazara minbizia duten pertsonak tratatzeko ospitale-materiala ekartzea eta, era berean, gaixoei debekatuta dute Gazatik irten eta kanpoko ospitaleetara joatea.

“Aita UNRWArekin ikastetxe batean irakaslea zen, eta Osloko hitzarmenen ondoren Palestinako Agintaritzak eratu zenean, polizia egin zen –kontatu du gazteak–. Amak, berriz, haurtzaindegi batean egiten zuen lan. Aita hil zenean, Palestinako Gobernuaren pentsioa kobratzen jarraitu genuen. Familia txikia gara, ez dugu alokairurik ordaintzen eta, beraz, ez dugu arazo ekonomiko handirik”.

Amjadek azaldu digu alabak txiki-txikiak zirenean, gero unibertsitatera joateko dirua aurrezten hasi zirela gurasoak. Gerta zitekeena gertatuta ere, alabak unibertsitatera joatea nahi zuten. Hezkuntza zen garrantzitsua.

“Nik Medikuntza ikastea nahi zuten aitak. Hemen, Gazan, guraso guztien obsesioa da. Hil baino lehenago amarekin eta osabekin serio hitz egin zuen eta niri laguntzeko esan zien, Egiptora ikastera joan nahi banuen ere –Admajek arnasa hartu du jarraitu aurretik–. Nik selektibitatea egin baino hilabete lehenago hil zen aita”.

Amjad gazteak, ordea, ez zuen Gaza utzi nahi eta ez zuen Medikuntza ikasterik nahi. Literatura ikasi eta amarekin bizi nahi zuen.

“Amari esan nion: ‘Egipton hamalau urtez Medikuntza ikastea nahi baduzu, joan egingo naiz’. Horrela konbentzitu nuen eta Gazan gelditu nintzen. Ingalaterrako eta Frantziako Literatura karrera egin nuen”.



Lankide guztiak mutilik ziren. Ingelesez hitz egiten dudanez eta izaera gogorra dudanez, errespeta pixka bat jartzea lortu nuen



Atzerriko literatura ikasi arren, Amjadi izugarri gustatzen zaio arabiar literatura. Beraren idazlerik gustukoena: Amin Maalouf libandarra eta Ghassan Kanafani palestinarra.

“Kanafani txundigarria da. Gizon ederra, adimen handikoa, borrokalaria zen –azaldu du Amjadek–. Palestinako egoera era anakronikoan kontatu zuen eta orduan idatzitakoak berdin-berdin balio du gaur egun ere. ‘Haifara itzulera’ irakurtzen dudana bakoitzean, eta errefuxiatuen alaba izanik, negar egiten dut”.

AMJADEK NAHI DU, AMJADEK AHAL DU

Unibertsitatea amaitu ondoren, 2014an, Amjadek errealtate gordinarekin egin zuen topo. Zerrenda eta Egipto lotzen zituzten tunelak itxita, Gazako blokeoak goia jo zuen eta lurraldea gainbeheran zetorren. Lizentziadun berrien artean % 60ko langabezia-tasa zegoen. Lana aurkitzea ia ezinezkoa zen, baina ez gutziz ezinezkoa. Amjadek lan egin nahi zuen.

"Ingelesa eta frantsesa dakizkit, eta hori asko da –onartu du Amjadek, beti baikor–. Ikusi nuen sektore publikoa oso hermetikoa zela eta, beraz, alor pribatura jo nuen".

Lehen lana 2014ko urtarrilean izan nuen. Lagun batek esan zion ikus-entzunezko produkzio-etxe batean jende bila zebiltzala.

"Oso hitzuna naiz –adierazi du Amjadek–, eta harreman publikoetarako ere oso ona; beraz, elkarrizketa erraza izan zen. Egia esanda, ez zidaten galdera gehiegirik egin. Hori bai, ezkondata nengoen galdetu zidaten, ez baitzuten emakume ezkondurik nahi. Hori askotan gertatzen da Gazan: ez dute egunen batean haurdun gelditekeen emakumerik nahi".

Amjadek argitu digu produkzio-etxean ez ziotela soldataren berri eman nahi izan.

"Soldataz galdetu nuenean, erantzun zidaten lehen bileran ez dela horri buruz hitz egiten", dio Amjadek barrezka, buruaz arbuioa adierazten duen bitartean.

Gazteari lanpostua eman zioten: telebista kanal berriak bilatu eta harremana lotzea zen beraren lana.

"Lankide guztiak mutilak ziren. Ingelesezt hitz egiten dudanez eta izaera gogorra dudanez, errespetu pixka bat jartzea lortu nuen –argitu du Amjadek–. Baina baten batzuek ez zidaten hitzik egiten. Gogoan dut bazela islamista erradikal bat, kaixo ere esaten ez zidana. Neuk ere ez nion hitzik egiten".

Zertan zetzan ondo azaldu ez zioten lan berri batean eta jarrera matxistak gobernatzeko premian, Amjadek onartu du irabazitako errespetua ez zela benetan berak espero zuena bezalakoa:

"Beti nitaz barre egiteko arrazoirien bat aurkitzen zuten. Jakin-min handia dut, asko galdetzen dut. Bideo-edizioari buruz galdetuz gero, nitaz barre egiten zuten; politikaz hitz egiten zutenean ere, nitaz barre egiten zuten".

Lehen hilabetea joan zen eta ez zuen soldatarik kobratu. Bigarren hilean, Amjad zuzendariaren bulegora joan zen, itxuraz tabua zen gai horren inguruko informazioa eskatzera:

"Esan zidan 500 NIS (115 €) inguru kobratuko nituela, egunean zortzi lan ordutik gora egiteagatik. Esan nion lankideek gehiago kobratzen zutela eta haiek ez bezala, nik goi-mailako ikasketak nituela. Ez zidan arrazoirik eman eta lana utzi nuen".

Amjadek hilabeteak eman zituen ekin eta ekin lan bila. Gaur egun ingeleseko eta arabiarreko itzultzaile-lana du albiste-webgune batean, baina soilik egunean ordu batzuetan.

BIZIKLETA

Amjadek mirespenez eta maitasunez begiratzen dio amari. 70eko eta 80ko hamarkadetan palestinar emakumeen mugimenduko kidea izan zen. Intifada betean, islamista batzuek fruta ustela jaurti zioten ilea estaltzen duen *hijabik* (belorik) gabe ibiltzeagatik. Garai harrez geroztik, Gazako emakume musulman gehien-gehienek *hijaba* erabiltzen dute.



“Gure ama niretzat eredua da –baietsi du Amjadek–. Emakume indartsua da eta bi alaba atera ditu aurrera, berak bakarrik. Gure familiak pentsaera kontserbatzailea du. Aita hil zenean, aitaren aldeko osabak gure bizitzak kontrolatu nahi izan zituen, etxetik irteten ginen bakoitzean baimena eskatzea nahi zuen. Alabaina, amak esan zion: ‘alabek aita bakarra dute, eta hilda dago. Orain nire ardurapean daude eta zuk ez duzu botererik, ez nire gainean, ez nire alaben gainean’. Eztabaidatu egin zuten eta harrezkero ez dute hitzik egiten”.

Halere, Amjaden ama arduratuta dago: alaba ezkontzeko adina gainditzeko puntuan dago.

“Nik neuk ez dut ezkontzeko asmorik –argitu du Amjadek–. Unibertsitatean daudenean ere, gurasoek ezkontzeko aukera ez galtzeko esaten diete alabei. Neska ugarik asko ikasten dute, aktiboak izan eta gizartean lagundu nahi dutelako. Baten batzuk bigarren seihilekoan edo hirugarren mailan ezkondu egin ziren eta badakit ikasten jarraitzeko borrokatu behar izan dutela”.

Gazteak Gazako ezkontza tradizionalaren kanonei ez ezik, gizartearen kanonei ere egiten die aurre. Duela aste batzuk bizikleta bat erostea erabaki zuen; alabaina, gizartean zabalduta dagoen ustearen arabera, emakumeek debekatuta dute ibilgailu hori erabiltzea.

“Bizikleta erosi egin nuen, zeri aurre egin beharko nion jakinda ere. Ezin dut autorik erosi eta, beraz, bizikleta da aukerarik onena”, dio Amjadek, sorbaldak goratu eta irribarre desafiatzailea ginez.

Lan-merkatu parekiderik gabe, genero-diskriminazioarekin eta -indarkeriarekin amaitzeko premia argirik ikusten ez duen gizarte batean, Amjadek borrokatzeko asko du oraindik, eta badirudi bera horretarako prest dagoela.

“Gizarteak ez nau onartzen; zergatik kezkatu behar dut nik gizarteagatik? Gainera, nire iritzian, emakumeek inoiz probatu ez dutelako ez dira bizikletan ibiltzen. Ama autoa gidatzen hasi zenean bezala. Garai hartan begiratu eta iraindu egiten zuten, baina gaur egun emakume eta neska askok gidatzen dute Gazan”, zehaztu du emakumeak, konfiantzarekin.

“Emakume palestinarrak bigarren mailan egoten ohituta gaude”



Beatriz Lecumberrik idatzia

“Egun batzuetan, ohetik jaiki eta benetan nor naizen eta non bizi naizen galdetzen diot neure buruari. Ama palestinarra naiz, Jerusalemgoa izatez, baina nire nortasuna ebatsi didatela sentitzen dut”. Gogoetak ozen adierazten dituen bitartean, Ayat Gharablik etxeko leihotako batetik begiratzen du, metro gutxira dagoen hormigoizko hormatzarrerantz eta armadaren zaintza-dorretxorantz. 2004an Israelek Zisjordanian eta Jerusalem inguruan eraiki zuen hormaren zati bat da. Ahmaden eta Ayat Gharabliren etxebizitzaren albo-alboan dago, Ekialdeko Jerusalemgo Beti Hanina auzoan. Duela hilabete gutxi etorri ziren etxe honetara, Tia, Qusai eta Yasmin hiru seme-alabekin batera.

Ayaten etxebizitza hesiaren “alderdi onean” dago, baina familia-etxea, senarraren aitarena, “beste alderdian” gelditu zen eta gaur egun hutsik dago, gharablitarrek Jerusalemeko kanpo geldituko zirela ohartu eta, hiritartasuna ez galtzeko, berehala etxetik aldatu zirenetik.

“Batzuetan nahiago dut larregi ez pentsatzea eta bizi izaten jarraitzea. Horma horren beste aldean ere gure herrialdea eta gure etxea daude, baina ezin naiz askatasunez joan, Israelgo armadaren kontrola zeharkatu behar baitut. Hain hurbil eta hain urrun...” hasperen egin du, hormigoizko hormaren beste aldean erakutsiz.

Ettxearen beste aldean eta leihoetako batetik ikusteko moduan, Nabi Iacov kokaleku israeldarra dago, non kolonoen kopurua ia egunero handitzen den. “Familia honetan ezinezkoa da okupaziopean bizi garela ahanzte”, dio.

Nazioarteko erabakien arabera, kolono israeldarrek Zisjordanian eta Ekialdeko Jerusalemen ezarritako kokalekuak legez kanpokoak dira, eta etorkizunean bakea lortzeko oztopo nagusietako bat ere bai. 2015eko txostenean, Giza Eskubideen aldeko NBERen (OHCHR, ingeleseko sigletan) goi-komisarioak esan zuen 2014. urtearen amaieran 570.000 pertsona inguru bizi zirela kokaleku horietan. Urtean gutxi gorabehera 14.000 biztanle gehiago dituztela kontuan hartuta, une honetan 600.000 kolono inguru bizi dira bertan.

“Hala eta guztiz ere, inoiz ez zait burutik pasatu Palestinatik joatea”, baietsi du Ayatek. “Gurasoengandik aldenduz gero, bihotza zartatu egingo litzaidake. Familia da niretzat garrantzitsua”, dio 27 urteko palestinar emakumeak, etxean gora eta behera zarataka eta korrika dabilten bi seme-alaba txikien joan-etorriei arreta egin eta eguerdiko *makloubá*, arroz, barazki eta okelaz egindako plater palestinar tradizionala, prestatzen duen bitartean.

Ayat erizaina da. Ezkondu baino hilabete lehenago amaitu zituen ikasketak eta ez da inoiz lanean aritu, berehala haurdun gelditu eta harrezkero seme-alabez arduratzen delako. Hitz egiten duenean ez da frustrazioaren edo derrigorren aztarnarik sumatzen.

“Hemen emakumeek lau hilabeteko amatasun-baja dute. Ez dakit nola egiten duten berriro ere lanera itzultzeko. Nire iritzian, umeak bizitzan behin etortzen dira eta argi dago haurtzaindegira eramaten dituzunean ez daudela ondo. Amarekin egon behar dute, berarekin jolasten eta ikasten. Hiru urte betetzen dituztenean eskolara joango dira. Ez dut uste hiru urte seme-alabak zaintzen ematea hainbeste denik” dio, sendo.



Horma horren beste aldean ere gure herrialdea eta gure etxea daude, baina ezin naiz askatasunez joan, Israelgo armadaren kontrola zeharkatu behar baitut. Hain hurbil eta hain urrun. . .”



Ahizparekin batera haurtzaindegi bat irekitzea da Ayaten ametsa. Bi urte barru egin nahi du hori, alaba txikiak lau urte betetzen dituztenean. Neska-mutikoei lan egitea gustatzen zaio, badaki umetxoak zaintzen eta lan horrek, gainera, ordutegi txukuna izateko aukera emango lioke, semea eta bi alabak eskolatik irteten direnean eskuragarri egoteko: “Ez dut uste inoiz erizain arituko naizenik. Ez dut familiarekin bateragarria ikusten, ezin izango nuke gaez edota egunez berandura arte lan egin”.

Hiru seme-alabei emandako bizitza hori dela eta, ez du gogoan noiz irten zen azken aldiz senarrarekin, biak bakarrik. Jatetxeak, ibilaldiak edo hondartzarako txangoak beti familian izaten dira: “Ahmadekin norabait egun batzuk pasatzera joan nahi nuke baina, aldi berean, Tia, Qusai eta Yasmin gabe joanez gero, ez naiz zoriontsua, beti telefonoari adi egoten naiz, zerbait gertatu ote zaien beldur”. Gainera, ez ditu seme-

alabak senarraren zaintzapean uzten, bera lagunekin irteteko. “Egia esan, ez dut lagunik. Denok ezkontuta gaude eta harremana galdu dugu. Facebook bidez baino ez dugu hitz egiten. Beraiek ere seme-alabak dituzte eta haien zaintzaz arduratzen dira. Gainera, Ahmaden lana dela eta, zaila da umeak berarekin uztea. Jerusalemen zerbait gertatuz gero, berehala irten behar du etxetik argazkiak egitera”, azaldu du.



Nire ametsa? Nire seme-alabak ni baino askeagoak izatea: bidaiatzeko, ikasteko, aukeratzeko askatasun handiagoa izatea



Lehen begi kolpean, pentsa liteke Ayaten bizitza gizarte tradizional baten ohituren pean dagoela, baina nahikoa da minutu batzuk hizketan ematea konturatzeko borondate sendoa eta konbikzio sakonak dituela, eta askotan korrontearen aurka aritzeko eta familiari aurre egiteko gai ere izan dela.

Ayat sei seme-alabetatik nagusia da (lau neska eta bi mutil dira). Beti Beit Haninan bizi izan da, familia sinestun eta kontserbatzaile batean.

21 urte zituela, osaba batek, aitaren anaiak, bere bi semeak Ayatekin eta beraren ahizparekin ezkonarazteko asmoa adierazi zuen. Ayat hiru hilabetez egon zen konprometituta, bizitza osoa lehengusuaren ondoan emateko asmorik ez zuela erabaki arte:

“Palestinan, familien baitan ezkontza asko egotea agintzen du tradizioak. Emakumeak klanekoak ez diren gizonekin ezkontzea kaltegarria delako ideia nagusi da. Ez nuen beste aukerarik izan eta goia jo arte jasan nuen konpromisoa. Alabaina, berak kozinatzen eta seme-alabak izateko emaztea baino ez zuen nahi, eta nik ikasten, bidaiatzen eta neure askatasunari eusten jarraitu nahi nuen. Aitak horren goibel ikusi ninduen ezen nirekin bat egin zuen. Dena bertan behera utzi eta gure osabak ez zigun lau urtean hitz egin”.

Bi urte geroago Ahmad agertu zen. Prentsa-argazkilaria zen, ikaskide baten neba, bera ere Beit Haninakoa. Hasieran telefonoz hitz egiten zuten, baina, tradizioaren eta ohituren ondorioz, ez zuten biek bakarrik zinemara joateko edo kafea hartzeko aukerarik izan. Egun batean, Ahmadak paseatzera gonbidatu eta berak onartu egin zuen; alabaina, amak horren berri jakin zuen eta familian eztabaida latza izan zen, Ayaten inguruan ez zegotelako ondo ikusita bikote bat konprometituta egon gabe bakarrik ibiltzea.

“Ahmad berehala etorri zen etxera, nirekin ezkontzeko baimena eskatu eta nire ospe ona babestera. Konprometitu eta lau hilabete geroago ezkontu ginen. Ezkontza aurreko hiletan noiz edo noiz elkarrekin irteteko aukera izan genuen, baina hemen ez da Europan bezala: musuak ematera mugatu ginen. Ezkontu aurretik oheratu bagina eta norbaitek jakin, niretzat izugarria izango zatekeen. Palestinan, horregatik, neskak hil ere egin dituzte”, argitu du.

Bi argazki daude etxeko egongelaren buruan: batean, Ahmad eta Ayat ezkontza egunean agertzen dira, irribarretsu eta besarkatuta, eta, bestean, bikotea eta seme-alabak.



“Ni bezalakoa delako maite dut Ahmad. Gauza berdinak gustatzen zaizkigu eta bizitza berdinarekin egiten dugu amets. Asko maite eta izugarri errespetatzen nau. Niretzat funtsezkoa da”, dio, gozo.

Elkarrizketan sexualitatearen eta metodo antikonzeptiboen gaia agertu da, eta Ayatek lasai asko hitz egiten du: “Nire hirugarren alaba, Yasmin, ustekabea izan zen. Ez genuen seme-alaba gehiagorik nahi baina ez genuen inolako babesik erabiltzen eta gertatu egin zen. Orain diafragma ipini nahi dut, baina beldur naiz. Hilekoa dudan bakoitzean Ahmadi deitzen diot, ez nagoela haurdun eta lasaitzeko esateko. Baina ezin dugu horrela jarraitu. Berak dio nik nahi dudana egingo dugula”.

Ayaten beste borrokagai bat, ziurrenik lehena, “*hijaba*”, belo musulmana ez erabiltzeko erabakia da. 14 urte inguru izango zituen eta harrezkero familiaren presioa jasaten du, batez ere gizonezkoena, hala nola aitonarena eta aitarena:

“Bi urtez baino ez nuen erabili, unibertsitatera joaten nintzenean, eta gaur egun Jerusalemgoren erdigunera aitona-amonen etxera edota Al Aqsa meskitaren

(musulmanen hirugarren leku santua, Jerusalemgo erdigunean) ondotik igarotzen naizenean erabiltzen dut. Amak egiten duen bezala, beloa erabiltzera bultzatzen nau aitak. Normala da, ulertzen dut, familia musulmana gara”.

Ayat neska irtirina da, beti txukun apaindu eta makilatzen da, begi gris urdinxka handiak nabarmentzeko. Orduak ematen ditu Interneten modako aldizkariak irakurtzen eta Zisjordaniako arropa-dendarik eta jostunik onenak ezagutzen ditu. Senarrak ez dio inoiz beloa erabiltzeko presiorik egin, baina kalean erabiltzen ez duenean babesik gabeago sentitzen da, nahiz eta azken urteetan atzeritar ugari (batez ere langile humanitarioak) eta palestinar kristau asko heldu Beit Haninara.



Hala eta guztiz ere, inoiz ez zait burutik pasatu Palestinatik joatea



“Nire ustez, beloak errespetuz biltzen ditu emakumeak, eta nolabait ukiezin bihurtu. Kalean nabilenean, batzuek esaten didate: “*haram* (bekatua, arabieraz); jar ezazu beloa, musulmana zara eta”. *Hijaba* oso konpromiso garrantzitsua da. Egun batean janzea erabakitzen badut betiko izango da eta soilik senarraren aurrean kenduko dut. Askotan pentsatzen dut horretan, baina oraindik ez nago prest”.

Alaba nagusia, Tia, 4 urtekoa, eskolatik itzuli berri da. Egunero bezala, Ayatek seme-alabekin bazkaltzen du, eta arratsaldean amaren etxera joango da. Ekialdeko Jerusalemen aisia oso mugatuta dago: “Oso parke gutxi daude eta zaharrak dira, ez dago futboleko jolasteko lekurik edo neska-mutilentzako igerilekuri. Kaleak zikin daude. Alor horretan ere nabarmentzen da gatazka. Israeli udal tasak ordaintzen dizkiogu baina haiek ez dizkigute oinarritzko zerbitzuak ere ematen. Ekialdeko Jerusalemgo bizitza zaila da”.



Ikusten nautenean, israeldarrek arabiar emakumea ikusiko dute beti, eta edozein gauza arraro eginez gero, atxilotu egin nazakete, edo tiro bat eman ere bai



Ayat askotan joaten zen Jerusalemgo mendebaldera, alderdi israeldarrera, erosketak egitera edo seme-alabekin paseatzera. Alabaina, israeldarren eta palestinarren arteko tentsioa eta gatazka areagotu diren honetan, joan-etorriak mugatu egiten ditu:

“Kristaua izan ninteke, baina berdin dio. Ikusten nautenean, israeldarrek arabiar emakumea ikusiko dute beti, eta edozein gauza arraro eginez gero, atxilotu egin nazakete, edo tiro bat eman ere bai. Kalean beldur handia dago”.

Hitzaldiaren edukian egoera politikoarekiko eta sozialarekiko haserrea eta ezintasuna azaleratzen badira ere, Ayatek ez du inoiz politikan, herri mugimenduetan edo emakumeen mugimenduetan parte hartu: “Zeregin hori handi gelditzen zait. Halere, Palestinako erakunde publikoetan emakumeek horren presentzia txikia



izateak goibeldu egiten nau. Palestinar emakumeak bigarren mailan egotera ohituta gaudelakoan nago. Gure errua da, eta gizonena ere bai. Ikasi behar dugu gauzak ez daudela berez ondo, gurasoek edo aitona-amonek egin zituztelako”.

Etorkizunari buruz hitz egitea ezezagunari buruz hitz egitea da. Palestinako gizon eta emakume asko bezala, Ayat orainaldian bizi da eta kostatu egiten zaio etorkizunari begiratzea. “Asko gustatuko litzaidake bidaia egitea”, dio, begiak dir-dir, Turkiara egindako eztei-bidaia edota nerabea zela familiarekin Londresera egindako bidaia oroituta.

Bidaia haietatik, ordea, kutsu garratza ere gelditu zaio, Tel Aviveko Ben Gurion aireportuko kontrolak eta umilazioa gogoratzen dituenean, gela batean biluzarazi baitzuten “palestinarra izate hutsagatik”. Ayatek pasaporte jordaniarra du baina Jerusalemen erroldatuta dago. Bidaiatzeko, Israelgo agintaritzek igarobaimena ematen diote, baina beti aurretiaz eskatu behar du.

“Ez dakit Israelgo eta Palestinako agintariek gatazka amaitzerik nahi duten. Inoiz pentsatzen dut ez dudala sekula bakea ikusiko, inoiz ez dudala nire pasaportea eta joan-etorriak egiteko askatasuna izango. Sendagilearengana joateko ere, Israelgo armadaren kontrola zeharkatu behar dut. Nire ametsa? Nire seme-alabak ni baino askeagoak izatea; bidaiatzeko, ikasteko, aukeratzeko askatasun handiagoa izatea”.

“Gaztea nintzenean,
neskok eta mutilok
manifestatzeko eskubide
berbera geneukala
uste nuen”

Isabel Pérezek idatzia

Gazako zerrendako hegoaldean, Rafhako ezkontza-areto batean, palestinar gizon-emakume talde bat emakumearen kontrako indarkeriari buruzko antzezlan egitekotan daude. Ikusleak eseri egin dira: Rafahko jauntxoak eszenariotik hurbil eseri dira, eta emakume talde handi batek atzeko lerroak aukeratu ditu. 20 urte inguruko neska agertu da: gerrian soka lodi bat du lotuta eta alde batetik bestera tarrasean darabil. Aktoreak alegiazko amarekin hitz egiten du: laguntza eskatu dio, unibertsitatean ikasi nahi baitu. Aita (bera ere alegiazkoa) eszenan agertu eta oihu egin dio: *Zu ezkondu egingo zara!*

Musikako etenaldi baten ondoren, bigarren zatian, emakume berbera ageri da, eskutetan umetxoa duela. Alboan, senarra urduri dago. Ozen, tea zerbitzatzeko agindu dio emazteari. Askaeran, emakumearen alde batean aita eta beste aldean senarra ageri dira, biak ala biak emakumea lotzen duten soketatik tiraka. Emakumea, berriz, sokei eusten. Azkenean, aitarengandik, senarrarengandik eta lotzen zuten soketatik askatuta, dibortziatu eta amari esan dio proiektu bat jorratu nahi duela: dibortziatutako amak eta beraien seme-alabak biltzeko gune bat (legearen arabera, senar ohiek baitute umeen tutoretza).

EMAKUMEENTZAKO ELKARTE KLANDESTINOA

Buzaina Soboh 'Wefaq' elkarteko zuzendaria da. Elkartearen asmoa: genero-indarkeria jasan duten emakumeak ekonomikoki ahalduntzea, laguntza juridikoa eta psikologikoa eskaintzea eta birgaitzen laguntzea. Rafahn halako asmoz sortu den lehen elkartea da eta, besteak beste, *qadiyat al-mara* ("emakumearen kausa") sustatzeko antzezlanak antolatzen dituzte.

Gazako Buruko Osasunerako Komunitatean (*Gaza Community Mental Health Program* GCMHP) 'Emakumearen prestakuntza' arduratzen zen saila izan zen elkartearen ernamuina. GCMHP gobernuz kanpoko erakundea, berriz, Eyad al-Sarraj psikiatra ospetsuak sortu zuen 1990ean.

"GCMHko sail horretako zuzendaritza eskaini zidatenean, Palestinako Hezkuntza Ministerioan irakasle funtzionarioa izateko beste proposamen bat ere eskainia zidaten. Senarrarekin eta familiarekin hitz egin eta denek esan zidaten funtzionarioa izatea hobea eta ziurragoa zela –kontatu digu Buzainak-. Biharamunean, ohetik altxatu, seme-alabak amonarekin utzi, taxi bat hartu eta esan nion: 'eraman nazazu Gaza Community Mental Health-era!'".



Gure gizarte matxistak semea lehenesten du



Ez zen emakumeak laguntzen arituko zen lehen aldia. 17 urte zituela palestinar alderdi bateko gazteen adarreko kidea izan zen. Unibertsitatean, Emakumeen Gizartekintzarako Batasuneko (*Women's Committee for Social Work*, WCSW) kide egin zen.

"Gaztea nintzenean, neskak eta mutilok manifestatzeko eskubide berbera geneukala uste nuen. –azaldu du Buzainak-. Halere, emakumeen rola barneratuta neukan eta, beraz, zentzu horretan ez nintzen errebolatua. Amak kafea egiteko edo garbitzeko esaten bazidan, esandakoa egiten nuen, eta gero kalera joaten nintzen, manifestatzera".

Emakumeei prestakuntza ematearen itxurapean egituratu zen GCMHko sail horren lehen lana. Benetako asmoa ezkututzen zuten horrela.

"'Prestakuntza-gunea' izen handiaren azpian ikastaroak eskaintzen genituen bitartean, batez ere emakumeak lagundu eta birgaitu egiten genituen. Ez zen erraza emakumeek euren arazoak kontatzera etortzea; izan ere, emakumeak laguntzeko zentroak, gizarte honetan, estigma bat dira emakumeentzat", argitu digu emakumeak.

Dendetan eta leku publikoetan banatzen zituzten liburuxkak. Ikastaroen zerrendaren azpian, ordea, "*zerbitzu legal eta psikologikoak*" esalditxoak gehitzen zuten.

"Palestinar emakumeak argiak dira –egin du irribarre Buzainak-. Lerro hori irakurri eta zerbitzu horiengatik galdezka etortzen zitzaizkigun".

AHALDUNTZE ETA LAGUNTZA GEHIAGO

2010ean, emakumeak lagundu, birgaitu eta prestatzeko sail txiki hark hegalkak zabaltu eta elkarte gisa eratu zen; Wefaq erakundea, alegia.

“Rafahko zuzendaria izan behar nuen, baina beldur pixka bat ematen zidan. GCMHko zuzendariarengana jo eta laguntza eskatu nion, Hamasek baimena eman eta elkarrekin arazorik gabe jardun zezan. Baiezkoa eman eta gauza bakarra eskatu zidan: neska-mutilekin ere aritzeko, beraiek baitira etorkizuna”, kontatu digu.

Horrela hasi zen erakundearen jarduna eta, une honetan, Wefaq elkarrekin hainbat egoitza ditu irekita, Rafahn ez ezik Khan Yunis hirian ere. Orotariko emakumeak joaten dira, hainbat arrazoi tarteko: batzuek senarraren aldetik indarkeria fisikoa jasan edo jasaten dute; beste batzuek indarkeria psikologikoa. Gazte batzuek sexu-gehiagikeriak jasan dituzte familian bertan, eta badira senarrek bortxatu dituzten emakumeak ere.

“Gaur egun, zalantzarik gabe, pobrezia da arazorik larriena –iritzi dio–. Gazako zerrendako biztanleen % 80k baino gehiagok diru-arazoak ditu, eta hori etxeko andreak, emakumeak, kudeatu behar izaten du. Lanik eta dirurik ez badago, senarra bortitzago bihurtzen da eta emakumea nahiz umeak jotzen ditu. Senarrak arduetatik ihes egiteko aukera du: esnatu eta kafetegi batean ematen du eguna, arazoei aurre ez egiteko. Emakumeak ez du halakorik egiten”.

Arazonamendu hori argudiatzeko, Buzainak familiako aitak izan dezakeen sentimenduaz harago doan amatasun sentimendua aipatu du. Eta sistema patriarkalari buruz ere hitz egin digu:



Gudan eta gatazkan emakumeak dira kolpatuenak



“Gure gizarte matxistak semea lehenesten du. Berari aitortzen dizkiote pribilegioak, berak egiten du lan gutxien; alabari, bien bitartean, ardura gehiago egotzi eta ez du pribilejiorik, edo gutxi”, azpimarratu du Buzainak. Eta gehiago ere esan digu: “Adibidez, etxeko norbaiti unibertsitatea ordaindu behar badiote, semeari ordainduko diote. Bera bidaliko dute Medikuntza ikastera. Ez nago *Shariaren* (lege islamikoaren) aurka, baina bidegabe gizonen alde interpretatu dutela uste dut”.

Buzaina ari den elkarrekin, gainera, emakumeak ahalduz ahalegintzen da. Parte hartzen duten emakumeek ahalduz ekonomikoak lortzen dute eta, horri esker, independenteagoak izateko aukera dute, ez dira horren hauskorak. Proiektuak gauzatzeko, elkarrekin dohaintza-ematean, nazioarteko GKE-en eta NBERen organismoen, hala nola UNRWaren, laguntza jasotzen du.

“2013an, gazte liderrak prestatzeko genero-ekimena jarri genuen abian UNRWArekin batera –azaldu du Buzainak–. Hainbat hilabetez ofimatikako prestakuntza eskaintzen



diegu, neskei eragiten dien eten teknologikoa gainditzeko. Era berean, ingeleseko kla-seak ere ematen dizkiegu, unibertsitatea amaitu ondoren gaitasun hori lantzeko”.

Elkartean emakume dibortziatuen foroa ere badago. Eremu publikoetan amen eta seme-alaben arteko topaguneak antolatzen dituzte, Gazako sistema juridiko desorekatuaren ondorioz, bestela ez luketelako elkar ikusteko aukerarik izango.

“Bitartekari-batzorde bat osatu dugu, senar ohiekin era baketsuan topagune horiek antolatzeko. Palestinako talde islamistetako liderrei eta kideei parte hartzeko gonbitea luzatzen diegu, zer egiten dugun eta nola lan egiten dugun ikus dezaten”, ziurtatu du Buzainak.

GERRA, GATAZKA ETA BOTEREA: EMAKUMEEN ETSIAK

‘Wefaq’ (arabieraz ‘adiskidetzeta’) elkarteak agintzen dion lan-karga handiarekin, Buzaina laneko eta etxeko bizitza uztartzen ahalegintzen da. Gaur egun askoz errazagoa da, seme-alabak adin nagusiak dira eta.

“Zailagoa izan zen ikasi, lan egin eta seme-alaba txikiak nituenean, dena aldi berean. Goizeko 07:30ean etxetik irten behar banuen, goizaldeko 05:30ean jaikitzen nintzen etxea atondu, seme-alabak jantzi eta amonaren etxera eramateko”, kontatu digu.

Buzaina *Nakba* garaiko palestinar errefuxiatuen alaba da. Beraren familia Bashiten bizi zen, gaur egun Israelgo Yibna hiria dagoen lekutik gertu. Gazako zerrendan errefuxiatu-zelaia eraiki zutenean, jatorrizko herriaren izena eman zioten: Bashit.



Gazako zerrendako biztanleen % 80k baino gehiagok diru-arazoak ditu, eta hori etxeko andreak, emakumeak, kudeatu behar izaten du



“Jendeak ez zuen sakabanatu nahi –argitu digu Buzainak–. Rafahn behin baino gehiagotan gertatu zen errefuxiatuek zelaiei euren jatorrizko herriaren izena ematea. Gogoan dut aitona esaten zidala: *Rafah utzi behar baduzue, Bashitera itzultzeko izan dadila*”.

Halere, Buzainaren familia banatu egin zen Egiptoren eta Gazako zerrendaren arteko mugan hesia altxatu zutenean. Rafah hiria gaur egun baino handiagoa zen eta Egiptoko lurretara ere hedatzen zen. Horregatik, gaur egun Palestinako Rafah eta Egiptoko Rafah daude.



Amak kafea egiteko edo garbitzeko esaten bazidan, esandakoa egiten nuen, eta gero kalera joaten nintzen, manifestatzera



Gure familientzako unerik txarrenetakoa izan zen –baietsi du Buzainak–. Familiaren bi heren, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak, Egiptoko Rafahn zeuden. Astearen behin urrunetik elkartzen ginen. Mugaraino hurbiltzen ginen, elkar ikusi eta elkar ez ahazteko”.

Rafahk beste kolpe gogor bat jasan zuen israeldarren 2014ko eraso militarrean. Orduko hartan Israelgo armadaren suak hiri osoa estali zuen, airezko eta lurrezko bonbardaketak tarteko. Buzainak kontatu digu egun horietan elkartea lanean jarraitu zuela: elikagaiak banatu eta laguntza psikologikoa eman zuten. Gogoan du gehiegikeria-kasu handienetako bat herritarrak babes bila zebiltzanean gertatu zela.

“Emakume batek 17 urteko neska bati esan zion bere etxera joateko dutxa bat hartze-ra, eta han bortxatu egin zuten. Gerraren ondoren, ama laguntza eske etorri zitzaigun alabari zer gertatzen zitzaion jakin nahian, guztiz aldatuta zegoen eta. Diskrezioz aritu ginen –baietsi digu–. Azkenean, bortxatu egin zutela kontatu zidan. Gero jakin genuen gaztea etxera eraman zuen emakume hori Gazako prostituzio-sare bateko kidea zela. Auzia poliziaren esku utzi genuen”.



Buzainak argi utzi digu: gudan eta gatazkan emakumeak dira kolpatuenak; palestinarrak elkarren aurka jartzen dituen barne-gatazka politikoan ere bai. Hamas eta Fatahren arteko etsaitasunak noizbehinka bere lana blokeatzeaz gain, gizartean aurrera egiteko oztopoa ere badakar.



*Wefaq genero-indarkeria jasan duten emakumeak
ekonomikoki ahalduntzea, laguntza juridikoa
eta psikologikoa eskaintzea eta birgaitzen laguntzea
helburutzat duen lehen elkarte da*



“Palestina barneko banaketa politikoak gizarte-ehuna hautsi du –baietsi du Buzainak–. Ni Fatahkoa nintzen Hamaseko gizon batekin ezkondu nintzenean. Gaur egun hori pentsaezina da. Blokeoa nahikoa ez eta gizonen politikaren eta boterearen ondorioz, gizarte-harremanak hobetzeko gai ez den gizarte batean bizi gara”.

“Landako
emakumeak
hirikoak baino
indartsuagoak
dira”



Isabel Pérezek idatzia

1936an, nekazariak, palestinar familia beduino sedentarioak nahiz nomadak, ingele- sen postu militarren eta judutar kokalekuen aurkako matxinadaren aitzinean jarri zi- ren. Matxinadak porrot egin zuen. Garai hartan, landa-gizarteak zampaketa bikoitza jasaten zuen: alde batetik Britainia Handiak euren lurra okupatzen zuen, eta beste alde batetik, Palestinako egitura sozioekonomikoa sistema feudalean oinarritzen zen. Ema- kumeek eginkizun garrantzitsua izan zuten matxinada hartan baina, halere, eta orain arte beti gertatu den bezala, lehentasuna okupazioaren aurkako borroka izan zen, eta ez zapalketa patriarkala borrokatzea.

EKINTZAILE FEMINISTA BEDUINOAK

Gazako zerrendako landa-eremuan bizi izatea israeldarren okupazioarekin etengabe- ko kontaktua izatea da. Nekazaritza-eremu emankorrenak Lerro Berdetik hurbil dau- de eta israeldar soldaduak edozein unetan has daitezke tiroka; edota hondeamakina blindatuekin sar daitezke, lurra lautzeko aitzakiaekin nekazaritza-sailak suntsitzeko. Landan eta etxean lan egiten duten palestinar emakume nekazariak jasan behar izaten

dituzte gehien egoera horren ondorioak. Gainera, oso gizarte-zerbitzu gutxi jasotzen dituzte Palestinako Agintaritzaren aldetik, ikastetxeak, klinikak, ospitaleak eta gainerako azpiegitura eta zerbitzuak hiriguneetan egoten baitira.

E'itimad Mutawak hemezortzi urte eman ditu landako emakumeen egoera hobetu nahian.



Niretzat, emakumeen berdintasunaren alde lan egitea da garrantzitsuena



“Aspaldi hasi nintzen landa-eremuko emakumeen mugimenduan lanean, emakume eta pertsona gisa ditugun eskubideen inguruko kontzientzia oraindik barneratu gabe neukanean –azaldu du E'itimadek–. Institutuan politikan sartu nintzen eta emakumeen batzordeko buru izendatu ninduten. Batxilergoa amaitu nuenean oso aktibo bihurtu nintzen; gure etxean bilerak ere egiten genituen. Aitak esaten zidan gure kontuak mutilenak zirela, ez neskenak. Amak inoiz ez zidan txarrik esan”.

E'itimad gurasoekin eta neba-arrebekin bizi da. Familia beduino nekazaria eta ugaria da. Iraganean Lerro Berdearen beste aldean bizi ziren, harik eta Israelgo armadak bigarrenez etxetik kanporatu zituen arte. Lehen aldia 1948an izan zen, Beershebatik ihes egin zutenean. E'itimad irribarretsu dago beti, eta duen adina baino gutxiago ematen du.

“39 urte ditut eta ezkongabea naiz. Guk, beltzok, beti ematen dugu garenak baino gazteagoak”, dio harro. Eta jarraitu du: “Familia beduinoak, klanak, ez dira guztiak berdinak. Etxe batzuetan kanpoko gizona etxean sar daiteke, etxeko gizonik ez dagoenean ere, baina gurean ez da halakorik gertatzen. Klanaren ohituren arabera izaten da”.

E'itimadek kontatu du euren etxean ez zeukala arazorik landa-eremuko emakumeen alde ari diren erakundeen koordinatzaile-lanean joan-etorriak libre egiteko.

“Oro har, beduinoak oso gogorrek dira emakumeekin –baietsi du–. Batzuetan, etxean jatekorik egon ez eta emakumeak kanpoan lan egiteko aukera badu ere, ez dute emakumea etxetik irteterik onartzen, familiaren ohorea delako garrantzitsuena, eta hori emakumeen bizkar jartzen dutelako. Ohorea garrantzitsuagoa da familia beduinoentzat palestinar familia sedentarioentzat baino”.

LANDA-EREMUKO EMAKUMEENTZAKO MIKROPROIEKTUAK ETA ZERBITZUAK

Emakume zapalduen historiak entzun eta palestinar abokatuak berdintasun juridikoaren aldeko borrokari buruz hitz egiten aditu ondoren, E'itimad bere ideologia feminista eraikitzen hasi zen. Konbentzimendu osoa du gizon eta emakumeek aukera berdinak izan behar dituztela eta emakumeen aurkako indarkeriak desagertu egin behar duela.

“Landa-eremuan indarkeria mota bat baino gehiago daude. Emakume batzuek ez dute horretaz hitz egiten eta ez dute salatzen –azaldu du E’itimadek–. Hemen emakumeek ezin dituzte euren eskubideak defendatu, ezin dute euren burua babestu”.



Landa-emakumearen bizitza nekeza da



Bi erakundek Gazako zerrendako erdialdean emakumeentzat jorratzen dituzten proiektuen ardura du E’itimadek. Nekazaritza Ekintzako Batzordeen Batasuna (*Union of Agricultural Work Committees*) da erakundeetako bat, eta Palestina Askatzeko Erakundeko Emakumeen Batasun Orokorra (*General Union of Palestinian Women*, GUPW) bestea. UAWCn, emakumeen egoera aztertzea, beharrianak finkatzea eta zerbitzuak ematea da berearen zeregina. Horretarako, nodo baten antzera, lanerako azpi-eremuetan eta azpi-koordinatzaileen bidez egituratzen diren emakume taldeez baliatzen da E’itimad. GUPWrekin, aldiz, emakumeentzako gizarte-zerbitzuak eskaini eta kudeatzen ditu.

“Ez dut bi erakundeotan lan egiteko arazorik, antzeko lana eta eremu berean egiten dudalako– azaldu digu–. UAWCn erdialdeko Emakumeen Batzordeko burua naiz eta bileretan parte hartzen dut, emakumeen beharrianen berri emateko. Ez dago emakumeentzako kuota berezirik, eta normalean proiektuen % 35 inguru bideratzen dute emakumeen arlora. Gutxi da eta zati handiagoa emateko borrokatzen gara”.

E’itimadek, besteak beste, diru-sarrerak behar dituzten landa-eremuetako emakumeentzako nekazaritza-sailen ustiakuntza koordinatzen du.

“Ureztatzeko eta ongarriak zabaltzeko laguntza ematen diegu, edota lan-proiektua nola egiten den irakasten diegu, denbora eta energia aurrezteko –kontatu du E’itimadek–. Mikroproiektuak ere egiten ditugu: etxeko abereak, ardiak, oilaskoak, untxiak... hornitzen dizkiegu, hazi eta etekina ateratzeko”.

LURRA LANTZEN ARI ZAREN BITARTEAN UMEA ERDITZEA

Landa-emakumearen bizitza nekeza dela kontatu du E’itimadek. Lurra lantzeko baino ez dira irteten etxetik; ez dute bisitetarako, osasunerako edo heziketarako astirik. Landa-eremuko emakumeen aldeko ekintzaileak beharrian horiek estaltzeko eta emakumeen eskubideak errespetatzeko egiten dute lan. Emakume ezkongabe, ezkondu, dibortziatu eta alargunak dira.

“Askotan, lana emanez, batez ere laguntza morala ematen diegu, laguntza ekonomikoa baino gehiago –argitu du E’itimadek–. Emakumeei osasun-asegurua lortzeko bildu izan naiz Palestinako gobernuako ofizialekin, emakumeek produktu kimikoekin lan egiten dutelako. Zerrenda osoa hartuko duen eskaera egiteko lanean ari gara, eta beharbada protestaldiak ere antolatu beharko ditugu».



Hori ere bere ardura da: emakumeen manifestazioak eta protestaldiak antolatzea. Batzuetan Palestinako egun nazionalak oroitzeko, hala nola *Nakba* edo Palestinako Luraren Eguna; beste batzuetan, israeldarren erasoak salatzeke.

“Emakumeei asko gustatzen zaie manifestazioetan parte hartzea –ziurtatu du E’itima-dek-. Israelgo armadak Lerro Berdearen alboko lurretan egiten dituen erasoen aurka protestaldietan ere hartzen dute parte.

Gazako zerrendan, emakumeek landa-lanetara eraman behar izaten dituzte seme-alabak, haur txiki-txikiak direnean ere. Noizbait emakumeren bati erditzeko unea ere heldu zaio, lurra lantzen ari zen bitartean.

“Emakume batzuek landetan erditzen dute, euren lantokian. ‘Pixka bat gehiago eutsiko diot, pixka bat gehiago’, esaten dute, eta azkenean bertan erditzen dute. Beste batzuek Israelgo armadaren tiropean, erasoen erdian, lanean jarraitzen dute –azaldu du-. Landako emakumeak hirikoak baino indartsuagoak dira, zalantzarik gabe”.

Baina landa-emakumeak hil ere egin daitezke egoera horretan erditzeagatik, eta arazo ugari izaten dituzte ume jaioberriak ospitale eta kliniketara eramateko, kasu gehienetan instalazio horiek etxetik urrun egoten direlako.

LANDA-EREMUKO MATXISMOA

Landa-eremuan emakumeek haurdunaldian, gaixorik daudenean eta nekeak jota daudenean ere egin behar izaten dute lan. Uzta jaso, ganadua gobernatu, etxeko hegaztiak zaindu, kozinatzeak sua prestatu eta seme-alabak hazten dituzte. Batzuetan, bakarrik batzuetan, arratsaldean ordu bateko edo bi orduko atsedenaldia hartzen dute. Gehien-gehienek, ordea, gauez lokartzen direnean baino ez dute hartzen atsedena. Etxeko eta kanpoko lanak gainkarga itzela dakarkie. Ereku publikoan, lan-alorrean, diskriminazioa ageri-agerikoa da.

“Gure proiektuetan, inoiz gertatu zait landa-jabeak ez onartzea emakumeek bere lurak lantzerik –kritikatu du E’timadek–. Batzuk konbentzitzea lortzen dugu, beste batzuk ez”.

Gazako zerrendan, ia jabe guztiak gizonezkoak dira. E’timadek azaldu du emakume batzuek lurak heredatzen dituztela, baina lur horiek ez dutela balio “emakumeei herentzian benetan zegokiena”. Uztan bildutakoaren etekinak lortzeko unean ere azaleratzen da diskriminazioa.

“Senarrak saltzen du ekoizitakoa, eta gerta daiteke senarrak diruaren zati bat baino ez ematea emazteari”, deskribatu du E’timadek.

Indarkeria ekonomiko mota hori oso hedatuta dago Gazan, eta badago beste arazo bat ere: emakumeek ez dutela salatzen.

“Emakume askok rol tradizional hori onartzen dute: senarrek oihu egitea onartzen dute, eta hori transmititzen diete alabei. Azkenean, beraiek ere senarren menpe egongo dira”, azaldu du E’timadek.



Landa-eremuan indarkeria mota bat baino gehiago daude. Emakume batzuek ez dute horretaz hitz egiten eta ez dute salatzen



“Emakumeek noraino irits litezkeen, euren eskubideen jabe izan daitezkeela jakin behar lukete, baina ez dute euren burua gai sentitzen, dirua galtzeko beldur dira. Emakume askorentzat zaila da gure lantegietara etortzea, esaten digute ez dutela astirik”, goibeldu da ekintzailea.

E’timadek dio gaur egun Gazako emakumearen egoera “blokeatuta” dagoela, eta are txarragoa, gaur egun kalean indarkeria eta jazarpen handiagoa, irain gehiago eta emakumeenganako errespetu gutxiago dagoela.



“Lanean, batzuetan, nekazariak galdetzen digute zertan ari garen etxetik kanpo. Nik erantzuten diet gizonezkoek bezala, eskubideak eta betebeharrak ditugula, eta eskuartean abian dituzten proiektuak guri esker lortu dituztela”, dio kopetilun.

39 urterekin eta ezkondu gabe, E’itimad salbuespena da Gazako emakumeen artean.

“Askok eskatu didate ezkontzea, baina ezetz esan diet, lehenago ezagutu egin nahi nituelako. Ez dut gainerako emakumeak bezala ezkondu nahi; bizitza norekin partekatuko dudana ezagutu nahi dut –arrazoitutako du ekintzaile feminista horrek–. Behin batean, ezkontzea eskatu zidan gizon baten familiak ez zuen onartu elkar ezagutzeko aldi bat izaterik, eta beraz ezezkoa eman nion”.

Ezkondu ala ez, Gazako zerrendako landa-eremuko emakumeekin eta emakumeen alde lanean jarraitu nahi duela dio.

“Niretzat, emakumeen berdintasunaren alde lan egitea da garrantzitsuena. Berdintasuna lortu ondoren, gizon eta emakumeak eskuz esku egotea lortzen dugunean, Palestinararen aldeko borroka nazionalen garaitzea lortuko dugu. Emakumeek euren eskubideak ezagutu eta eskuratzeko indarra egingo balute, injustizia arbuatutako balute, dena hobeto joango litzateke nekazaritzan oinarritzen den Gazako zerrendan”, baietsi du, konfiantzaz.

EMTYAZ ALMOGRABI:

“Emakumeen askapena ez da beloa kentzea edo jendaurrean erretzea”



Beatriz Lecumberrik idatzia

Umetan, Emtyaz Almograbi familiaren etxeko teilatura igotzen zen jolastera. Balatako errefuxiatu-zelaian zegoen, Zisjordaniako iparraldean, eta jolasa ia beti berdina izaten zen. “Ez zitzaidan gustatzen panpinekin jolastea eta gezurrezko bazkaritxoak prestatzea, beste neska batzuei bezala: zinema-zuzendaria nintzela amesten nuen eta orduan ere nire historiak asmatzen nituen”.

Neskatila haren ametsak bere horretan dirau. 43 urterekin, Emtyaz Ramallahn bizi da eta dokumentalak egiten ditu, gehienak Palestinako gizartearen arazoei buruzkoak. Orain, lehen film luzea egiteko finantzaketa bilatzen ari da eta beraren izena ezaguna da Palestinako kulturegintzan. Puntu horretara iristeko bidea luzea eta askotan malkartsua izan da, baina bera entzunez, berehala ohartu gara ideia argiak, ekina, baikortasun hautsiezina eta zinemagintzarako maitasuna izan direla orain dagoen tokira iristeko motorrak.

Haren bizitzaren iragana eta geroa markatu zuen gertaera, 35 urte zituela iritsi zitzaien, Nablus hiriaren aldirietan dagoen Balata errefuxiatu-zelaia, jaio eta beti bizi izan zen tokia, “behin betiko” uztea erabaki zuenean. Aita Gazan errefuxiatuta

zegoen, eta ama Nablusen. Lehengusuak ziren eta ezkondu zirenean Balatara abiatu ziren. Bederatzi seme-alaba izan zituzten bertan. Emyazek azaldu duenez, “palestinarrak emakume errefuxiatuak” izateak eta sarri pobrezia eta indarkeria sinonimoak den errefuxiatu-zelaian emandako haurtzaroak markatu dituzte bere bizitza eta lana.



*Garrantzitsuena prestatzea zen, neure burua
eraikitzea. Urte asko daramatzat lanean*



“35 urte eman nituen han, joateko erabakia hartu arte. Niretzat garrantzitsuena ihes egitea zen, baina nire familiak ez zuen onartu ni bakarrik bizi izatea. Jendeak zer esango zuen beldur ziren. Halere, joan egin nintzen. Ramallah-n gauzak beste era batekoak dira eta jendea irekiagoa da”, azaldu du.

Emyazek hainbat aldiz erabili du “ihes egin” hitza. Zeri ihes egin? Azaldu digunez, adibideen zerrenda ugaria da, baina bat oroitu du bereziki. Lehen Intifadan (1987-1993) kazetari lanetan hasi zenean gertatu zen. Garai hartan askotan joaten zen ospitaleetara, biktimen berri izatera. Egun batean, zauritu zuten gazte baten historia kontatu zuen. Auzokide batek ospitalean gazte hori elkarrizketatzen ikusi zuen eta gurasoen etxera joan zen, gizon ezezagun batekin hizketan ikusi zuela esatera. Gertaera horrek arazo handiak eragin zizkion etxean. “Hari buruzko artikulua erakutsi nien, baina nire familiaren ustez askoz garrantzitsuagoa zen jendeak zer pentsatu edo zer esango zuen. Horrek guztiak ito egiten ninduen. Joan beharra nuen”, azpimarratu du.

Urteetan Emyaz ikastera mugatu zen: lehenengo Ekonomia eta gero Ikus-entzunezko Komunikazioa, eta, aldi berean, ikasketak ordaintzeko lan egiten zuen. Ez zuen mutil-lagunik izan eta sekula ez zitzaion ezkontzerik bururatu; are gutxiago ama izaterik. “Garrantzitsuena prestatzea zen, neure burua eraikitzea. Urte asko daramatzat lanean. Eta, dena dela, zer harreman mota izango nuen Nablusen? Ezagutu ezin nuen norbaitekin? Ezkontza egunera arte ikusi baino egingo ez nuen norbaitekin? Nirekin ezkontzeko prest azaldu ziren batzuk, baina mutil horiek hobeto ezagutu nahi izan banitu eta familiak jakin balu, kolpatu eta etxean giltzapetuko ninduten. Palestinan, horregatik, neskak hil ere egin dituzte”, argitu du.

Ramallah-n, beraren bizitza ez da bere adineko emakume gehienena bezalakoa: etxe apala eta txikia alokatu du hiriko bizitegi-auzo batean, eta ordenagailua da etxeko objektu nagusia eta baliotsuena. Goiz irten eta berandu etxeratzen da, ez du koinatzeko edo liburu eta apunte multzoa atontzeko astirik. Auzokideek beraren historia eta lana ezagutzen dute; babestu eta, nolabait, zaindu egiten dute.

Independente izateko erabakia hartu ondoren, familiak bakarrik ez bizi izateko eta etxera bueltatzeko egin zion presioaren ondorioz, 38 urterekin ezkondu egin zen, “egoera lasaitu eta jendearen murmurioak isilarazteko”.

“Ahula izan nintzen eta irtenbidea horixe zela pentsatu nuen. Den-dena aste gutxitan antolatu genuen. Biok ados geunden, baina garesti ordaindu nuen. Urtebete eta erdi eman genuen ezkondata, eta tarte horretan nire familiarekin gauzak ez ziren hainbeste

hobetu, eta nire ezkontza, aldiz, infernua izan zen: neuk mantentzen nuen senarra, eta egun osoan lanean jardun ondoren, etxeratu eta harentzako kozinatu behar izaten nuen. *Jalash* (nahikoa, arabieraz)”, esanez amaitu du, keinu garratzarekin.

Elkarrekin egon ziren denboran ez zuen ama izateko aukera kontuan hartu. “Ez dut ume batentzako lekurik. Beldurrarazi egiten nau, ardura handia da eta, gainera, ez dut aita onik aurkitu. Zorionez, eta Jaungoikoari esker, ez genuen seme-alabarik eduki” dio, bere buruaz ziur.

Emtyazek banatzea erabaki zuen, eta elkarriketa egiteko unean dibortzio-prozesua gauzatzear dago. Balatako familiak eta lagunek pentsatzen dute lan-kontuengatik banatuta daudela: senarra Jordanian dagoela eta bera Ramallahn, baina laster elkarrekin bizi izango direla. Ez da ausartu esaten aste gutxi barru ofizialki dibortziatutako emakumea izango dela.

“Ez daki inork. Gurasoek jakinez gero, sei hilabetez euren etxera itzultzera behartuko naute. Horixe gertatzen da Palestinako familiarik tradizioaletan: emakumea etxean giltzapean gordetzen dute, haurdun dagoen jakiteko. Haurdun badago, umea senar ohiarena izango da, zalantzarik gabe. Nik ezin dut hori jasan”, dio, irribarrea saihestu ezinik.

Gezur handi hori bizi izateagatik minduta dago Emtyaz. Gurasoak eta neba-arrebak ez dira inoiz bisitan etortzen. Bera, noizbehinka, Balatara joaten da, eta oso bestelako bizitza edukitzearen itxura egiten du. “Badakit sinesgaitza dirudiena. Zinema egiten dudanean, inolako arazorik gabe egiten diet aurre tradizioei eta agintariei, baina ez dut lortzen nire bizitzan koherentzia horri eustea. Halere, guztiz ziur nago momentu honetan onena gezurra esatea dela, neu babestearren”, baieztatu du.





Palestinian emakumeek muga bikoitza dute: alde batetik, Israelen okupazioa eta, beste aldetik, gizarte patriarkalaren tradizioak



Babestu nahi duen bizitza hori goiz hasten da. Zinema-zuzendari horrek ez du zinemagintzari esker bizi izateko aukerarik eta, hartara, hainbat lekutan egiten du lan: emakumeentzako aldizkarietan, tokiko telebista batean, unibertsitatean eta kamera nola erabili ikasi nahi duten emakumeak trebatzen. Gainera, hitzaldiak eman eta lantegiak antolatzen ditu, batez ere gazteentzat eta askotan mutilentzat.

Emakumeen aurkako diskriminazioak eta indarkeriak, batez ere etxeko ateak itxi ondoren gertatzen denak, sutu eta obsesionatu egiten du.

Bere lehen dokumentalean ('Emakume iraultzaileak'), preso egon diren emakumeen gaia aztertu zuen; zehazki, Israelgo espetxea utzi ondoren zer nolako babes soziala edo politikoa jasotzen duten. "Ez dute ia inolako babesik izaten eta, ondorioz, emakume horiek oso garesti ordaindu behar izaten dute", esan du.

Gero honako hauek zuzendu zituen: 'Noor', bikote drogazale bati buruzkoa; 'Estigma', Palestinan GIB/Sidaz jotako gaixoei buruzkoa; eta, azkena, 'Alloush', 2015ean Zisjordaniako hegoaldean muturreko juduen eraso batean bizirik erreta erail zituzten haurtxoari eta haren gurasoei buruzkoa.

Dokumentalek informatu, probokatu eta tabuak baztertzen dituzte. "Gai ezezagunak edota jendeak jorratu nahi ez dituenak lantzen ditut", laburtu du. Lana finantzatzeko, fundazioetatik eta GKE-etatik lortutako diruaz eta, batez ere, berarentzat doan aritzen direnen jardunaz baliatzen da.

Orain fikzioaren esparruan sartu eta ohorezko krimenei buruzko film luzea egin nahi du. Senide batek, batzuetan gurasoek eurek, egindako hilketa da (ia-ia beti emakumea hiltzen dute), biktimari familia lotsaraztea edota komunitateko arauak haustea leporatuta; adibidez, hitzartutako ezkontzari uko egin diolako; onartu gabeko maitasun harremana, ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak edota harreman homosexualak dituelako; bortxatu egin dutelako; egoki janzten ez delako; edota erlijioa errespetatu ez duelako.



Emakumeen askapena barrutik etorri behar du



Mahmoud Abbas Palestinako lehendakariak 'ohorezko krimentzat' jotzen ziren hilketen zigorrak arintzen zituen lege-araua indargabetu zuen. Halere, oraindik orain ohorezko krimenak egiten dira, eta emakumeen eskubideen defentsan aritzen diren erakunde askok 'ohorezko krimenen' aurkako berariazko legeria eskatzen dute, krimen horiek ekiditeko.

"Filmak 'Poltsa beltza' izena edukiko du. Nerabea nintzela, auzoko emakume bat gauez oihuka entzun nuen. Ordu batzuk geroago, leihotik begiratu eta senarra ikusi nuen, poltsa beltz handi bat tarrasean zeramala. Geroago jakin genuen emaztea hil zuela, ustez beste norbaitekin oheratu zelako. Poltsa barruan emakumearen gorpua zegoen. Historia horrek asko markatu zuen, guztiok oihuak entzun genituen arren, inork ez zuelako ezer egin", azaldu du.

Emtyazi begiek dir-dir egiten diote lanaz eta zuzendari lanetan dituen proiektuez aritzen denean. Beraren dokumentalak arabiar munduko hainbat herrialdetan proiektatu eta, Ekialde Hurbileko mugaz harago, beste hizkuntza batzuetara ere itzuli dituzte, hala nola italierara eta ingelesera.

Emakume polita da, adierazkorra eta irribarretsua. 14 urtetik aurrera janzten du beloa, baina kolore biziekin, eta gainerako jantziekin beti ondo uztartuta. Txukun makilatzen da. "Neuk aukeratu nuen *hijaba* (burua estaltzen duen zapia) erabiltzea. Erosotasun psikologikoa ematen dit. Gizon askorekin lan egiten dut, askotan emakume bakarra izaten naiz, eta beloak haien eta nire arteko beharrezko tartea sortzen du. Gainera, Ramallahko jendeak badaki bakarrik bizi naizena, eta palestinar gizon askoren ustez, emakume dibortziatua izateak emagaldua izatea dakar", laburtu du.

Emtyazek gidoiak idatzi, grabatu eta muntatzen ere badaki. Baliabide finantzario eta tekniko gutxi eta bere balioa erakusteko gogo handia izanik, etenik gabe egiten du lan. Filmetan bere iritzia islatu nahi du. "Errespetatua naizen? Bai eta ez. Lan egiten dudana telebistako lankide batzuk ez dira eroso sentitzen nire aginduetara egonez. Dokumental bat grabatzera joaten naizenean, jendeak galdetzen dit ea benetan zuzendaria naizen. Aldizkarietan ikusten duten fisikoarekin bat ez natorrelakoan nago", dio txantxetan.

Lana borrokatzeko modua ere bada. Ez du inoiz mugimendu feministetan parte hartu eta, beraren ustez, horietako asko ez datoz bat Palestinako emakumeen benetako



arazoeekin. “Emakumeen askapena ez da beloa kentzea edo jendaurrean zigarroa erretzea. Barrutik etorri behar du: zer nahi duzun jakin behar duzu, eta hori lortzeko bitartekoak izan behar dituzu. Eta, batez ere, ‘nahikoa da!’ esateko beldurra galdu behar duzu. Neure buruaz ere ari naiz”, onartu du.

Emtyazen iritzian, Palestinan emakumeek muga bikoitza dute: alde batetik, Israelen okupazioa eta, beste aldetik, gizarte patriarkalaren tradizioak, ‘azkenean hegalak mozten baitzikiete”.

Oztopoen gainetik, 10-20 urte barru Palestinan ikusten du bere burua, beste herrialde batzuetan proiektatuko diren kalitateko filmak egiten, prestatzen jarraitzeko askatasunarekin eta bitartekoeekin, eta atzerriko zinemaldietan parte hartzen.

“Hemendik joateko aukera eduki dut, baina ez dut nahi izan. Zalantzarik gabe, Israelen okupaziorik gabe zuzendari hobea izango nintzateke, gauza errazena (hala nola hemendik 20 km-ra filmatzea) zaildu egiten baititu. Guztiok ere pertsona hobeak izango ginateke okupaziorik gabe. Adibidez, Israelen kontrol militarrean tratu txarra jasaten duen palestinar gizonak gero etxean emakumeari tratu txarrak eragingo dizkiola uste dut. Sarritan, umilarazi egin dutenak gero umilarazi egiten du; umeei hori guztia ikusi eta ondoren errepikatu egiten dute”, erantsi du agur esateko unean.



HANEEN HANNA:

“Palestinar
gizartean
emakumea ezin da
librea izan”

Ana Albak idatzia

Haneen Hanna ez da gogoratzen noiztik ez duen ikusi itsasoa. Jaffako eta Akreko hondartzetan sarritan jolasten zuen haurtzaroa nostalgiaz oroitzen du. Bi hiriak israeldarrak dira baina palestinar biztanle ugari dituzte.

“Umetan, palestinarrek errazago eskuratzen zuten lan-baimena eta gure aitak familia osoa joateko balio zuen bat zeukan. Batzuetan, neba txikia eta biok berarekin joaten ginen. Oso haurtzaro ona igaro genuen Akren eta Jaffan; igande askotan Akren arraina jaten genuen. Txikia nintzenetik ez naiz bertara itzuli” kontatu du ahots gozoz gaur egun 25 urte dituen Haneenek.

Jerusalemen jaio arren (Israelen baimenik gabe ezin da bertara joan), bera Taybehkoa (Zisjordania, Israelek okupatutako lurralde palestinarra) dela dio, familia hangoa delako, “eta belaunaldi askotakoa, gainera”. Hazi, berriz, kristauak ugari diren herri honetan hazi da, eta bertan eman ditu bizitzako urterik gehienak. Herria elizaz josita dago eta mundu osoko erromesak erakartzen ditu. Besteak beste, orain arte Palestinako garagardo bakarra izan dena bertan egiteagatik ere ospetsua da (hain zuzen ere, herriak eman dio izena garagardoari).

Haneenen birraitona-amonetatik bat bakarrik da Taybehtik kanpoko: Nazaretetik hurbil dagoen Reinehkoa zen. 1967ko gudaren ostean, Israelek Gaza, Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem, Golaneko gainak eta Egiptoko Sinai penintsula okupatu zituenean, Taybehra joan behar izan zuen.



*Gure belaunaldiaren pentsaera desberdina da,
baina gizarteak agindutakoari jarraitzen diogu*



Orain Haneen Belenen (Zisjordania) bizi da, Jerusalemetik 8 kilometrora hegoalderantz. Bi lagunekin partekatzen du etxebizitza, turismo-gidaria izateko ikasten du eta hotel bateko harreran egiten du lan. Bibliaren arabera Jesukristo jaio zen herri palestinar honetan eman zituen Haneenek unibertsitateko urteak. Egun Ostalaritzako lizentziaduna da, 2013an titulua eskuratuta.

“Familiaren etxetik kanpo bizi izateak askatasun handiagoa ematen dit”, ziurtatu du mugimendu leunak egin arren, nortasun handia adierazten duen gazteak. Esandakoaren adibide, gauerdia arte ibiltzen da lagunekin, batzuk neskak eta beste batzuk mutilak: “Lan egiten dudanean, gaueko hamabietan amaitzen dut. Norbaitek berandu etxeratzen ikusten banau eta txarto baderitzo, berdin dit, nik nahi dudana egiten dut” dio Haneenek, zorrotz eta tinko.

“Emakumea bazara, mundu osoak begiratzen du ea norekin zabilzan eta zer egiten duzun. Gizarte palestinarrean, emakumea ezin da librea izan; denetarako baimena behar izaten du: gurasoena edo senarrarena. Jasanezina da. Mutilei ez zaie hori gertatzen: zer egingo duten esan eta kito”, azaldu du lasaitasuna darion emakume gazteak.

Haneen lau neba-arrebetatik zaharrena da; hiru neska eta mutil bat dira. Haneenen esanetan, nebarentzat errazagoa da dena. “Beranduago irits daiteke etxera. Ahizpak eta nik, berriz, baimena eskatu behar dugu, eta ezin gara agindutakoa baino geroago iritsi, aurretiaz amari deitu eta azalpenak eman ezean”, adierazi du arauak aldarazteko ahaleaginean dabilen Haneenek.

“Gurasoen aurrean nebak bezala jokatzeko ahalegintzen naiz: zer egiten dudana esaten diet, baina baimena eskatu gabe. Esaten diet umetan irakatsi zidatela nola jokatu behar dudana, nigan konfiantza izan behar dutela”, azpimarratu du.

Taybehko familia-etxean, emakumeek egiten dituzte etxeko lanak. Haneenek egoera hori arbuia eta askotan eztabaidatzen du familiarekin. “Nebak ohea egin eta bere gela pixka bat txukuntzen du; horixe da beraren zeregin bakarra. Gure familian eta gizarteak uste dute etxeko gauzak emakumeen kontuak direla, gizona ez litzatekeela gizon halako lanak egingo balitu”, azaldu du. Eta argitu egin du: “berdin dio familia kristaua nahiz musulmana izan, denek berdin jokatzeko dute; gizartearen, tradizioaren arazoa da, eta ez erlijio batena edo bestearena”.

Palestinan goiz ezkontzeko ohitura dago, eta aitona-amonek Haneen presionatzen dute, senarra bila dezan. “Orain ezkondu behar dudala esaten didate, bestela berandu izango dela. Ez nago ezkontzearen aurka, baina badut denbora eta ez dut ulertuko nauen gizonik aurkitu. “Eman pertsona hori aurkitzeko denbora –esaten diet–, baina haiek ezkontzea nahi dute, ez besterik”, adierazi du, asperdura-keinua eginez.

Haneenek baieztatu du mutil batekin hasten denean ez diela gurasoei ezer esango, harik eta senarra izango duen ziurtasuna izan arte. “Lehenago esaten badiet, mugak ezarriko dizkidate eta ez naiz berarekin askatasunez bildu ahal izango, ondo ezagutzeko moduan. Nire aitagatik balitz ez litzateke arazorik egongo, baina gainerako familia ere tartean dago”, argudiatu du Haneenek.



Gizarte palestinarrean, emakumea ezin da librea izan; denetarako baimena behar izaten du



“Gurasoak maiteminduta zeuden baina euren gurasoek ez zuten halakorik onartzen. Zazpi urtean elkar ikusten eta harreman horren alde borrokatzen jarraitu zuten, harik eta ezkontzen uztea lortu zuten arte. Asko-asko maite zuten elkar. Maitasunaren ahalmenean sinesten dut”, dio irribarretxo bat eginez, duela 2.000 urte eraiki zituzten Salomon igerilekuetako jesarlekuan dagoela. Askotan etortzen da hona, ederra eta lasaia dela uste duelako.

Haneenek nabarmentzen du gizarte palestinarrean ezkondu aurretik sexu-harremanak izatea onartezina dela. “Hori gertatu eta plazaratzen bada, inplikatuentzat arazo itzela da. Neskarentzat ikaragarria izan liteke, hil ere egin lezakete”, baietsi du.

Palestinan eta Israel barneko arabiar komunitateetan oraindik izaten dira “ohorezko krimenak”. Horrela esaten diote senide batek pertsona bat (normalean emakumea) hiltzen duenean, biktimari familia lotsaraztea egotzita: hitzartutako ezkontzari uko egin diolako, baimendu gabeko maitasun-harremanari eusten diolako, ustez ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak izan dituelako, bortxatu egin dutelako, harreman homosexualak dituelako edo erlijioari uko egin diolako.

Mahmoud Abbas Palestinako lehendakariak ohorezko krimentzat jotzen ziren hilketen zigorrak arintzen zituen legearen artikulua indargabetu zuen. Halere, oraindik orain burutzen dituzte eta GKE askok ‘ohorezko krimenen’ aurkako berariazko legea eskatzen dute, krimen horiek egin litzaketen pertsonen atzera eragiteko.

Eguzkitan erlaxatzea gustuko duen Haneenek dioenez, badago beste arazo handi bat Palestinako gizartearen: beste erlijio bateko pertsona batekin maitemintzea. “Gure gurasoek argi eta garbi arbuiatzen dute musulman batekin ezkontzeko aukera, gizartearen arabera, kristauak kristauekin ezkondu behar dutelako. Egun batean gai horri buruz hitz egin genuen eta nik esan nien funtsean maitasuna eta pertsonen bizitza dagoela tartean. Beraiek, berriz, erantzun zidaten lagun musulmanak dituztela eta dena partekatzen dutela beraiekin, ezkontza izan ezik; hori ezinezkoa dela.



Musulman batekin maitemintzen banaiz haren alde borrokatuko naiz, baina gurasoak galdu gabe”, argitu du Haneenek.

Gazte zuhur horren ustez, Palestinako emakumeen egoera “egonkorra” da: “hobera doa baina oso astiro, aldaketa oso astiro dator”. “Gure belaunaldiaren pentsaera desberdina da, baina gizarteak agindutakoari jarraitzen diogu. Batzuetan zeure pentsaeraren aurka ere jokatu behar duzu, gizartetik kanpo ez gelditzearren”, aipatu du.

“Halere, 80 urteko jendearen pentsaera duen 20 urteko jende asko dago, antzinako mentalitatea dutena”, argitu du Haneenek. Bi urtez ikasi zuen gaztelania Belengo Unibertsitatean eta, gainera, frantsesez eta ingelesez ere hitz egiten du, eta hebreera ikasteko asmoa du.

Sinesten duena egitea eta gauzak praktikan aldatzea nahi duela dio. “Batzuetan borrokatzeaz nekatzen naiz, ez dudalako emaitzarik ikusten; halere, oraindik ez dut etsi. Zaila da pentsaerak, eta batez ere adinekoenak, aldaraztea, baina nire belaunaldian indarra egiten ahalegintzen naiz”, azpimarratu du.

Haneenek, ikaskideekin batera, “La Casa de Bernarda Alba” lana antzeztu zuen gaztelaniaz Belenen eta Jerusalemen. Beraren esanetan, euren buruak Bernardaren alabenaren kasuan ikusi zituzten eta haiek jasandako egoeretako batzuekin identifikatu ziren.

Cristina Andreu zinemagile espainiarrak Haneenen eta ikaskideen antzerki-esperientzia kontatu zuen “Bernarda Alba en Palestina” dokumentalean.

“Eguneroko bizitzan berdintasunaren alde aritzen naiz. Lau neba-arrebetan zaharrena naiz. Gure aitari Abu Haneen (Haneenen aita) esaten zioten, eta amari Um Haneen (Haneenen ama), baina Hanna neba iritsi zenean, aldiz, Abu Hanna eta Um Hanna esaten hasi zitzaizkion, lehen semearen izenez deitzea agintzen baitu ohiturak. Oraindik orain eztabaidatzen dut horregatik. Zergatik aldaketa hori? Hilda nago, ala? Ez, hementxe nago, oraindik neba-arrebetan nagusia naiz eta oraindik aita dut. Ez da bidezkoa nire izena kentzea; horrela eginez ezabatu egiten naute, baztertu. ‘Zu ez zara garrantzitsua, zure neba garrantzitsuagoa da’ esatearen parekoa da”, adierazi du, goibel eta haserre.



Okupazioa gogorra da, eragin nabarmena du gure eguneroko bizitzan



Haneenen ustez, halere, gurasoak ulerkorrak eta nahikoa irekiak dira. Ikastera bultzatu eta beraren karreran laguntzen diote. Familia osoak nahi zuen neskak unibertsitatara joatea, lan egitea eta diru-sarrerak izatea.

Ez du beraren generoaren gaineko iruzkin iraingarririk jaso, eta ez du inoiz entzun “utzi ikasketak eta hasi etxean jatekoa prestatzen” eta antzerakorik, adineko pertsonaren baten aldetik ez bada. “Mundu guztiak beti errespetatu nau eta balio dudana frogatzeko aukera eduki dut, bai unibertsitatean, bai lanean”, dio, pozik.

Haneenek ez du ia aisialdirako astirik: lanak eta ikasketek hartzen diote denbora gehiena. Ekinekoa da, saiaturia eta langilea. Eskolak amaitu eta turismo-gidari izateko titulua eskuratzeko irrikan dago. Haneen ausarta eta sendoa da eta ziur dago “Palestinako gidari ona” izateko helburua lortuko duena. Bere lurraldearekiko maitasunak eta bisitariei hari buruzko “kontakizun egokia” kontatzeko gogoak bultzatu zuten ibilbide profesionala turismo-alorrera bideratzera.

“Israelen okupazioa ez da soilik armen bidez gauzatzen; gainera, umeei hau Palestina ez dela irakasten ahalegintzen dira; historia aldarazten ahalegintzen dira. Informazio zuzena eman eta zabaltzea nahi dut; hori ere aurre egiteko modua da”, baieztatu du Israelen okupazioaren aurkako protestetan oso gutxitan parte hartu duen Haneenek.

“Okupazioa gogorra da, eragin nabarmena du gure eguneroko bizitzan. Okupatzaileek Palestinako Agintaritzak (PA) kontrolatzen dute, gure bizitzak kontrolatzen dituzte, eta guztion gainean eta gainetik erabakitzen dute”, salatu du. Haneenek inoiz indar israeldarrek atxilotu dituzten lagun asko ditu, eta haren ustez, “Israelek ez du gatazka amaitu nahi, orain arte bera izan delako indartsuena eta geroz eta Palestinako lur gehiago hartzen duelako”. Halere, epe luzera baikorra dela dio, eta gatazkaren amaiera eta Palestinako Estatuaren sorrera ikusiko dituela uste du.

Turismo-gidari izateaz gain, alabatxoa edukitzea da Haneenen ametsa. “Pentsatzen eta bere ideien arabera jokatzeko, gizartearen menpe ez egoten” irakatsiko omen dio:



“Seme-alabei askatasuna emango diet, alabari konfiantza emango diot; berak jakingo du zein diren beraren mugak, nik jakin dudak bezala”.

Begiak distiratsu eta irribarre gozoa ahotan, alabari Jaffa izena emango diola adierazi digu, hainbeste maite duen hiri horren omenez. “Berak ere maite izango du, bere lurrean sustraituta egongo da eta bere eskubideen alde borrokatuko da”. Seme-alabei Palestina maite izaten eta haren alde armarik gabe borrokatzen, aurre egiten, berton gelditzen irakatsiko diet” azaldu du Haneenek. Izan ere, Palestinaren erresistentzian emakumeek funtsezko eginkizuna dutela uste du.

Palestinan lanik ez zegoela eta (langabeen ehunekoa oso-oso altua da bertan), aita Estatu Batuetara lanean joan zenez, Estatu Batuetako nazionalitatea eskuratzeko aukera izan zuen. Halere, uko egin zion.

“Ez dut Estatu Batuetako pasaporterik nahi; harro nago nire Palestinako nortasun agiriarekin. Badakit Palestinako egoera ekonomikoa oso txarra dela, oso soldata txikia daukat, baina ez dut hemendik joan nahi”, azpimarratu du Haneenek, oso sutsua baita Palestina defendatzen, nahiz eta mugimendu politikoetan nahasita ez egon. Taybehn bizi zenean, baina, kulturako eta aisiako jarduerak antolatzen zituen gazte-taldeentzat (horietako bat elizari lotutakoa).

Haneenen iritzian, palestinarren indar handienetako bat horixe da: “eutsi egiten diogula, oraindik hemen gaudela”. Beste aldean, ahulezia handiena, batasun-gabezia. “Talde politiko askotan banatuta gaude, eta batzuk besteen aurka mokoka ibiltzen gara. Palestina askea lortu eta gure lurra itzultzea nahi badugu, batuta egon behar dugu”.

“Emakumea heztea nazio osoa heztea da”

Ana Albak idatzia

Ihsan Rahhalek ez du inoiz haurtzaroa utzi. Zereginez josita duen denboran tartetxoren bat egitea lortzen badu, berak zuzentzen duen ikastetxeko neskatoekin jolastera irteten da. UNRWAre (NBERen Palestinako Errefuxiatuentzako Agentzia) Neskentzako Oinarrizko Eskola da, Dheishehko errefuxiatu-eremuan, Zisjordanian.

“Ikaragarri maite ditut gure neskatoak, oso harro nago eurekin”, dio Ihsanek, aurpegian emoziozko irribarrea irudikatzen zaiola. Ikastetxean 6 eta 9 urte bitarteko 400 neskatila daude, “guztiak ere ikasteko irrikaz”. Ikastetxeko ikasleek errefuxiatu statusa dute; izan ere, 1948an Israelgo Estatu sortu ondoren, 700.000 palestinarretik gora beren etxeetatik kanporatu zituzten eta neskato horiek haien ondorengoak dira, hain zuzen.

Ihsanen iritzian, hezkuntza edozein pertsonaren bizitzaren oinarrizko zutabea da, eta are gehiago neskatoen kasuan. “Emakumea heztea ez da ekintza indibiduala, nazio osoa heztea da, neskato hori ama delako, seme-alabei irakatsiko dien pertsona delako”, azpimarratu du Ihsanek.

56 urteko emakume sendo horren iritzian, hezkuntza hitz zabala da, bere baitan hainbat eta hainbat kontzeptu biltzen dituena; hitz pisutsua, hiztegian aparteko lekua merezi duena.

“Hezkuntzaren bidez, emakumeek euren buruarekiko kontzientzia handitzeko aukera dute, euren betebeharrak eta eskubideak buruz gehiago ikasteko, trebatzeko, ibilbide profesionala osatzeko, ekonomikoki independenteak, askeagoak izatea ahalbidetuko dien lana edukitzeko aukera”. Ihsan bera Ingeles Literaturako lizentziaduna da.

Ihsanen gurasoak analfabetoak ziren, baina euren zazpi seme-alaben bizitzan lehenetsunak izan ziren hezkuntza. Aita hargina zen eta Kuwaiteko eta Jordaniako harrobietan jo eta su jardun zuen seme-alabek unibertsitatean ikasteko.

“Kuwaiten bizi izan ondoren, Beit Safafara (Jerusalem) itzuli ginenean, aita atzerrian gelditu zen, lanean, dirua aurreztu eta guk jateko, oinarritzko beharrianak asetzeko eta, batez ere, eskolara eta unibertsitatera joateko”, azaldu du Ihsanek, gurasoekiko miresmena ahotan.

“Ama ona izan genuen, eta ziur nago ikasteko aukera edukiz gero, ekonomia-munduan ospetsua izango zela, aita oso diru-sarrerak txikiak izanik, horiekin hilaren amaiera iristea lortzen zuelako”, dio konbentzimendu osoz.

“Etxean ikastera bultzatu gintuzten, eta batez ere emakumeak. Aitak zioen emakume batek ikasketa-agiria edukitzea gudan arma bat edukitzearen parekoa zela”, berretsi du. Ihsan Kuwaiten jaio zen 1960ko otsailean; familia musulman bateko hamaikagarren seme-alaba zen. “Ahizpa guztiek lizentziatura lortu zuten, gutxienik, eta baten batzuek masterra edo doktoregoa ere egin zuten. Horietako batek Jordaniako Unibertsitatean ikasi zuen, eta bakarrik bizi izan zen bertan”, azpimarratu du, harro.

Sei urte zituela, Ihsan Palestinara itzuli zen amarekin eta neba-arrebekin. 1966an, Beit Safafa auzora, Ekialdeko Jerusalemara joan ziren, euren ahaideak bertakoak zirelako. Hurrengo urtean Sei Eguneko Guda izan zen eta Israelen hiriaren alderdi hori okupatu zuen. Geroago, 1980an, Israelgo Gobernuak esan zuen Jerusalem hiri osoa Israelgo “hiriburua banezina” zela. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, ordea, Ekialdeko Jerusalem legez kanpo okupatu eta bereganatu du Israelen.



Ziur nago emakumeak ikasketan maila altua eskura dezakeela, baldin eta bere buruan sinetsi eta eskatuko dion ahaleginaz jabetzen bada



Ihsanek zazpigarren mailara arte ikasi zuen Beti Safafako UNRWArekin ikastetxe batean, errefuxiatu statusa duelako. Gero, zortzigarren eta bederatzigarren mailak Aidako errefuxiatu-zelaiko UNRWArekin beste ikastetxe batean egin zituen. Aida Belenen dago, 8 km-ra Jerusalemdik hegoalderantz. Goi-mailako ikasketak egiteko, berriz, Belengo Unibertsitatea aukeratu zuen eta bertan eskuratu zuen lizentzia 1984an.

Hiri horretakoa da senarra, “kasualitatez” lagun batzuen etxean ezagutu zuena. Senarra Belengo Yamama ospitaleko analisi klinikoaren laborategiko teknikaria da eta Belenen bertan bizi dira, bertan kokatu baitziren ezkondu zirenean, Ihsanek 29 urte zituela.

Hiri hori (duela urte batzuk arte nagusiki kristaua eta gaur gehiengo musulmana duena) ez da Zisjordaniako beste batzuk bezain kontserbatzailea eta turista asko hartzen ditu. Urteak joan ahala hiria zabaldu egin da, eta hiru errefuxiatu-zelaiak (Dheisheh, Aida eta Beti Jibrin) irentsi ditu. Lehena 1949an ezarri zuten Belengo aldirietan, 3.000 lagun hartzeko. Gaur egun, Belengo hiribide nagusietako batean luzatzen da, eta 15.000 biztanle ditu.



Palestinako amak etxeko norbait galtzeko beldur dira etengabe



Dheisheh A Eremuan dago. Israeldarrek eta palestinarek 1993an sinatu zituzten Osloko bake-hitzarmenaren arabera, Zisjordania hiru zatitan banatu zuten, eta A eremua horietako bat da. A Eremua Palestinako Agintaritzaren kontrol administratiboaren eta segurtasunaren pean dago; halere, Israelgo indarrak nahi dutenean sartzen dira bertan, atxilotetak egitera.

“Dheisheh Belenekin bat egiten du, hiriko parte dela sentitzen dut. Bien arteko alderik handiena espazio fisikoa da: zelaia oso mugatuta dago, biztanlez gainezka eta, horren ondorioz, jendeak zerbitzuengatik borrokatu behar du. Ez dago neska-mutilentzako lekurik eta horrek eragin psikologikoak eragin diezazkieke; segurtasun gabezia eta desoreka sentsazioa eragiten ditu. Behartuta daude zelaian egotera, baina familiek ez dute halakorik aukeratu. Gainera, joan-etorriak mugatuta dituzte”, azaldu du Ihsanek. Eta ondo daki zertaz ari den, 1991z geroztik UNRWAn lan egiten baitu.

Urte horretan Dheishehko errefuxiatu-zelaiko UNRWAn Neskentzako Oinarrizko Eskolan irakasle hasi eta 1996an aritu zen horretan, harik eta zuzendari izendatu zuten arte. Duela 22 urtetik hona zuzentzen duen ikastetxe horretan aholkularitza psikologikoko zerbitzua eta familia-babeserako programa berezia dituzte, familiekin batera ikasle batzuen kasuak aztertzeko.

UNRWAn ikastetxeek kokatuta dauden estatuko edo lurraldeko (kasu honetan PAK zuzendutako lurraldeetako) eskola-programa jarraitzen dute, baina giza eskubideei eta gatazken konponketari buruzko programak ere eskaintzen dituzte. “Irakaskuntzaren eta Hezkuntzaren bidez (zentzurik zabalenean hartuta), neskek euren betebeharrak eta eskubideak hobeto ezagutzeko aukera dute” baietsi du Ihsanek, sendo.

Ikastetxeko ikasleei “hezkuntza formala eta ez-formala” eskaintzen diete: “UNRWako eskoletan lehen mailako hezkuntza doan da eta hainbat programa erabiltzen dituzte. Besteak beste, Jolasteko Eskubidea, Real Madrid Fundazioarena edota Guztiontzako Musika. Horiei guztiei esker, ikasleen nortasuna hobetu eta bizitzarako tresnak eskaintzen dizkiegu”.

PAren eta UNRWAn ikastetxe publikoak ez dira mistoak. Oso komunitate txikietan, neska-mutilak elkarrekin joaten dira eskolara, ez dutelako generoaren arabera banatzeko baliabiderik edo irakasle nahikorik.



Ihsanen esanetan, Dheishehko zelaian neskatoek eta emakumeek partaidetza handia dute gizarte-bizitzan, oinarritzko mugimenduetan eta kultura-elkarteeetan. “Zelaiko neska gehienak antzerki, dantza eta *dabke* (dantza tradizionala) taldeetara joaten dira. Talde batzuk munduan aritzen dira eta Palestinaren irudi ona ematen dute”, dio Ihsanek: “Dheisheh askatasun-iturria da”.

Ihsanek jaio zen unetik entzun ditu hitz horiek. “Gurasoek berdin-berdin hezi gintuzten semeak eta alabak; askatasun osoa eman ziguten. Palestina barruan eta kanpoan ibiltzen ginen, Bagdadera joan ginen eta Kuwaitera gero, ordurako bertan bizi ez baginen ere”, azaldu du erretzaile amorratua ere baden irakasle horrek.

“Alabei ere askatasun osoa ematen diet, jakinik askatasuna onartzen badute, betebeharrak ere onartu beharko dituztela. Alaba bat bera bakarrik egon zen hiru hilabetez AEBn, eta beste bat Grezian”, azaldu du goi-mailako ikasketak dituzten hiru alaba eta seme baten amak.

Ihsanek ez du *hijaba* (beloa) erabiltzen, eta beraren alabek ere ez. “Erlijioa zeure menpe eta Jaungoikoarekin duzun harremanaren menpe dago. Nik ez dut burua estaltzen, baina nire ahizpa gehienek, ordea, bai. Gurasoak sinestunak izan arren eta Mekarako peleginazioa egin arren, ez zitzaidan inoiz burutik pasatu beloa jartzera behartuko nindutenik”. Halere, Jaungoikoarengan sinesten du eta Ramadaneko baraualdia errespetatu du.

Emakume indartsu bezain gozo horrek azaldu du etxean (senarrarekin eta hiru seme-alabekin bizi da bertan) denek egiten dituzte etxeko lanak, eta alor horretan ere berdintasunean hezi dituela semea eta alabak. “Gure nebek ere laguntzen zuten etxeko lanetan; adibidez, lurrean lo egiteko zabaltzen genituen koltxoia garbitu eta txukuntzen zituzten. Gure aita gizon ona zen, lan asko egiten zuen eta jai zuenean pastel eta gozoki bereziak egiten zizkigun”, aipatu du Ihsanek, oroimenez.

Nolanahi ere, onartzen du etxearen eta familiaren pisua emakume palestinarren bizkar dagoela. “Munduko beste edozein emakume bezala, palestinar emakumea ere ‘lan-aniztuna’ da: emaztea, ama eta langilea, eta, batzuetan, familiaren diru-iturri nagusia ere bai. Palestinaren kasuan, ordea, badago ezaugarri berezi bat: okupazioaren pean bizi dela”, azaldu du eskola-zuzendari metodiko horrek, mahai gainean paper pilaketarik onartzen duenak.

“Palestinako familia askotan, aita/senarra preso dago edo martiria da (Israelgo indar armatuek hil dute edo eraso batean hil da). Halakoetan, emakumeek familiaren diru-iturri nagusia bermatzen dute. Palestinako amak etxeko norbait galtzeko beldur dira etengabe, egoera politikoaren berdur”.

“Beste batzuetan, amak eta familiak bereizita egoten dira, batzuek eta besteek nortasun-agiri desberdina dutelako eta banaketa-hormaren bi aldeetan gelditzen direlako. Edota Israeldarrek etxea eraisten diete, palestinarren aurka zigor kolektibo hori ere erabiltzen baitute. Hori guztia dela eta, palestinar emakumeak segurtasunik gabe bizi dira”, nabarmendu du.

Israelek Zisjordanian eraiki zuen hormak ez du estatu horren muga zedarritzen; aitzitik, Palestinako lurra hartu eta Israelgo eremuan sartzen du, legez kanpo. Kasu batzuetan, palestinar herriak banatu egiten ditu hormak.

Ihsan itzal handiko pertsona da eskolan, eta langile guztiek errespetatzen dute. Palestinako gizartean, hainbat gaitan, neska-mutilen eta gizon-emakumeen artean diskriminazioa egotea gaitzesten du, baina argitu du ez dela orokortu behar eta orotariko egoerak daudela.

“Emakumeen egoera zaila da. Batzuek ez dituzte beren eskubideak ezagutzen. ‘Lan-aniztunak’ direnez, esparru batzuetako ekoizpena gutxietsi egiten da. Tradizioen ondorioz euren nahi eta aurreikuspenak mugatu egin daitezke, gizona nagusi den gizarte patriarkalean bizi garela kontuan hartuta. Eta legea ez da behar bezala betetzen, emakumeen aurkako indarkeriaz ari garenean. Gizartean ez gaude gizonen maila berean, ez ditugu eskubide berdinak”, gaitzetsi du, haserre.

“Gizonek lan batzuk monopolizatu egiten dituzte eta emakumeek ez dute partaidetza nahikorik erabakiak hartzean. Gizarteak emakumeak ikusteko moduaren ondorioa da hori. Askotan, mutikoak, mutikoak direlako, oso berandura arte irten daitezke; bien bitartean, neskatoek etxean gelditu behar dute”, azaldu du.

“Halere, emakumeen egoera familien araberrakoa, emakume bakoitzaren heziketaren araberrakoa, bizi diren herriaren araberrakoa izaten da”, ñabartu du Ihsanek. Adibidez, bere familia- eta lan-ingurunean ez du emakumeen aurkako diskriminaziorik sumatzen eta eskubide guztiak dituela uste du: “are gehiago, emakume izateak baditu abantailak ere”, egin du irribarre.

Laneko ibilbidean ez omen du inolako oztoporik aurkitu emakumea izateagatik. “Hezkuntzan dudak sinesmenak, neure nortasunak, bizi izan eta bizi naizen moduak... horrek denak eragin du zailtasunik ez aurkitzea. Ziur nago emakumeak ikasketan maila



altua eskura dezakeela, baldin eta bere buruan sinetsi eta eskatuko dion ahaleginaz jabetzen bada”, ziurtatu du Ihsanek.

Emakume tinko eta langile hori optimista da palestinar emakumeen egoeraren inguruan. “Gure egoerak hobera egin duelakoan nago. Azken urteetan eginkizun handiagoa izan dugu, emakume ikasi gehiago daudelako eta, hartara, euren eskubideen jakitunago direlako. Badira emakumeak Kontseilu Legegilean, emakume bat (Samiha Jalil) lehendakari gai aurkeztu zen (1996an) eta Yaser Arafat (Palestinako buruzagi historikoa zena) izan zuen lehiakide”.

Beraren ametsa: “Palestinako emakume guztien aurkako diskriminazioa amaitzea; diskriminazio orokorra eta lan-aukerei lotutakoa; emakumeak gizonen menpe egotea amaitzea; palestinar emakumeek euren erabakiak hartzeko aukera izatea, euren erabakien jabe izatea eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko legea aktibatzea”.

“Horiek guztiak aldatzeko, hezkuntza gehiago eta gure eskubideez jabetzeko gaitasun handiagoa behar dugu. Gure seme-alabei konfiantza eman behar diegu”, azpimarratu du Ihsanek. Izan ere, hezkuntzak mundua aldarazteko eta gatazka-guneetan (Palestinan eta Israelen, adibidez) bakea lortzeko ahalmena duela uste du.

“Hezkuntzak eta UNRWako eskoletan giza eskubideei eta gatazkek konpontzeari buruz jorratzen ditugun programek bakea lortzen lagun dezakete. Hezkuntzak bakea ez badakar, zerk ekarriko du?”, galdetzen du, bere ikastetxeko neskatoei eskainitako hezkuntzaren bidez pertsonalki hazi eta ezagutzak eskuratzeko aukera ematen zaiela konbentzita.

“Bakea nagusitzen denean amaitzen dira gatazkek. Gure kasuan, palestinarrei eskubideak itzultzen zaizkienean amaituko da gatazka. Estatu independente batean bizi nahi dut, autonomia eta geure mugen gaineko kontrola izango dugun estatu batean, orduan seguru sentituko baikara. Amaiera hori ikustea espero dut”, gaineratu du. “Beno, horretarako urte luzez bizi beharko dut, jakina; eta hori Jaungoikoaren borondatearen menpe dago”, erantsi du, barrezka.



MARIAM ASHTIYEH:

“Dena kentzen
ahalegintzen
direnean, zeurea
defendatzera
irten behar
duzu”

Beatriz Lecumberrik idatzia

2007an alargundu ostean ikasi zuen Mariam Ashtiyehk bere izena idazten. Seme-alabek irakatsi zioten. Olibondo-sailetan egindako lanaren ondorioz gogortu eta ihartutako eskuez eta idazkera dardaratiz, harro zirriborratzen du bere sinadura. Horixe da idazten eta irakurtzen dakien hitz bakarra, Mariamek inoiz ez baitu eskolarik zapaldu.

“Sufrimenduak eta lan gogorrak markatu dute nire bizitza. Esango nuke gutxi batzuetan erdi zorionsua izan naizela”, dio, lasai, 53 urteko palestinar emakume honek, bere burua aurkezteko. Salemen dagoen etxeko egongelan hartu gaitu. Nekazarien herria da, Nablusen aldirietan, Zisjordaniako iparraldean. “Berrogeita hamahiru urte, gutxi gorabehera, inoiz ez baitut jaiotza-agiria ikusi”, zehaztu du.

Mariamek aipatu duen sufrimendua bost urte zituela hasi zen, ama hil zitzaionean. Neba txikiak bost hilabete baino ez zituen eta gogoan du nola lotzen zuen zapi batez gerri bueltan, landetara aitari laguntzera abiatzen zenean.

“Eskola? Inoiz ez nuen joaterik izan. Haurtzaroan hiru nebak zaindu nituen. 10 urte nituela bazkaria prestatzen nuen, etxea garbitu eta eguzkia sortzen zenetik ezkututzen

zenera arte nebeekin batera landetan aritzen nintzen. Gogoan du goizaldeko lauretan edo bostetan jaikitzen ginela, astoz landetara joateko. Inoiz, hain egoten nintzen nekatuta, aitak zuhaitz baten abaroan lotan uzten baininduen, geroago berriz lanean hasteko. Etxeratzen ginenean gaua izaten zen”, azaldu du, begirada galduta.



Emakumeok lurra defendatzeko borrokatu gara eta, nire iritzian, palestinar emakumeek lurraren defentsan ardura handiagoa izan beharko lukete



Aita berriz ezkondu zen, baina ez du amaordearen oroitzapen onik. “Gurekin ez zen emakume ona izan”, adierazi du.

Nebak handitu zirenean, eta orduantxe bakarrik, Mariam ezkondu egin zen. 26 urte zituen eta senarra, Fahim, lehengusu txikia zen, bera ere Salemgooa. “Ez nuen lehenago nebak uzterik nahi. Beraiek ondo egotea nahi nuen, eta berandu ezkondu nintzen”, azaldu du.

Fahimek eta Mariamek bost seme-alaba eduki zituzten.

“Urte zoriontsuak izan ziren: seme-alabak, etxe honetan sartzea... Ez ginen aberatsak, baina ez genuen ezer falta”, oroitu du. 80ko hamarkadaren amaiera zen eta familia-etxeko atearen bestaldean lehen Intifada (1987-1993) bete-betea zegoen. Zazpi urte geroago bigarren Intifada (2000-2005) hasi zen. Bi matxinaden artean, ia 7.000 palestinar eta 1.100 israeldar baino gehiago hil ziren. Zisjordaniako iparraldeko inguru horretan, eta Intifaden ondorioz, egunero egoten ziren borrokak, hildakoak, etxeratze-aginduak, Nabluserako edota landetarako joan-etorriak mugatzeko aginduak... Larrialdi batean ospitalera edo goizetan lanera joatea izugarritzko balentria izan zitekeen.

“Garai hartan soldaduei harriz aurre egiten zieten laguntzen genien, ura eta babesa eskaintzen genien, zauri batzuk sendatu eta israeldarrei gezurra esaten genien, aurkitu ez zitzaizkion. Gure etxeko ateak beti egon ziren irekita. Hildakoak etxeratu ere egin ditugu”, kontatu du.



Gustatuko litzaidake bizitza errazagoa izatea, bai eta irakurtzen eta idazten jakitea ere, horri esker libreagoa izango bainintzen



Lehen Intifadan izandako manifestazio batean senarra atxilotu zuten. Ez omen zen ekintzailea; Mariamen esanetan, handik pasatu baino ez zen egin. Lau hilabetea ez zuen hari buruz ezer jakin; ez zekien bizirik zegoenik ere, harik eta ziegako kide batek haren berri eman zien arte. Indarkeria garai hartan, juduen kokaleku bat, Elon Moreh, handitzen hasi zen Salemdik gertu.

Mariamen herria Zisjordaniako C Eremuan dago. Izan ere, Israelek eta Palestina Askatzeko Erakundeak (PAE) 1993an Oslon sinatutako hitzarmenaren arabera,

Zisjordanian hainbat jurisdikzio sortu ziren Palestinako Agintaritzari pixkanaka geroz eta botere gehiago ematen joateko asmoarekin, harik eta Estatua sortuko zen arte. Alabaina, egoera izoztu eta Zisjordanian banaketa horrek gaur egun arte dirau.

Praktikan, C Eremuak Zisjordanian % 60 hartzen du, eta alor militarren nahiz administratiboan Israelen pean dago. Palestinako dozenaka herri txiki, Okupatutako Palestinako kokaleku israeldar guztiak, errepideak eta segurtasun-eremuak hartzen ditu.



Sufrimenduak eta lan gogorrak markatu dute nire bizitza



“Gogoan dut nolakoa zen Salem koloniarik gabe. Buruan iltzatuta daukat lehen aldiz kolono-familia bat ikusi nuen unea, bai eta euren errepidea eraikitzen hasi ziren garaia ere”, aipatu du, 70eko hamarkada gogoan.

Nazioarteko komunitatearentzat, Elon Moreh, okupatutako Palestinaren lurraldean ireki eta irekitzen dituzten gainerako kokaleku israeldar guztiak bezala, legez kanpokoa da. Halere, kolonietan 600.000 biztanle inguru bizi dira eta kolonien erradikaltasuna ezagun-ezaguna da. Salemgoko herritarren eta kolonien arteko borrokak etengabeak dira. Mariamek azaldu digu gaur egun auzokideek Israelen baimena behar dutela euren lurretara joateko. Halere, bera eta beste asko baimenik gabe joaten dira.

“Gure familiaren lurretatik gertu kolono-familia bat bizi da. Alboan, bertan, ditugu. Urteak daramatzate gu probokatzen; soldadu israeldarren laguntzaz gure olibondoak txikitu eta lurak lapurtzen dizkigute. Duela urte pare bat, kolono batek 200 ardi lapurtu zizkien Salemgoko herritarrei. Herriko emakumeak beraren etxera joan ginen ardiak berreskuratzen. Familia osoarekin borrokatu, oihukatu eta kolpeka ere aritu ginen, baina gure ardiekin itzuli ginen”, oroitu du.

Begi txiki goibelak piztu eta zimurrez jositako aurpegia gaztetu egin zaio gertaera oroitu duenean. Elkarrizketan barre algarra egin duen une bakarra izan da. Mariam Palestinatik inoiz irten ez den nekazari analfabetoa eta txiroa da, akaso, baina badu zer kontatua, eta pozik dirudi entzun egiten diotelako. Askatasunez hitz egiten du eta gogo eta konbikzio irmoak adierazten ditu; bizitzako egoerarik zailenetan zutik eusten lagundu dioten konbikzioak, alegia.



Garai hartan soldaduei harriz aurre egiten zietenei laguntzen genien



Bizkarreko min handiak eduki arren eta landan urteetan egindako jardunaren ondorioz sortu zaion artritidak jota ere, Mariamek ereitera joaten jarraitzen du, “belauniko amaitu behar badut ere”.



“Beste herri batzuetan jendeak lurra utzi ditu, baina Salem olibondoz beteta dago. Ez gara beldur. Duela urte batzuk, soldaduei harriak bota eta ihes egiten genuenean baino indartsuagoak garelakoan nago”.

Mariamek Intifadak ditu aipagai. Beraren esanetan, ez ziren alferrikakoak izan baina ez ziren bide egokiak erabili eta, azkenean, egoerak “okerrera egin zuen”. Diskurtso erradikala du, nahiz eta inoiz palestinar mugimenduetan parte hartu ez. “Eusteko bestelako taktika batzuk erabili bagenu eta beldur gutxiago izan bagenu, lur hauetan ez zen kolonirik izango. Orain israeldarrak dira beldur, eta arrazoirik gabe tirokatzen gaituzte; ezer egin gabe kriminalak izatea egotzi eta geure burua defendatzeko aukerarik ere ez digute ematen”.

2015eko urriaz geroztik israeldar eta palestinarren artean egon den indarkeriaren gorakadaz ari da: batez ere palestinar anonimoez, militantzia politiko berezirik ez dutenek, arma zuriz soldadu eta kolonoen aurka egiten dituzten erasoez, eta militar israeldarrek egiten duten errepresio bortitzez, eraso horiek geldiarazteko edo ekintzaileei atzera eragiteko.



Gure familiaren lurretatik gertu kolono-familia bat bizi da. Alboan, bertan, ditugu. Urteak daramatzate gu probokatzen



“Den-dena kentzen dizutenean, etxean gelditu beharrean zeurea defendatu behar duzu, gutxienez. Hemen, Salemen emakumeok lurra defendatzeko borrokatu gara eta, nire iritzian, palestinar emakumeek lurraren defentsan ardura handiagoa izan beharko lukete. Gazteagoa banintz ez nintzakete politikan edo mugimendu palestinarretan sartuko, geurea defendatzeko elkarteetan baizik”, baietsi du.

Mariam etxeko hormak ia biluzik daude. Etxea jabearen itxura bezain soila eta xehea da. Mariam beltzez janzen da 2007ko abuztuaren 28an senarra hil zenez geroztik. Bihotzekoak eman zion Israelgo lurretan lanean ari zen bitartean, egun batetik bestera. Eraikuntzan lanpostua aurkitu zuen eta legez kanpo joaten zen astero Nablusetik Israelera. 47 urte zituen. Plastikozko arrosez inguratutako Fahimen argazki handia dago etxeko egongelaren buruan.

“Hil zenetik ez dut arropa politik erabiltzeko interesik. Lehen bai, eskuz eta koloretan brodatutako jantziak erabiltzen nituen, Palestinan ohi den bezala”, azaltzen du.

Gaur egun bost seme-alabekin, seme nagusiaren emaztearekin eta urtebete eta erdi dituen Katryn lehen bilobarekin bizi da etxean. Bi semeren soldatari esker bizi dira.



10 urte nituela bazkaria prestatzen nuen, etxea garbitu eta eguzkia sortzen zenetik ezkutatzen zenera arte nebekin batera landetan aritzen nintzen



Azaldu digunez, okupazioaren ondorioz, gainerako semeek ezin dute lan duinik aurkitu. Alargundu zenean landan gogor lanean eta abereak zaintzen jarraitu zuen. Bost seme-alabek eskola amaitu eta hiru unibertsitatera joan ziren.

“Senarra hil zenean, jendeak esan zidan seme nagusia eskolatik ateratzeko, baina ezetz erantzun nien. Ikasi eta bizimodua hautatzeko aukera izatea nahi nuen. Gero lurra lantzerantz etorri nahi badute, egin dezatela, baina ikasi eta gero. Ez zen giro; ez genuen beste familia batzuek bezain ondo jaten, baina bizirautea lortu genuen”, dio.

Palestinan, ohikoa da gizon alargunak berriro ezkontzea, baina arraroagoa da emakume alargunak berriro ezkontzea. Mariamen kasuan, burutik pasatu ere ez zitzaion egin.



“Senarraren ondoren ezin nuen inor maitatu”, baietsi du.

Mariami kostatu egiten zaio etorkizunean bakea irudikatzea. Egunerokoan eta kolonoen indarkeriaren aurrean babesgabe dagoela dio. “Badira urteak geure burua bakarrik defendatzen duguna”, argitu du. Beraren fedeari, irmotasuna bezain hautsiezina, ataka estuetan aurrera egiten lagundu dio. Bizitza osoan egindako bidaiarik luzeena Jerusalemara izan da: 70 km inguru. Izan ere, “dagoeneko zaharra naizenez”, ez du Al Aqsako meskitara otoitz egitera joateko baimen berezirik behar.

“Bizitzan zerbait aldatzeko aukera izango banu?”, errepikatu du gure galdera, egongelako sabaia begira. Bere buruarengan soilik pentsatzea kostatu egiten zaio eta erantzun aurretik denbora eman du. Besoak zerurantz altxatu eta azkenean erantzun du: “Gustatuko litzaidake bizitza errazagoa izatea, bai eta irakurtzen eta idazten jakitea ere, horri esker libreagoa izango bainintzen”.

“Nire ametsa
Palestinako
lehendakaria
izatea da”

Ana Albak idatzia

Maysoun Qawasmik gogoan du zer-nolako zirrara sentitu zuen barrenean, lehen aldiz Palestina eta Jordania arteko Husein Erregea-Allenby muga, Israelek kontrolatzen duena, zeharkatu zuenean. 23 urte zituen, ezkonberria zen eta bere lurraldera itzultzen zen.

Maysounen familia (Al Banna da haren ezkontaurreko abizena) Jaffakoa da. Jaffa Palestinako kostaldeko hiria da, 1948an Israelgo zati bihurtu zena. Al Bannaren etxearen zati batek zutik dirau baina ez dute berreskuratzeko aukerarik, Israelek konfiskatu egin baitzuen. Jabeak *Nakba* izan zenean kanporatu zituzten. *Nakba* hitzak ‘hondamendia’ esan nahi du arabieraz, eta Israelgo Estatua sortu zenean 700.000 palestinaretik gora euren lurraldeetatik derrigorrez kanporatu zituzten garaia izendatzeko erabiltzen da. Al Bannatarak Libanon errefuxiatu ziren eta, urte batzuk geroago, Jordaniara joan ziren. Hantxe jaio zen Maysoun 1969an.

“Allenby zeharkatu nuenean sekulako zirrara sentitu nuen, ez nuen aurretiaz inoiz ere Palestina zapaldu”, oroitu du Maysounek, eskuak bihotzera eramaten dituen bitartean. “Gurasoek egunero Jaffari eta Haifari buruzko historiaren bat kontatzen ziguten; nola kanporatu zituzten euren lurretatik eta nola joan ziren itsasontziz Libanora, eta gure

aitona hil zen bezperako gauean negarrez egon zela, Jaffatik kanporatua izan eta urteak geroago hango laranjak ikusi zituelako...”, kontatu du, goibel.

“Gure lurra, Palestina historikoa, maite dugu, eta errefuxiatu guztiak ziur gaude itzuli egingo garela”, baietsi du. Maysounek ez du Palestinar errefuxiatuentzako NBERen Agentziak (UNRWA) aitortutako estatusik, etxean laguntza-beharrik ez zutenez, aitak izena emateari uko egin ziolako. Israelen sartzetik izan zuenean, aitonaren Jaffako etxea kanpoaldetik ikusi zuen.

“Gure lurrera itzultzea zen nire ametsa. Senarrak eta biok hori egiteko konpromisoa hartu genuen. Unibertsitatea amaitu nuenean ezkondu ginen, 1992an, eta hiru hilabetez Palestinara joateko israeldar okupatzaileen baimena lortu nuen”, kontatu du.

Senarra, Omar Wawasmi, Hebroneko askazia ezaguneko kidea da. Maysounen aitagarreba, Fahed Qawasmi, Hebrongo alkate izan zen 1976 eta 1980 bitartean, harik eta Israelek Libanora erbesteratu zuen arte. Gero Jordanian hil zuten. Irail Beltza palestinarrak hartu zuen hilketa bere gain.

“Hebronera iristea oso gogorra izan zen; oso hiri kontserbatzailea da. Familia musulman ireki batekoa naiz eta ez nuen burua estaltzen. Oraindik lehen Intifada (okupazioaren aurkako matxinada palestinarra) betean geunden. Oso gogorra izan zen egoera horretan Palestinara itzultzea, baina egoerara moldatu eta lan egin behar nuela agindu nion neure buruari”, azaldu du, gogotsu.

215.452 biztanle dituen Hebronan daude hobiratuta juduen aitalehenak eta amalehenak, horien artean Abraham, Islamak ere aitalehen eta profeta garrantzitsutzat duena. Zisjordaniako hiririk handiena da eta duela urte gutxira arte, ekonomia aberatsa zuen. Hemen, okupazio israelarra indar bereziz antzematen da. Israelgo armada hiri zaharraren bihotzean kokatu da, bertan gotortu diren ehunka judutar kolonoak babesteko. Kolono horiek palestinarrak ingurune historikoko zati handi batetik kanporatu dituzte eta, norbaitek aurre eginez gero, eraso egiten diote.



*Gizartea ezagutu nahi baduzu,
emakumeak ezagutu behar dituzu*



Iritsi berria eta oso gaztea izan arren, Maysoun Hebrongo Emakumeentzako Ongintzako Elkarteko zuzendari postuan hasi zen lanean. “Arrotza nintzen eta oso zaila zen integratzea, oso jende itxia delako. Elkartean emakumeengandik asko ikasi nuen. Gizartea ezagutu nahi baduzu, emakumeak ezagutu behar dituzu. Hori funtsezkoa izan zen errespetua eskuratzeko”, komentatu du emakume indartsu eta irmo horrek.

Maysounek Amango (Jordania) eta Beiruteko (Libano) unibertsitateetan ikasi zuen. Azken hori, Libanoko hiriburua, arabiar munduko hiririk irekiena da, ziurrenik. Arabiar Literaturako lizentzia ez ezik, administrazio- eta osasun-alorreko diplomak ere eskuratu zituen. Bakarrik bidaiatzera, lagunekin irtetera eta elkarteetan boluntario aritzera ohituta zegoen.

"Aitak Jordaniako eskolarik onenean ikastea nahi zuen. Semeak nahiz alabak ikastera animatu gintuen", nabarmendu du Maysounek. "Gizon itzela zen, oso irekia. Ahizpa guztioi edonora joaten uzten zigun eta nire boluntario-lanetan bultzatu ninduen. Nire eskubideak aldarrikatzen, indartsua izaten eta beldurrik ez izaten irakatsi zidan", kontatu du. Nolanahi ere, gogoan du aitak ez zuela etxeko lanetan parterik hartzen.

Maysoun hizketan ari den bitartean, mugikorrak askotan jotzen du eta bulegoan lankideen sartu-irtenak etengabeak dira. Wafa Palestinako albiste-agentziako zuzendaria da Hebronon. "Emakume batentzat ez da erraza erabakiak hartzeko gune batean izatea eta gizonezkoei zer egin behar duten esatea; zaila da gizonek hori onartzea. Duela hamar urte Wafako lanpostua eman zidatenean, askok arbuiatu egin ninduten. Geroago jakin nuen baten batzuek ez zietela emazteei esan emakume bat nagusi zutenik", azaldu du, erdi umorez, erdi seriotan. "Pentsaera patriarkala da hori; gizonek pentsatzen dute emakumeek ez dutela erabakietan parterik hartu behar", azpimarratu du.

Maysounek hiru ahizpa eta bi neba ditu, eta goibel da arabiar munduan emakume langileei senarrak baino lehenago etxeratzea agintzen zaielako, janaria prestatu eta seme-alabaz arduratu behar dutelako. "Gizonek soldata ekartzen dute, eta gainerakoa emakumearen kontura dago. Etxeko lanak ez dira inolaz banatzen. Askotan, ohituraren ondorioz emakumea irakaslea edo erizaina baino ezin da izan. Pentsaera hori arbuiatzen dut", dio, indarrez.

Eurenean etxeko lanen pisua bere gain badago ere, Maysounek ziurtatu digu etxeko guztiek hartzen dutela parte. "Auzokideek badakite hiru semeek etxean laguntzen dutela eta ez gara lotsatzen. Hasieran auzokide batzuek zergatik galdetzen zidaten. Orain askok gauza bera egiten dute", azaldu du Maysounek. "Oraindik ere nagusi da etxea emakumeen kontua delako ustea. Halere, gazteen artean aldaketak nabari dira. Gizarte-sareek eta hedabideek ere laguntzen dute. Orain ulertzen dute platerak garbitu eta arropa eskegi dezaketela, eta ez dela ezer gertatzen. Baina den-denak konbentzitu behar ditugu", iritzi dio.

"Gaur egun emakumea ikasia da, bere eskubideak ulertzen ditu, ez du gurasoena bezalako familiarik nahi eta dena partekatu behar dutela ulertarazi nahi dio senarrari. Emakume gazteek Europakoak bezalako senarrak nahi dituzte, baina ia ezinezkoa da", adierazi du. "Familia ona eraikitzeko, gizon eta emakumeek berdintasunean aritu behar dute. Omar eta biok enpresako bazkideen pare jardun genuen, dena partekatzen genuen, dirua ere bai, eta seme-alabak ondo hezi genituen. Horregatik harro nago", baietsi du Maysounek.

"Senarrak nirekin bat egin zuen, bestela ez nuen gaur egun lanbidean nahiz bizitza pertsonalean dudan posizioa lortzerik izango. Eta Hebronon belorik ez janztearabaki nuenean ere, nire iritziarekin bat egin zuen. Gai erlijiosoak Jaungoikoaren eta nire artean gelditzen dira", ziurtatu du. Bigarren Intifadaren ondoren burua estaltzen hasi zen. "Lagun asko hil zituzten. Zapia janztearabaki nuen... musulmana naizelako. Erlijioa eta politika bereizi behar dira", iritzi dio. 17 urteko alabak ez du beloa erabiltzen eta gurasoei ondo iruditzen zaie, "beraren erabakia delako". Hebronon, musulmana izatea eta burua estali gabe edukitzea, aparte-aparteko kasua izaten da.

"Aitak behin batean esan zidan oso gogorra izan behar nuela, seme-alabak eta gure herria ere gogorrak izan zitezen. Hemen emakumeak hazten ditu seme-alabak, eta



horregatik erreparatzen diet amei”, onartu du. Aldi berean, baina, gizarteak emakumeak kontrolatzea kritikatzan du. “Nire karreran aurkitu dudun zailtasunik handiena tradizioa da, haren arabera ez baita begi onez ikusten emakumea politikaria edo feminista izatea, edota hedabideetan lan egitea”, azaldu du.

“Gizarteak arduraz lepo beteko zaitu, eta gero dena egin ahal duzun galdetuko dizu: lan egin eta, aldi berean seme-alabez, senarrak, senideez eta etxeaz arduratzeko gai izango zaren” dio Maysounek. “Ama gure seme-alabekin gelditzen zelako joan ahal izaten nintzen bidaian, eta horri esker egin nuen karrera”, argitu du.

2013az geroztik, Maysoun Hebroneko *Woman Active Society*ko lehendakaria da. Elkarrekin lanbide-heziketa eskaintzen die emakumeei eta 2007an erakunde sortzailetik, UNRWAtik, bereiztea lortu zuen. “Ez baduzu ahalduz ekonomikorik, ezin duzu ezer lortu”, azpimarratu du.

Maysoun ekina eta animatua da, eta haren ustez “emakumeek gizonek baino garestiago ordaintzen dute Israelen okupazioa. Emakumeak ere atxilotu eta kartzelatzen dituzte. Eta senarra atxilotuz gero, ama eta aita bihurtzen dira, seme-alabak bakarrik hezten dituzte, zailtasun ekonomikoak jasan, 20 urtean senarraren zain egon, eta gizarteak behatu eta epaitu egiten ditu. Senarra kartzelan sartzen badute, haren familia osoa izango da zure senarra, auzokide guztiak izango dira zure senarra. Eta galdetu egingo dute: “Zergatik irteten da? Zergatik sartzen da? Zergatik egiten du lan? Zergatik makilatzen da?”, iritzi dio.

Maysoun Miftah (Elkarriketa Globala eta Demokrazia Sustatzeko Palestinar Ekimena) GKEko Hebroneko koordinatzailea ere bada. Indarkeria arbuatzen du, baina onartzen du Israelgo armadak Palestinako lurraldeetan erabiltzen duen indarkeriak edonor jartzen

duela ataka estuan. “Okupazioarekin amaitzeko modua ikusi behar dugu, eta gure seme-alabei esan behar diegu bizirik behar ditugula, ez daitezela joan kontrol militar batera aitzo batekin. Bizitza maitatuz hasi behar dute”, azpimarratu du, palestinarrek Israelen eta Palestinan egiten dituzten edo egiten saiatzen diren erasoak gogoan.

“Nire alabari ez diot utzi (urritik aurrerako) gertakizun horiei buruz telebistan ezer ikusten, inoiz ez dakizulako irudiok zer erreakzio eta zirrara eragin ditzaketen”, adierazi du Masoudek. Okupazioaren amaiera ikustea espero du, “nahiz eta horretarako ehun urtez bizi izan behar”. “Okupazioarekin amaitzeko, lehenago Fatahren eta Hamasen arteko banaketa gainditu behar dugu”, adierazi du.



*Gure lurra, Palestina historikoa, maite dugu,
eta errefuxiatu guztiak ziur gaude itzuli egingo garela*



Bakearen eta Askatasunaren Aldeko Emakumeen Nazioarteko Ligako (*Women's International League for Peace and Freedom WILPF*) kidea den Maysounen ustez, borroka feminista okupazioaren aurkako borrokarekin paraleloan jorratzen da, baina onartzen du Palestinan bigarren borroka horrek duela lehentasuna. Azaldu digu Hebronon emakumeak aktiboki aritzen direla, baina oso gutxi hartzen dutela parte mugimendu feministan.

Kezkatuta esan digu “iraganean Palestinako emakumeen mugimendua orain baino indartsuagoa” zela. “Oso koordinazio gutxi dugu, batzuetan bi elkartek gai berbera jorratzen dute eta ez dira ados jartzen”, onartu du Maysounek, emakumeei komunikazioari, lidergoari, ahalduzeari eta trebezia politikoei buruzko ikastaroak ere ematen dizkienak.

“Noizbehinka, mugimendu feministak ez du lortu emakumeek eskubide gehiago izatea edo ez ditu nahikoa babestu; ez du emakumeren bat babestu posizio indartsua zuelako, inbidiagatik edo ez duelako ulertu”, ziurtatu du Maysounek, talde feministetan emakume gazteak falta direla kritikatu. Era berean, Hamasek eta beste erakunde islamista batzuek talde femeninoak dituztela ohartarazi du, baina ez emakumeen eskubideak defendatzeko.

Maysounen ustez, indar islamisten gorakada oso kaltegarria da. “Ez zaizkie emakumeak axola; emakume taldeak dituzte, baina ez beren eskubideak defendatzeko”. Hebronon bereziki, talde islamista erradikalek (hala nola Hizb ut Tahrir, Askapenaren Alderdia) gorakada handia izan dute, eta horrek kezkatu egiten du.

Ildo beretik, kezkatuta dago palestinar alderdiek ez dituztelako emakumeak bultzatzen. “Behar gaituztenean baino ez dute guregana jotzen. Horregatik eratu nuen emakumeen hautagaitza 2012ko udal hauteskundeetan”, azaldu du. “Irabazteko aukerarik eduki ez arren, emakumeen zerrenda aurkez zitekeela erakutsi nahi nuen”, adierazi du. 11 emakumek osatutako zerrendak ez zuen udal kontseiluan eserlekua lortzeko boto nahikorik lortu. Zinegotzi berrien artean % 20 emakumeak ziren, legeak gutxieneko kuota hori agintzen duelako.

Maysoun kexu da, alderdi batzuek jarritako emakumeek alderdiak dioenari men egiten diotelako, baina emakumeen eskubideen alde lan egin gabe. “Duela 25 urtetik

hona hartzen dut parte mugimendu feministan eta urduri jartzen naiz alderdi batzuek emakumeen alde daudela esaten dutenean, ez delako egia. Organismoetan emakumeek partaidetza izateko gutxieneko kuota edukitzeko asko borrokatu ginen. Alderdiei dagokienez, ezkerreko alderdi batzuek baino ez zuten ezarri”, dio Maysounek.

2005ean, Palestinako Kontseilu Legegileak (Legebiltzarrak) emakumeentzako % 20ko kuota ezarri zuen, eta 2006ko legebiltzarrerako hauteskundeetan erabili zen lehen aldiz (eta behin bakarrik, ez baita beste hauteskunderik egon). Alderdiek kuota hori %30era arte handituko zutela agindu zuten, baina ez zuten egin.

“Nire ametsa: hauteskundeetara aurkeztea eta Palestinako lehendakaria izatea, baina ez da erraza. Gogor ari naiz lanean PAEko kide izateko. Palestinako Kontseilu Legegilean egon nahi nuke, ministroa izan. Halere, zaila da, alderdiek ez dutelako onartzen inor aurkeztea haiek erabakitzen ez badute”, azpimarratu du Maysounek.

Idea argiko emakume horrek dio Al Fatahtik hurbil dagoela, inolako alderditako kidea izan ez arren. Eta erantsi du legebiltzarrerako hauteskundeak deitzen direnean, zerrenda independente paritario bateko burua izango dela: % 50 gizonak izango dira eta % 50, emakumeak, 2012ko esperientziak erakutsi baitzion “oraindik gizarteak ez duela ulertzen zer den emakumeek osatutako zerrenda bati botoa ematea”.



*Emakume batentzat ez da erraza
erabakiak hartzeko gune batean izatea*



Gizarte patriarkala, eta bereziki Palestinakoa, aldarazteko, Maysounen ustez “umeak txikitatit hezi behar dira: irakatsi behar diegu neskatoen eskubide berberak dituztela. Emakumeak soilik heziz gero, ez dugu ezer aldatzerik lortuko; gizonengan zentratu behar dugu”. “Hebroneko hiri zaharrean, okupazioaren pean bizi diren gizonei ikastaroak eman nizkien. Ez zen erraza izan ni entzunaraztea. Batzuek diote emakumeen eskubideen eta legearen bidez kaltetu egin nahi ditugula”, nabarmendu du Maysounek.

Beraren iritzian, emakumeak “hobeto daude Palestinan beste arabiar herrialde batzuetan baino”. Palestinako gizartean izandako aurrerakuntzen artean aipatzen du, besteak beste, Mahmoud Abbas lehendakariak “ohorezko krimenen” zigorrak arintzen zituen lege-araua indargabetu izana. Horrela esaten diote senide batek pertsona bat (normalean emakumea) hiltzen duenean, biktimari familia lotsaraztea egotzita: hitzartutako ezkontzari uko egin diolako, baimendu gabeko maitasun-harremanari eusten diolako, ustez ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak izan dituelako, bortxatu egin dutelako, harreman homosexualak dituelako edo erlijioari uko egin diolako. Halere, oraindik horrelakoak izaten dira, eta GKE askok halako krimenen aurkako berariazko legea eskatzen dute, krimenak egitea eragozteko.

Berak zuzentzen duen irratsaio baten bidez, emakumeen eskubideen inguruan kontzientziarazi nahi du Maysounek, baina onartzen du batzuetan gizarte patriarkalaren aurrean makurtu eta arazoak konpontzeko “klanen sistema onartu” behar izaten duela, “legeriara jo beharrean”.



NADIA ABU NAHLA:

“Mugimendu
feminista programa
argi eta batua
behar dugu”

Isabel Pérezek idatzia

Orain dela hogeita hamabost urte baino gehiago, ‘al Fayr al Adabi’ (Literaturaren egun-sentia) egunkariak, igandero, laguntzailerik gazteenaren zutabea argitaratzen zuen. 13 urte baino eduki ez arren, Nadia Abu Nahlak txundituta uzten zituen irakurleak, Argi Berdea zutabea tarteko.

Nadia familia aberats eta ikasi batean hazi zen. Kide guztiak musulman liberalak ziren eta, horregatik, harritu egin ziren alaba Islamaren bertsio kontserbatzaileari lotzen zitzaiola ikusi zutenean. Garai hartan Nadiak ez zekien ezer ideologiari buruz; bihotzaren aginduei baizik ez zien jarraitzen. Eta horrela jarraitu zuen ‘al Fayr al Adabi’ egunkari ezkertiar eta liberean idazten.

FEMINISMOAREN JATORRIA

Nadia Abu Nahla neskato goiztiarra izan zen: aritu zen esparru guztietan beti gazteena izan zen. 16 urte zituela hasi zen unibertsitatean.

“Unibertsitatean ikaslerik gazteena nintzen, amak, eskola-zuzendaria bera, ez baitzekien nirekin zer egin bera lanean ari zen bitartean –azaldu digu Nadiak, irribarrez–.

Horregatik, lau urte nituela ni eskolan sartzea erabaki zuen. Batxilergoa amaitu nuenean gazteena nintzen, eta unibertsitatea amaitu nuenean berdin”.

Nadiaren ama arabierako irakaslea zen eta aita merkatari diruduna. Bata nahiz bestea familia liberal aberatsekoak ziren.

“Amak asko irakurtzen zuen, oso jantzia zen –jarraitu du kontatzen Nadiak–. Ez aita ez bera ez ziren pertsona erlijiosoak. Amak ez zuen *hijaba* (ilea estaltzen duen belo islami-koa) erabiltzen. Horregatik, asko harritu zen nik *hijaba* erabiltzea erabaki nuenean”.

13 urterekin, Nadia zen eskolan *hijaba* erabiltzen zuen musulman bakarra, eta horrela jarraitu zuen unibertsitateko lehen urteetara arte. Idazten zuenagatik israeldarrek espe-txean sartuko zuten edo ‘islamista erradikala’ bihurtuko zen beldur ziren gurasoak. Amak ez zuen islamistekin esperientzia positiborik izan: Gazako Ilargi Gorriko Elkarte Nagusiko Administrazio Kontseiluko kidea zela, Anaia Musulmanek elkartearen egoitzari eraso eta su eman zioten.

“Belo erabiltzen nuen, bai, emakume fededun baten jokabidea nuen, baina emakume ezkertiar gisa idazten nuen”, baietsi du Nadiak.

Gazako Unibertsitate Islamikoan, Nadiak pentsatzen ez zuen errealitatea aurkitu zuen. Ordurako *betaurreko feministak* erabiltzen hasia zen eta, hartara, harrituta ikusi zuen isla-mistek nola kontrolatzen zituzten neska gazteen mugimenduak campusean, Islamaren bertsio propioa ezarrita.

“Islamistek nola jantzen ginen, zenbat makillaje erabiltzen genuen, nola jokatzeko ge-nuen kontrolatzen zuten”, gogoan du emakume feminista horrek. “Nik ezkertiar baten moduan idazten nuen, baina ez esparru ideologiko edo kontzientzia politiko baten es-parruan: naturalizat jotzen nituen gauzei buruz idazten nuen. Islamistek “Literaturaren egunsentia” egunkarian idazten nuela jakin zutenean, ezkertiarizat jo eta erasotzen hasi ziren, niri buruz txarto esaka”.

BORROKAK ETXEAN ETA ERAKUNDEAN JARRAITZEN DU

Gazako Unibertsitate Islamikoan Historiako ikasketak amaitu ondoren, Nadiak GKE-en ku-deaketari buruzko diploma eskuratu zuen Birzeiteko Unibertsitatean.

“Palestinako Ilargi Gorrian aritu nintzen aldi batez, eta 1995ean, hemen, Emakume Gaien Batzorde Teknikoan (*Women's Affairs Technical Committee*, WATC), hasi nintzen lanean. 30 urte nituen”, gehitu du.

1991n, Madrilgo Konferentzia egin zenean, Yasser Arafatek batzorde tekniko osatutako delegazioa antolatu zuen. Horien artean zegoen emakumeen batzordea. 1993an Osloko Hitzarmenak sinatu zituztenean, batzorde teknikoak Palestinako Agintaritzaren ministe-rio bihurtu ziren, emakume-gaien batzorde teknikoa izan ezik.

“Batzorde horren arduraduna, Soraida Hussein, asko haserretu zen, eta 1994an WATC era-kundea sortu zuen, Palestinako Agintaritzaren erabaki politiko horri aurre eginez”, argitu du.

Emakume Gaien Batzorde Teknikoa erreferentziako erakunde bihurtu zen. Nadia erakunde horren Gazako zerrendako zuzendaria da. Ezkonduta dago eta bi seme eta alaba bat ditu, guztiak ere unibertsitatean ikasten. Senarrak ere etxetik kanpo lan egiten du, baina etxean batez ere Nadia arduratzen da etxeko lanez.



Politikan emakumeek presentzia txikia dute



“Feminista naiz eta, bai, neu arduratzen naiz etxeko lanez. Senarrak lagundu egiten dit. Kanpoan edo bidaian nabilenean, badaki etxeko lanak egin behar dituenen. Halere, astiro egiten ditu, eta ez oso ondo. Denak berdin dio”. Nadiak barrezka esan du hori, baina aldi berean buruaz gaitzespena adierazten. Senarra “ez da kexatzen” baina, aldi berean, ez du etxeko lanen ardura hartzeko interesik. Dena dela, egoera hori positibotzat jo daiteke Gazako gizarte patriarkalean.

Gazako zerrendako emakumearen egoeraz hitz egitean, Nadiak azpimarratzen du blokeoak egoera kaltetu eta inboluzioa ere eragin duela.

“Blokeoa baino lehen, zerrendako mugako pasabideak itxi aurretik, emakumeak merkataritzan aritzen ziren. Gerora, ordea, emakumeek ez zuten tokirik Egiptoko tunelen ezkutu ekonomian –azaldu du Nadiak, Egipto eta Gazako zerrenda lotzen zituzten tunelen harira. 2006 eta 2013 bitartean setiopean zegoen Gazaren ekonomia arintzen lagundu zuten tunel horiek–. Gainera, blokeoak beste arazo bat ere eragin du: gizonek pentsaera itxia mantentzen dute; hemendik irten ezin direnez, ez dute besterik ikusi”.

Hartara, Nadiaren ustez, eraitsi beharreko oztopo ugari ditu Gazak: laneko diskriminazioa, lege zaharretan oinarritutako sistema juridikoa, Palestinako gobernuan emakumeek duten pisu txikia...

GIZONEK EUREN ONERAKO IDATZITAKO LEGEAK

“Esperientziak dio bakarrik Palestinako mugimendu nazionalaren alde lan egiten dugunean, etxera bidaltzen gaituztela”, azpimarratu du Nadiak, kopetilun, Osloko Hitzarmenen ondoren emakumeen batzordeekin gertatutakoa gogoan.

Gazako zerrendako Auzitegi Islamikoetako Kontseilu Goreneko Buruaren erabakia jarri du adibide moduan; izan ere, “etxeko indarkeria” jasaten duen gizonezkoa babestea jasotzen du. Erabaki horren arabera, kasu horietan, senarrak emakumearengandik banatzeko aukera du, ezkontza-kontratuan zehaztutakoa ordaindu behar izan gabe ere.

“Denok gaude etxeko indarkeria ororen aurka, baina erabaki horrek emakumeen esku-bideak arriskuan jar ditzake –iritzi dio Nadiak–. Guk, mugimendu feministak, programa argia eta batua behar dugu, oso garrantzitsua delako Palestinako legedia aldatu nahi badugu. Ez dugu emakumea genero-indarkeriatik babestuko duen inolako legerik”.

Palestinako lege-estatusa ez da berdina Gazako zerrendan, Zisjordanian eta Ekialdeko Jerusalemen. Zerrendan Britainiar Aginte garaiko, Otomandar Inperioko eta Egiptoren



Administrazioaren garaiko agindu eta legeak ezartzen dira. Lege Islamiarrak (*Sharia*) eremu pertsonalean kokatutako hainbat gai arautzen ditu: ezkontza, poligamia, emakumearen obedientzia, senarraren alde bakarreko dibortzioa (*talaq*), ezkontza barneko eztabaidak, dibortzio-ondokoa, seme-alaben zaintza, herentzia...

“Palestinako lehendakariak emakumearen aurkako indarkeria borrokatzeko eta emakumea gobernuan sartzeko plana berretsi zuen. Planak 2017rako iraunaldia zuen, baina epe hori amaitzear dagoen honetan, oraindik ez dago emaitzarik, ez eta genero-gaietarako aurrekonturik ere –kritikatu du Nadiak–. Ekintzak nahi ditugu, ez hitzak”.


Feministak lege-sistema aldatzeko zain dauden bitartean, mendeko adingabeak dituzten familientzako prestazio ekonomikoak gizonarentzat dira, ez emakumearentzat. Eta soldatarik altuenak ere gizonezkoentzat dira.

“Palestinako zerbitzu zibilar buruzko legeak seme-alaba bakoitzeko aparteko saria agintzen du gizonezkoaren soldatan; ez ordea emakumearen soldatan –azaldu du Nadiak–. Gizona hartzen dute beti familia-burutzat. Soldatari dagokionez ere, emakumeek gutxiago kobratzen dute, baita unibertsitate-ikasketak dituztenean ere. Politikan emakumeek presentzia txikia dute, eta posturik garrantzitsuenak gizonezkoentzat dira”.

Nadiaren ustez, filosofia argia da: “Oreka behar da Palestinako herriaren proiektu nazionalaren aldeko borrokaren eta emakumearen aldeko borrokaren artean”.

Palestinaren independentzia eta emakumearen independentzia batera eskuratu nahi lituzke berak, emakumeak israeldarren okupazioaren eta Palestinako sistema patriarkalaren kalteak jasan behar dituelako.

“Feminismoa prozesu bat da eta dimentsio ugari ditu –baietsi du Nadiak–. Hemen, Israelen okupazioa kritikatzeko eta Palestinaren soberania ikusteko ez duen palestinar feminista ez da feminista”.



NAWAL AL-GHSEIN:

“Emakumeak
gizartean duen
egoera hobetzekotan,
independentzia
ekonomikoa lortu
behar du”

Isabel Pérezek idatzia

“Ez da inolaz gelditu behar, aurrera jarraitu behar da, beti aurrera”.

Nawal al-Ghseinen (Um Ibrahim izenez ezagunagoa da) hitzak emakume ekintzaile baten isla argia dira. Izan ere, emakume horrek ez du sekula etsitzen, bidean hamaika oztopo aurkituta ere. Oztopo horietako batzuek ez dute ekonomiarekin zerikusirik; oztopo sozialak eta politikoak ere ugariak dira.

Um Ibrahimek ez du inoiz amore eman. 60 urterekin, Palestinar Emakume Ekintzaileen Foroko (Business Women Forum) Gazako adarreko arduraduna da. Kargu hori ondo merezita dauka, Israelen eraso militar etengabeen pean dagoen eremu batean negozioak irekitzeko jardunean eskuratu duen eskarmentua aintzat hartuta. Beti izan du argi gizonek gizonentzat zuzendutako munduan borrokatzeko, ezinbestekoa dela emakumeen elkartegintza, emakumeek elkarrekin egindako lan nekaezina eta profesionala.

EMAKUMEEN ELKARTEGINTZA OPAROA

Um Ibrahimen familia beduinoa da. Komunitate patriarkala da baina emakumeek diru-iturri propioa izateko eskubidea dute, senarrek kentzeko aukerarik gabe, teoriarik behintzat. Um Ibrahimek kontatu digu amona Palestinako Beer Asaba'a herriko –1948.

urtea eta gero Israelgo Beersheba herri bihurtu zen– kontseilaria izan zela.

Ezkundu ondoren erosahalten propioa izaten jarraitu zuen, apala baina txukuna, harik eta lehen Intifadan Israelgo indarrek senarra atxilotu zuten arte. Um Ibrahim seme-alabekin bakarrik gelditu zen eta egoera ekonomikoak okerrera egin zuen.

“Lau seme-alabei jaten eman behar nien. Hartara, brodatu eta jantzi palestinarren denda bat irekitzea erabaki nuen –azaldu du Um Ibrahimek–. Lehenago ere lanean aritua nintzen. Etxean tatriz (‘brodatu’, arabieraz) tradizional palestinarrek josi eta saldu egiten nituen. Ama jostuna nuen. Beti ikusten nuen Singerrarekin lanean eta harengandik ikasi nuen dakidan guztia”.

1992an, senarra askatu egin zuten eta Um Ibrahimek denda ixtea erabaki zuen. Negozioak bi gauza garrantzitsu eman zizkion: harreman-sare zabala eta emakumeen arteko elkartasunaren kontzeptua. Aurrera egiteko unea zen.

“Dendan aritu nintzen urteetan ikusi nuen emakumeek, eta batez ere gazteenek, norbaiten bultzada behar zutela. Horregatik, denda itxi ondoren, emakumeen elkarte sortu eta handik gutxira hiru solairuko egoitza duen erakunde bihurtua zen, esneki-fabrika baten eta makillaje-denda baten ardura ere bazuena. Gazako zerrendako erdialdeko herrietako auzo guztietan genituen emakume-taldeak”, adierazi du, harro, Um Ibrahimek.

Elikagaiak UNRWako eskoletan banatzen zituzten. Mozkin handiak lortzen zituztenez, Um Ibrahimek beste urrats bat eman eta zerrendako hirurehun umezurtzen beharrianak estaltzea pentsatu zuen. Elkartean parte hartzen zuten emakumeek hainbat elementu eskuratzen zituzten bertatik: ahalduntze ekonomikoa lortzeko aukera; prestakuntza; laguntza humanitarioa, israelarren 2008-2009ko eraso militarren ondoren; eta, batez ere, Um Ibrahimen kontseiluak, emakumeek behar izango duten “bultzadatxo” hori emateko prest baitago beti. Ekintzaileak, bere aldetik, laguntza “itzela” jaso du, berorrek aitortu digun bezala.

“Hainbat esparrutatik lagundu ziguten: gizarteak lagundu zigun, udalek lagundu ziguten... Halere, 2010ean, hamabost urteko ibilbidea egin eta garapen sendoa eskuratu ondoren, Hamasek kolpe itzela eman zigun Gazako zerrendako erakunderik indartsuenei –azaldu du Um Ibrahimek, ordura arte irribarretsu eta umoretsu agertu duen aurpegiera aldatuta–. Elkarte hutsa baino gehiago, emakumeen kooperatiba zena, itxi egin ziguten”.

ERORI ETA BERRIZ ALTATZEA

Um Ibrahimek depresio handia izan zuen. Bizitzako hogeita zortzi urtez lanean aritua zen, ametsa aurrera ateratzeko borrokan, ehun eta berrogeita hamar emakumeren bizitza nabarmen hobetzen.

“Senarrarekin hitz egin nuen, beti gauza guztietan lagundu baitit, eta esan zidan erabakitzen onena erabakita ere, beti ados egongo zela. Aurrera jarraitu nahi nuen. Nola utziko nituen albo batera lankide izan nituen emakume horiek guztiak?”, dio Um Ibrahimek.

Halatan, 2011n brodatu eta jantzi palestinar tradizionalen beste denda bat ireki zuen

Nuseirateko errefuxiatu-zelaian. Denda apala da, ez handiegia, baina Gazako zerrenda osoan erreferentzia da palestinar jantzi tradizionalaren alorrean.

“Orain soilik hamabost emakumeri eman ahal diet lana. Zoritxarrez, Israelek 2007an ezarri zuen blokeoa dela eta, negozioa ez da lehenagokoa. Blokeorik egongo ez balitz, Gazatik kanpoko erakusketa gehiagotan hartuko genuke parte, gehiago salduko genuke, gehiago ekoitzi, gehiagorentzako lana egongo litzateke”, ziurtatu du Um Ibrahimek, berarentzat lan egiten duten bi gazte seinalatuz. Une horretan dendako bezeroak artatzen ari dira. Emakume gazteek aukera hori eskaini dien emakumearekiko miresmena, errespetua, darion irribarra itzuli diote, jakinik eginahalak egiten dituela diru-sarrerak edukitzen jarrai dezaten. Kasu batzuetan, etxeetan sartzen den diru bakarra da.

Um Ibrahimek dio garai oparoak gogoratuta, ezin duela lorik hartu; mugak irekita eta produktua Europara esportatzen zituzten garaiak ziren. Berak ez du inoiz Frantziara edo Ingalaterrara joaterik izan, Palestinako ordezkari gisa erakusketa horietako gonbidatu berezia izan arren. Halere, ez du itxaropena galtzen.

“Erronka etengabea da. Ni indartsu nago eta, horrela, inguruan dudan jendea ere indartsu dago –onartzen du emakume ekintzaileak–. Gainera, gure brodatuek geure nortasunari, palestinar nortasunari, eusten laguntzen diote. Sendabide psikologikoa ere bada: lanean kontzentratzen gara eta gertatzen zaizkigun gauza guztiak gogotik kanporatzen ditugu”.

EMAKUME EKOIZLEAK GIZARTE KONTSERBATZAILEAN

Um Ibrahimek pentsatzen du eremu tradizional eta patriarkal batean (Gaza halakoxea baita) emakumeak aurrera egitekotan, senarraren laguntza ezinbestekoa dela. Lehenengo erronka zera da: senarra konbentzitzea emaztea ez dela uneoro etxeko lanetan arituko.

“Senarrak beti lagundu dit, lanerako ideiak proposatu dizkit eta etxeko lan batzuk partekatu ere egin ditu”, onartu du emakumeak, bere “suerteaz” jakitun, senarra “pertsona ikasia” delako eta malgutasun puntu bat onartzen duelako.

Halere, senarraren jarrera onbera izanda ere, emakume ekintzaile horrek ez du inoiz lortu bere bizitzaren esparru guztiak, bizitza publikoa, etxekoa, familiakoa eta pribatua, uztartzea.

“Etxeko lana beti da gailak bat da niretzat –azaldu du Um Ibrahimek–. Seme-alabak jaio zirenean neuk egiten nuen dena, ogi-orea prestatu eta gauez sukaldea egiten nuen. Senarra atxilotu zutenean, seme-alabei irakatsi nien bakoitzak etxeko lanen bat egin behar zuela, baina halere ez nuen inoiz niretzat, neure burua zaintzeko, astirik izaten. Lo nahikoa ere ez nuen egiten”.

Emakume ekintzailearen bigarren erronka gizartea da. Um Ibrahimek gizarte-sare propioa eraiki du, beraren esanetan “gizartea errespetatuz, baina baita tinko jokatzuz, errespetatua izateko”. Emakumeek Gazako bizitza publikoan duten presentzia txikia dela eta, ez zen kontu erraza izan. Alabaina berak abantaila bat aprobetxatu zuen: bere familiaren eta senarraren izen ona.

“Emakume aktiboa nintzen, jendeak nire familia ezagutzen zuen. Arazoren bat nuenean



edo atzera botatzen nindutenean, bilera bat antolatzen nuen emakume eta gizonekin”, argitu ditu Um Ibrahimek.

Palestinako gizarteko ohitura eta tradizioez baliatuz, Um Ibrahimek oztopo guztiak gainditu zituen. Denbora joan ahala, gainera, seme-alabak hazi eta, azkenean, ez zioten hainbeste denbora hartzen. Um Ibrahimek pozik hitz egiten digu alabarik gazteenari buruz:

“Oso argia da –baietsi du, irribarretsu–. Palestinako unibertsitate batean Irakasle Eskola amaitu duen ikaslerik gazteena da. Orain Zuzenbidea ikasten ari da. Frantsesez eta ingelesez hitz egiten du eta noizbehinka GKE batean lan egiten du, itzulpenak egiten”.

Um Ibrahim alabarentzako eredia da, baina baita laguntza eske hurbiltzen zaizkion emakume gazte askorentzat ere.

“Laguntza eskatzen didatenean, zera esaten diet: Begiratu, hemen duzue jostorratza. Hartu tresnak eta lana eskaintzen dizuet. Gazte horiek nik ezagutu nuen sufrikarioa ez ezagutzea da niretzat garrantzitsuen”.

Hain lan gutxi dagoen honetan, gizon askok iritzia aldatu eta orain onartu egiten dute emazteak edo alabak etxetik kanpo lan egitea, familiari diruz laguntzeko. Halere, gizartean jarrera aldatu bada ere, oraindik badago familia-kontserbadurismoa eta emakumeen gaineko kontrola.

“90eko hamarkadatik hona emakumeen egoera hobetu egin da, baina ez hainbeste ere – iritzi dio Um Ibrahimek–. Lehen ez zuten onartzen emakumeek lan egitea eta beti galdetzen zizuten nora zindoazen, zer ordutan iritsiko zinen etxera. Orain geroz eta neska gehiago joaten dira unibertsitatera, etxetik irteten dira, lan egiten dute... baina ez da nahikoa: oraindik ere, gudan eragiten duten gauza negatiboak positiboak baino gehiago dira”.

Um Ibrahimek argi utzi du Gazako gizartean emakumeak aurrera egiteko, errespetua irabazi eta ikusgarriagoak izateko, lana dela bidea.

“Emakumeak gizartean duen egoera hobetzekotan, independentzia ekonomikoa lortu behar duela uste dut. Ekoizlea izan behar du, ez kontsumitzaile hutsa”, ziurtatu du Um Ibrahimek.



SAMA AWEIDAH:

“Gure amonak
gaur egungo amek
baino pentsaera
irekiagoa zuen”

Ana Albak idatzia

Sama Aweidahk gizona izan behar zuen. Horixe espero zuen bere aitak, gogo biziz, bi alaba izan ondoren. Osama izena emango zion mutikoa nahi zuen, baina emazteak hirugarren aldiz neskato bat munduratu zuen. Etsita zegoen, ez zuen alaba ikusi ere egin nahi, eta amak konbentzitu egin behar izan zuen. Samari begiratu eta umetxoak irribarre egin zuenean, aldiz, dena aldatu zen. Alaba arbuiatu izanaz damututa, seme-alaba gehiagorik ez zuela izango agindu zuen, harrezkero ez zuelako mutikorik nahi. Neskatoari Osama izena ematea ezinezkoa zenez, O hizkia kendu eta Sama izena ematea erabaki zuten.

“Aitak hirurok mimatu gintuen, etxeko emakumeen defendatzaile bihurtu zen”, azaldu du duela 57 urte Jerusalemen jaio tako Samak. Astiro hitz egiten du, boza altxatu gabe. Itxuraz makala badirudi ere, borroka-sen sendo eta sakona du, gazte-gaztetatik ibili baita mugimendu politiko eta feministetan, egoera pertsonal gogorrak indartuta.

Emakumeen Ikerketetarako Zentroko (*Women's Studies Centre, WSC*) zuzendari nagusia da. Zentroa GKE sekularra eta feminista da, emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren alde aritzen dena. WSC 1989an sortu zen Jerusalemen, baina gaur egun Zisjordaniako hainbat herritan ere badu presentzia, hala nola Nablusen, Belenen eta Hebronen. Emakumeak ahalduntzeko eta genero-printzipioa instituzionalizatzeko

programak ezartzeaz gain, Palestinako egitura sozial, ekonomiko, politiko eta legalak erreformatzeko ere borrokatzen da.



Israeldarren okupazioak emakumeengan eragin handiagoa du



Urteak daramatza “Emakumeak, okupazioa, galera” programa jorratzen, “Israeldarren okupazioak emakumeengan eragin handiagoa duelako”. “Semeak hiltzen badizkiete, eurei egozten diete errua, haietaz arduratzen zirelako; israeldarrek etxea eraisten badiete, etxeko guztiez arduratu behar dute, eta aurri horretan familia kudeatu. Gai politikoek eta generoari lotutakoek bat egiten dute”, azpimarratu du. Gainera, “lehentasuna kausa nazionalaren alde borrokatzea denez, gizarte-arauak aldatzeko borroka bigarren mailan kokatzen da”, ohartarazi du.

Palestinan zaila da emakumeek euren eskubideen alde eta Palestinaren alde egiten duten borroka bereiztea. “1948ko gerraren ondoren, honela hasi zen mugimendu feminista: emakumeen zati bat kausa nazionallean inplikaturik zegoen, eta bizitza politikoa zuzentzen zuten. Beste emakume multzo bat errefuxiatuen aldeko ongintzako mugimenduan ari zen”, azaldu digu Samak, Palestina Askatzeko Fronte Demokratikoko (PAFD) militantea izan zela oroituta.

1978an, erakunde horretako emakumeek komunitate-batzorde femeninoen sorrera bultzatu zuten, genero-gaietan zentratu eta borroka feminista eta kausa nazionala orekatzeko asmoz. Lehen batzordea unitarioa izan zen, lau alderditako ordezkariak bilduta: Al Fatahkoak, Palestina Askatzeko Herri Frontekoak (PAHF), PAFDkoak eta Alderdi Komunistakoak. Lehen Intifada izan zenean, emakumeak buru-belarri aritu ziren kausa nazionalaren alde.

“Emakumeak oso aktiboak izan ginen lehen Intifadan: protestaldietan egoten ginen, ekitaldiak antolatzen genituen, gizonezkoak babesten aritzen ginen. Emakumeon partaidetza garrantzitsua zenez, alderdiek Emakumeen Goi Kontseilua eratu zuten, Intifadaren lidergo bateratuaren eskuineko eskua”, kontatu du Samak.

“Buruzagi asko atxilotu zituzten, hainbeste ezen aldi batez emakumeen kontseiluak zuzendu zuen Intifada”, oroitu du. “Oraindik gogoan dut garai hartako sentimendua; pentsatzen genuen askatasuna, okupazioaren amaiera lortuko genuela. Izan ere, ia-ia lortu ere egin genuen, baina Osloko hitzarmenak kontrakoa lortu zuten eta batasuna galdu genuen”, deitoratzen du.

Lehen Intifadan genero-gaiak baztertuta gelditu zirenez, feminista batzuek WSC eta Nabluseko eta Gazako emakume-zentroak sortzeko premia ikusi zuten, Palestinar Emakumeen Batasun Orokorretik kanpo. Esan behar, ordea, WSCko kide asko organismo horretako kideak ere badirela, maila pertsonalean.

1995ean Pekinen egin zuten Emakumeen Munduko Konferentziaren ondoren, Palestinar Emakumeen Estrategia zehaztu zen, baina inor ez zen hori ezartzeaz

arduratu. Gauzak horrela, idatzitakoa ez zen programatan gauzatu eta orain hori lortzeko borrokatzen gara”, azaldu du Samak, baina onartu egiten du Palestinako emakume gehienak mugimendu feministatik urrun sentitzen direla.

Samak uste du Palestinako Kontseilu Legegilean (Legebiltzarrean) eta tokiko kontseiluetan emakumeen % 20ko kuota ezarri izana aurrerakuntza dela, nahiz eta aitortu erakunde batzuek “egoki prestatu gabeko emakumeak” izendatzen dituztela, “aginduak betetzearren”. “Alderdi islamisten kasuan, emakume ordezkarietako batzuk emakumeen eskubideen aurka egiten dute”, adierazi du.

Samaren iritzian, politikariek ez dituzte seriotan hartzen generoari lotutako gaiak eta, horregatik, oso alderdi gutxik ezartzen dituzte kuotak euren zuzendaritza-organoetan. “Gizarteak gizonaren nahiz emakumearen alde, kuotarik gabe, bozkatzeko prest egoteko lan egin behar dugu”, dio.

Mugimendu feministaren presioaren ondorioz, Palestinako lehendakari Mahmoud Abbasek indargabetu egin zituen “ohorezko krimenen” egileei zigorrak arintzen zizkieten lege-arauak. Horrela esaten diote senide batek pertsona bat (normalean emakumea) hiltzen duenean, biktimari familia lotsaraztea egotzita: hitzartutako ezkontzari uko egin diolako, baimendu gabeko maitasun-harremanari eusten diolako, ustez ezkontzatik kanpoko sexu-harremanak izan dituelako, bortxatu egin dutelako, harreman homosexualak dituelako edo erlijioari uko egin diolako. Legea aldatu egin duten arren, Palestinan oraindik orain halako asko izaten dira eta GKE batzuk ‘ohorezko krimenen’ aurkako berariazko legeria eskatzen dute, krimen horiek egitea eragozteko.

“Gizartean ez dugu asko aurreratu. Gizartea kontzientziarazteko lan egiten dugun bitartean, beste batzuek kontrakoa aldarrikatzen dute. Bi emakume mugimendu paralelo daude: sekularra eta islamista”, azaldu du. “Islamistek erlijioaren eta kulturaren defendatzailetzat agertzeko erabiltzen dute emakumeen gaia. Hala, egoera aldatu nahi dugunoi mendebaldeko ideien bidez gizartea kaltetzea egozten digute”, azaldu du. “Inguruko herrialdeetako egoerak ere ez digu onik egiten, Estatu Islamikoa, Al Nusra Frontea eta Anaia Musulmanak gora datozela”, erantsi du Samak.

“70eko hamarkadako feminista batzuek orain beloa jartzen dute, ezin dietelako islamisten erasoei aurre egin. Hemengo iman batek ostiraleko sermoian emakumeak euren izen-abizenez aipatzen zituen, eta beraiek hiltzeko dei ozena egiten zuen. Horietako bat neu nintzen. Orduko hartan Arafatek babestu egin gintuen, baina gaur egun inork ezin du gure segurtasuna bermatu, islamistek botere politikoa eta soziala baitute”, ohartarazi du.

Gogoan du 2007ko martxoan Palestinako Batasuneko gobernu laburra osatu zenean, Hamasek Emakumeen Gaien zorroa hartu zuela. Sama Palestinako Agintaritza Nazionaleko ministerio horretako aholkularitza-batzordeko kidea zen. “Hamasekoek ez zuten nirekin lanik egin nahi, ez nuelako beloa erabiltzen. Gizon bati sekula ez liokete halakorik egotziko. Askoz ere errazagoa da emakume bati erasotzea”, azpimarratu du.

Samak hasperen batez aipatu du 70eko hamarkadan emakumeentzat gauzak hobeto zeudela, “urrezkoa garaia izan ziren”. “Ramallahn ikasi nuen eskolaren aurretik igarotzen

naizenean, ia neskato gehienek beloa darabiltela ikusten dut. Ni joaten nintzenean, bi neskatok baino ez zuten janzen”.

Sama musulmana bada ere, ez du burua estaltzen. Hautu horrek hainbat zailtasun eragiten dizkio, baina, halere, dibortziatuta egoteak dakarzkio arazo handienak. “Auzotar askok ez naute agurtu ere egiten, dibortziatuta egotea eta emagaldua izatea parekoak direlakoan”. Sama 2002an banatu zen, lau seme-alabetatik bi (alaba bat eta hiru seme ditu) adingabeak zirela.



70eko hamarkadako feminista batzuek orain beloa jartzen dute, ezin dietelako islamisten erasoei aurre egin



“Unibertsitatean ikasten nuenean ezkondu nintzen. Arazo ekonomikoak nituen, amak familia-etxea utzi zuen eta ez nekien nora joan. Hala, ondo ezagutzen ez nuen gizon batekin ezkondu nintzen. Nire kargu hartuko zuen gizon bat behar nuen. 20 urtez egon ginen ezkondata, eta arazoz betetako bizimodua izan zen. Ez zitzaion egiten nuena gustatzen, baina beti jarraitu nuen lanean eta politikan eta feminismoan jarduten”, baietsi du.

Dibortzioak sufrimendu asko eragin zizkion. Senarrak Samaren izen ona zikintzeko kanpaina jarri zuen abian, eta Samak mugimendu feministaren babesak eskatu behar izan zuen. Palestinako eta arabiar munduko emakume-elkarteen babesak jaso zuen, kontuan hartuta AISHAko (Arabiar Emakumeen Forumak) koordinatzailea, Arabiar Emakumeen Epaitegiren sortzaileetako bat eta Tuniziako Giza Eskubideen Arabiar Institutuko kidea zela.

“Niretzat pozgarria izan zen arabiar munduko hainbeste jenderen laguntza jasotzea, baina, aldi berean, mingarria izan zen Palestinako feminista batzuen babesik ez jasotzea. Barne-zatiketaren eta inbidien ondorioz izan zelakoan nago”, adierazi du.

“Arlo politikoan oso indartsua nintzen, baina arlo sozialean ez. Senarrak esaten zidan edozer egin zezakeela nire aurka, ez neukalako familian ni defendatuko ninduen gizonik. Palestinako gizartean, gizonezko seniderik ez baduzu, ahultzat jotzen zaituzte”, baietsi du, haserre. Semeak helduak badira, gizartearen aurrean babestuta zaude.

Alaba Austriako gizon batekin ezkondu zen. Bera musulmana zen eta gizona kristaua, baina Samak babestu egin zuen. Urte batzuen buruan dibortziatu egin ziren, eta orain familia tradizional bateko palestinarr batekin ezkonduko da. “Ez nago gustura, sinesten ez dutudan konbentzio eta printzipioak onartu behar ditudalako, baina nire alaba babestu nahi dut eta onartu egiten ditut”, azaldu du, goibel.

Samak azpimarratu du askotan emakumeak izaten direla alabak gizartearen aginduetara makur daitezkeen gehien presionatzen dutenak, “badakitelako zer dakarren tradizioen aurka egiteak, eta, alabak desberdinak badira, euren amei egozten dietelako errua”.

Samaren iritzian, aitaren aldetik amonak gaur egungo amek baino pentsaera irekiagoa zeukan. “Lehengusu batek amonari esan zion ni igerilekura joaten nintzela eta mundu guztiaren aurrean bainujantzia agertzen nintzela. Amonak galdetu zidan ea egia zen.

Baietz erantzun nion, eta orduan galdetu zidan: “Ziur zaude ura garbia dela?”. Baietz erantzun nion eta orduan zera esan zidan: “Orduan ederto, horixe jakin nahi nuen. Bainujantziaren kontuak bost axola zion”, azaldu du Samak, eta berak ere pentsaera irekiz hezi ditu seme-alabak.

Emakume nekaezin horrek uste du pentsaera aldaraztekotan, hezkuntza funtsezkoa dela. Zuzentzen duen zentroak asko azpimarratzen du neska-mutilak genero-berdintasunean hezi behar direla. Askotan, zeregin horretan irakasle, guraso eta instituzioek aurre egiten diote, ikuspegi hori moralitatearen eta Palestinako gizartearen printzipioen aurka dagoela uste baitute”.

“Seme gazteenak 24 urte ditu, Austrian ikasten du eta emakume asko baino feministagoa da. Ez du gurea bezalako gizarte batean bizi nahi. Jerusalemenera oporretan datorrenean, etxea garbitu eta kozinatu egiten duenez, lagun batzuek homosexuala ote den galdetzen diote”, azaldu du Samak.

Mutilak Jerusalemdik kanpo hiru urte baino gehiago ematen baditu, bertan bizi izateko eskubidea gal lezake. Izan ere, 1967an Israelek Jerusalem okupatu eta 1980an bereganatu egin zuen. Horrenbestez, Jerusalemgo palestinarrek bizileku-baimena dute, baina Israelek baimen hori kentzen diete atzerrian hiru urte baino luzarago bizi izanez gero.

Umea zela, Sama Jordanian bizi izan zen. Aita hil zenean 11 urte zituen eta ahizpekin eta amarekin Jerusalemera itzuli zen, amaren aldetiko amonaren etxera, azken horrek familia biltzeko baimena lortu baitzuen. Hil baino lehenago aita ere eskatu zuen, baina Israelek ukatu egin zion. “Aitak bihotzekoa izan zuen Palestinara itzultzerik ez zuela jakin zuenean”, baietsi zuen Samak.

Hilabete batzuk lehenago, berak, ahizpa batek eta aita familia-etxea bisitatu zuten Katamon auzoan, Mendebaldeko Jerusalemen, Israelgo aldean. 1948an, *Nakban* (“hondamendia”, arabieraz), Samaren aitaren familiak ihes egin behar izan zuen. Izan ere, Israel sortu zenean, *Nakba* delakoan, 700.000 palestinarrek baino gehiagok euren lurrak utzi behar izan zituzten, behartuta.

“Aitak familia-etxeko txirrina jo zuen eta emakume israeldar batek ireki zion atea. Elkar ezagutzen zuten. 1948an auzokidea zen, elkarrekin jolasten zuten. Etxean sartzera gonbidatu eta kafea eskaini zigun. Aita atsekabetuta zegoen, bere etxean bertan gonbidatua izan behar zuelako, eta guztiz jota auzokideek etxea kendu ziotelako”, kontatu du Samak.

Alabek unibertsitatean ikastea nahi zuen aita, baina hil zenean, alargunak eta alabek amonaren etxean babestu behar izan zuten, ez zutelako inolako diru-sarrerarik. Alaben bizitzari lotutako gai guztiak osaba-izekoek erabakitzen zituzten, hilabeteko saria ematen ziotelako. “Erabaki zuten ez ginela unibertsitatera joango, gizon aberatsekin ezkonduko ginela” oroitu du.

“Amak gelditzen zitzaion apurra saldu zuen ahizpa nagusia unibertsitatera joateko, baina ez zuen lortu. Gure bigarren ahizpak bigarren mailako hezkuntza amaitu zuenean lanean hasi behar izan zuen, eta nik izan nuen suerterik handiena, bi ahizpek



ikasten lagundu zidatelako”, kontatu du Samak. Ikasten zuen bitartean, ikaskideei eskolak eman eta orduka telefonista aritu zen hotel batean.

Unibertsitate-ikasketak Jordanian hasi zituen, baina 1978an Egiptok eta Israelek sinatu zituzten Camp Davideko hitzarmenen aurkako protestetan parte hartu zuenez, kanporatu egin zuten. Hala, Birzeiteko Unibertsitatean (Zisjordania) onartu zuten, eta Enpresa Administrazioiko lizentzia eskuratu zuen.

Samak genero-gaien inguruko eskolak eta hitzaldiak eman eta artikulua idazten ditu. Halere, haurrentzako ipuinak idaztea gustatzen zaio gehien. “Idazle-lanetan eman nahi nuke denbora osoa, nola eta non bizi izango naizen arduratu behar izan gabe”, azaldu du Samak, eta bere kabuz aritzeko gaitasunik gabeko pertsona zahar bihurtzeak izutzen duela aitortu du:

“Beste hogeitaz bizi nahi dut, ez gehiago; ez dut mendeko izan nahi”. Begirada malenkoniatsuarekin iragartzen du: “Egunen batean Israelen okupazioa amaitu egingo da, baina, arabiar munduan gertatzen ari denarekin, ez dut uste nik ikusiko dudarik. Gaur egun Palestina ez da ezeren erdigune”.

Jerusalemgo bizileku-baimena, berarena eta seme-alabena, “salbatu” egingo duela pentsatzen du, eta palestinarrek eskubideak berreskuratuko dituzten eguna, Gazatik aske irten eta sartuko diren eguna, Jerusalemen legez etxea edukitzeko eskubidea izango duten eguna ikusi nahi du. Halere, ezkorra da eta bere herriaren bizitza “narriatzen” ari dela azpimarratu du. Bere ilusiorik handiena: 9 urteko Sama biloba, udaldiak berarekin ematen dituen, eta bidean dagoen beste biloba bat. Hori ere neskaxoa izatea nahi du, errainak ere halaxe nahi duelako.



SAMAH SALAIME:

“Emakumeak
gara aldaketaren
eragile
nagusiak”

Beatriz Lecumberrik idatzia

“Emakumea naiz, palestinarra, musulmana, Israelgo hiritarra, eta horrekin guztiarekin bakean bizi naiz”. Samah Salaimen ez du zalantzarik bere burua definitzean, 40 urteko bizitzan bere nortasunari buruzko galdera askori erantzun izan behar balio bezala.

Irribarretsu eta ‘marhab’ (kaixo, arabieraz) alai batekin hartzen ditu ‘Naam’ elkartearen egoitzan sartzen diren neskak. Elkartea duela sei urte sortu zen Israelgo Lod herrian, herritarren % 25 inguru palestinarrek diren inguruan. Herri horretan, emakumeak “biktima bikoitzak izaten dira: diskriminazioaren biktima eta pobreziaaren biktima: lehenengo palestinarrek direlako, eta bigarrenik emakumeak direlako”, azaldu du Samahk.

Elkartearen egoitzan dauden emakume gazteak, batzuk adingabeak, Ramat Skhol auzoan bizi dira. Lod herriko auzo zaila da: tradizioak eta erlijioaren pisua nonahi, krimen-tasa gainerako Israelen baino 10 aldiz handiagoa, eta emakumeen arazo sozialak, tratu txarrak eta bazterkeria, ohikoak. Jendartean benetan txertatuta egongo den erakundea sortzeko leku aproposa zen: ateak beti irekita izango dituen lekua, eta etorri berriari tea mendarekin eskainiko dion gunea.

“Naam”bai’ da, arabieraz. Gainera, guztientzako tokia dagoela ere esan nahi du: mundu guztia ongietorria dela eta arazoak entzuteko prest gaudela, inor kanpoan utzi edo epaitu gabe. Horixe zen nire ametsa eta 15 urtean emakumeekin lanean aritu ondoren, nire erakundea sortzea erabaki nuen”, azaldu du Samahk.

Neskak, gehienak *hijaba* (beloa) jantzita, gaileta, freskagarri eta patata frijitu batzuen inguruan biltzen dira, etxeko arazoez, sexualitateaz eta euren ikasketa-proiektuez hitz egiteko. Arratsalde horretan Dora da koordinatzailea. 22 urteko palestinar emakume hori 16 urterekin heldu zen elkartera, etxean gehiegikeriak jasan ondoren. “Eskola amaitu eta goi-ikasketetan hasi da, haren prestakuntza finantzatzen duen fundazio bati esker. Naam-en zutabeetako bat bihurtu da. Oso harro nago”, baietsi du Samahk.



*Emakumea naiz, palestinarra, musulmana, Israelgo hiritarra,
eta horrekin guztiarekin bakean bizi naiz*



Israelen, arabiar biztanleak % 20 dira eta Naam elkarteko sortzailea eta zuzendaria horietako bat da. 1948an Israelgo Estatua sortu zenean bertan gelditu ziren palestinarrek osatzen dute gutxiengo hori. Samahren familia Al Shajarakoa da. Nazaretetik hurbil dago, iparraldean, baina herria suntsitu aurretik ihes egin behar izan zuten eta Samah inguruko beste herrixka batean, Turaanen, jaio zen. Munduko leku askotan barreiatutako senideak ditu. Horietako batzuk azken urteetan egin dute ihes Yarmouketik, Damaskon (Siria) dagoen palestinar errefuxiatuen zelaitik, eta Europara iristea lortu dute. Errefuxiatu izaerak markatu egin du eta urte luzez bere etxean bertan atzerritar sentitu da. Elkarriketan, Samahk giltza bat darabil etengabe eskuetan; Palestinako errefuxiatu askok ikurtzat darabiltzaten itzuleraren giltza da.

Gaur egun Naamek hiru lagun ditu soldatapean, eta beste 40 boluntario gisa. Batez ere Dafna Fundek finantzatzen du. Israelgo fundazio feminista eta independente hori 2003an sortu zen, eta batez ere Israelgo eta Estatu Batuetako hainbat pertsona eta instituzioren dohaintzak jasotzen ditu.

“Etxean indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten palestinar emakumeekin eta paperak eguneratuta ez dituzten emakumeekin egiten dugu lan. Bigarren horien kasuan, legez existitzen ez direnez, kanporatuak izateko arriskua dute. Horretaz gain, eskola utzi eta 14 edo 15 urterekin ezkonarazten dituzten neskatoen gaiak edota esklabotza-egoeran lanean ari direnenak ere tratatzen ditugu. Egun berean sexu-gehiegikeria jasan duen biktimari arreta psikologikoa eman eta ama bati semea eskolan matrikulatzen lagun diezaiokegu, ez dakielako nola egin. Eta, horretaz guztiaz gain, gazteen prebentzioa ere azpimarratzen dugu, arratsalde honetako bileran bezala”, azaldu digu.

Naamen bulegoko hormetan Samahren garaipenetako batzuk agertzen dira. Guztiek izen-abizenak dituzte. “Hau familian eskolara joan den lehenengoa da; honek aitaren sexu-gehiegikeriak jasan zituen baina orain independentea da, lan egin eta gidatu ere egiten du; emakume hau dagoeneko hil den palestinar baten bigarren emaztea da. Ez du paperik eta baten baino gehiagotan kanporatua izateko arriskuan egon da, baina seme-alabak israeldarrak dira eta bertan gelditzen lagundu diogu”, azaldu digu, horma

betetzen duten argazki batzuk seinalatzen dituen bitartean. “Emakume horiengan sinesten dut, gizaki gisa dituzten aukeretan eta arrakasta lortzeko gaitasunean sinesten dut”, ziurtatu du, erabat konbentzita.

Baina Samahk hainbat estatistika ere baditu buruan, eta egiteko duen guztia gogoratzen du: azken hamarkadan, Loden eta ondoko Ramlan 37 palestinar emakume hil dituzte, batzuetan senideek eta beste batzuetan ezezagunek, eta hilketa horietatik % 80 argitu gabe dago. Loden, palestinar nesken % 14 baino ez da joaten unibertsitatera. Eta ehunekoak aipatzen jarraitu du.

“Halere, gauzak hobetzen ari dira. Auzoan konfiantza lortzea kostatu zitzaigun. Jende askori gustatzen ez zaizkion gauzak egin izan ditugu, hala nola emakume bat indarkeriaz hiltzen duten bakoitzean, kalera manifestatzera irtetea. Alabaina, joan den azaroan egin genuen azken protesta-ekintzara ehunka lagun etorri ziren”, adierazi du pozik.



Aldaketaren motorra, Israelgo palestinar emakumeentzako iraultza handia, hezkuntzaren eskutik etorriko da



Samahk ez du zalantzarik: aldaketaren motorra, Israelgo palestinar emakumeentzako iraultza handia, hezkuntzaren eskutik etorriko da, berak eskainiko baitizkie bizitzaren jabetza eskuratzeko eta ezkondu eta amak izateaz gain, beste bide batzuk ere jorratzeko aukera. Ahots gozo baina tinkoz hitz egiten du, Israelgo Legebiltzarrean krimenak eta gehiegikeriak salatzen, Israelen bizi diren palestinar emakumeen eskubide-berdintasuna eskatzeko erabiltzen zuen ahots hori bera. Edota etxeren batera joan eta alaba eskolara joaten jarraitzearen komenigarritasunaz konbentziazteko erabiltzen duen horixe bera.

Gizarte-laguntzaile izateko ikasketak eta, ondoren, Zuzenbidea eta Kriminologia ikasi zuenez geroztik, emakume askorekin egin du lan. Jerusalemgo Hiri Zaharrean hasi zen, israeldarrek eta palestinarrek Osloko bake-hitza (1993) sinatu ondoren. Garai hartan, gizartean ilusio handia ez ezik, proiektuak finantzatzeko dirua ere bazegoen.

“Hiri Zaharrera heldu nintzenean bizitzako kolperik handiena hartu nuen. Oinez nire unibertsitatetik 15 minutura geunden, eta ez nuen ezertxo ere ezagutzen. Hutsetik hasi behar izan nuen. Hiri Zaharra oso tradizionala da, eta ikuspuntu politikitik, indartsua. Tentsio horren ondorioz, gehiegikeria- eta indarkeria-kasu asko agertzen dira. Neskatoek asko jasan behar izaten dute etxe txiki eta txiro horietan... Hura ikusi ondoren, ez neukan atzera egiterik”, gogoan du.

Hiri Zaharrean eta Ekialdeko Jerusalemgo auzoetan urte batzuk lanean eman ondoren, Israelgo erdialdean dagoen eremura etorri zen, eta Lodeko eta Rambleko Udalen menpeko emakume-zentroetan hasi zen lanean.

“Egun batean, 2008an, dei bat jaso nuen, hezkuntzari gehiago erreparatzea eta krimenei eta genero-indarkeriari kasu gutxiago egitea iradokiz. Ezin nuen halakorik egin. Pentsatu nuen ordura arte aritu nintzen erakundeetan ez nuela nik nahi nuena egiteko aukerarik eta, horregatik, erakunde horiek utzi eta nire elkarte sortzea erabaki nuela”.



Samahk feministatzat jotzen du bere burua, eta bere lanaren eta borrokaren bidez, “gizateriaren erdia, emakumeak, askatzeko borrokarik luzeenean” parte hartzen duela pentsatzen du, “gizateriaren gainerako erdiaren, gizonen, aurrean euren eskubideak aldarrikatzen”.

“Hazia ereiten nabilela esaten diot neure buruari. Herri bakoitzean emakumeen erakunde batek egon beharko luke, halakoren bat sortzen den bakoitzean zerbait gertatzen da eta. Aurretiaz hitz egiten ez zituzten gaiez mintzatzen dira, errealitate batzuen kontzientzia barneratzen dute, eta dena aldatzen da. Emakumeak gara aldaketaren eragile nagusiak”, baietsi du.

Halere, beraren iritzian palestinar feminismoak 30 urteko atzerapena du, batez ere arabiar-israeldar komunitateetan. “Ez gara ohiko lekuetan bizi. Hemen, gatazkak dena kontrolatu eta kutsatzen du. Lehenengo eta behin herrialdearen, bakearen, lurraren, gure etxearen alde borrokatzen gara eta gero dator, askoz ere atzerago, borroka feminista”, laburtu du.

Samahren ustez feminismoak indar handiagoa du Zisjordanian eta Gazan, eta emakumeek “duela hamarkada askotatik hona hartzen dute parte erronka eta eraikuntza nazionallean”. “Okupazioaren pean bizi dira baina, adibidez, duela hamar urte baino

emakume epaile gehiago dituzte. Israelen ez dago palestinar emakume epaile bakar bat ere”, baietsi du.

Nekaezina, argia, beti baikor eta umore onez, Samahk, berrikitan, “bizirauteko” gidaliburu txiki bat idatzi zuen, Israelen bizi diren palestinarrei zuzendua. Liburua are beharrezkoagoa da tentsioa eta indarkeria areagotu diren garai honetan, arabiar-israeldarrek mesprezua eta erasoak jasateko inoiz baino arrisku handia dutenean.



*Herri bakoitzean emakumeen erakunde batek egon
beharko luke, halakoren bat sortzen den bakoitzean
zerbait gertatzen da eta*



Azenturik gabe hitz egin dezake hebreeraz eta “ia oharkabeen pasatzeko” aukera ere ba omen du, baina onartzen du garraio publikoetan dagoenean, nahiago duela telefonoz arabieraz ez egitea, eta ahal bada ez dela zenbait lekutara, adibidez merkataritza-guneetara, joaten. “Horretan ere matxismoa dagoela uste dut. Arabiar emakumeak are markatuago gaude, lehenengo eta behin gehienek beloa erabiltzen dutelako. Palestinar gizonak Magrebeko judutar baten itxura eduki dezake, eta kalean guk baino arazo gutxiago ditu”, iritzi dio.

Duela gutxi, Samahk esperimentu bat egin zuen: *hijab* (belo) beltza jantzi eta Haifako metrora joan zen, beste edozein bidaiari balitz bezala. Lagun batek esperimentu guztia bideoz grabatu zuen, urrunetik. Samahren inguruan zeuden pertsonak mesfidantza, errezeloa edo arbuia adierazi zioten; bidaiari batzuk urrundu ere egin ziren. Ez da halakorik gertatzen ilea airean eramanez gero.

“Hamarkadetan, Israelgo palestinarrok uste genuen hiritarrak ginela eta demokrazian bizi ginela, baina ez da egia, eta oraindik ere oinarritzko-oinarritzko gauzak eskuratzeko borrokatzen eta ghettoetan bizi izaten jarraitzen dugu. Israelgo gizartearen hondamendia zera da: dena onargarritzat jotzen dutela, eta badirudiela israeldar batek arabiarrek gorrotatzat gero, are abertzaleagoa izango dela.

Samahri entzunez, barruko gatazkak gainditu eta barne-oreka bilatzeko egin duen ahalegin handia antzematen da: palestinarra eta, aldi berean, israeldarra izateko; islamaren aginduak bete eta, aldi berean, belorik ez eramateko; ama izan eta, aldi berean, egunean ordu luzez lanean aritzeko.

Jerusalemgo unibertsitatean ezagutu zuen Omar palestinarrekin ezkontuta dago eta hiru seme-alaba dituzte. 2000. urteaz geroztik Neve Shalomen edo Wahat al-Salamen (“bakearen oasian”) bizi dira. Jerusalem eta Tel Aviven bitartean dagoen komunitate judutar-palestinarra da, errespetuan eta bizikidetzat baketsuan oinarritzen dena.

“Seme-alabentzako eskola proposa nahi genuen. Ezin genituen atzerriko eskola batera bidali, baina ezta judutar eskola batera ere, eta arabiar hezkuntza ez zen kalitatekoa. Horregatik, komunitate honetara etorri ginen, benetan mistoa izango zen zerbaiten bila. Gaur egun, seme-alabek arabieraz eta hebreeraz ikasten dute”, azaldu du.



Samahk ez du inoiz beloa erabili, senarrak halaxe nahi lukeen arren. “Esaten diot: nire gorputza da eta neuk erabakiko dut zer erakutsi. Nire hautua izan zen. Halere, emakume zuhurra naiz: ez ditut besoak jendaurrean erakusten, ez dut bikinia janzten eta musulman kontserbatzaile samarra naiz. Ahal dudanean, (Jerusalango) Al Aqsan (meskita) otoitz egiten dut, eta Ramadana (barua eta otoitza nagusi diren hil musulman saildua) errespetatzen dut”, argitu digu.

Hizketaldian ikusi dugu senarrarekiko (“lagunkidearekiko”, Samahren esanetan) harremana konplizitatean eta errespetuan oinarritzen dela. Omar, senarra, Zochrot (‘Gogoratuz’ hebreeraz) elkarteko kidea da. 2002an sortutako israeldar GKEa da, *Nakban* (‘hondamendia’, arabieraz) gertatutakoa ikertu eta ardurak argitzeko asmoa duena. Izan ere, Israelgo Estatua sortu zenean, 700.000 palestinarrek euren etxeak utzi behar izan zituzten eta errefuxiatuak dira harrezkero.

“Nire ustez emakumearen askapena ez da hondartzan top-less egitea; batez ere zeure nortasuna da, zeure burua kontrolatu eta zeure gogoarekin eta zeure gorputzarekin zuk nahi duzuna eta askatasunez aukeratzen duzula sentitzea da”, laburtu du. “Adibidez, Naamen bada emakume bat, bigarren emazte bat, ezin dena ia etxetik irten ere egin, haren familia-egoeraren ondorioz eta Israelen legez kanpo bizi delako. Etxean istorio sinesgaitzak idazten ditu, kontu iraultzaileak. Bera ez dago libre baina bere izpiritua bai, eta hemendik gutxira bere bizitza aldatzeko lehen urratsa da”, adierazi digu.



SAMIA AL QAYED:

“ Nire bizitza
ez da Gazako
gainerako
emakumeena
bezalakoa ”

Isabel Pérezek idatzia

Gazako zerrendan sistema patriarkalak bere arauak inposatzen ditu eta, horrela, pentsaera sozial eta kulturalak betikotzen laguntzen du. Aita da familiako burua, babeslea, jana ekartzen duena. Alabaina, zer gertatuko litzateke edozein arrazoi dela eta, eginkizun hori amaren esku geldituko balitz? Eta, gainera, pobrezia mugan dagoen familia batean gertatuko balitz; israeldarren eraso militarrei, etxearen suntsiketari eta minbiziari aurre egin behar dion familia batean?

FAMILIAREN ARDURA EMAKUME BATEN BIZKAR

Gazako zerrendako erdialdean, Salqako bailararen ekialdean, Israelgo mugatik (*de facto* hor kokatu duten mugatik) 1.300 metrora bizi da Samia al-Qayed. Iraganean guztiz bakar-tuta zeuden; halere, 2014ko abuztuan israeldarrek abian jarri zuten “Tarte babeslea” eraso militarra amaitu zenez geroztik, beste familia batzuk ere etorri dira inguru honetara. Lerro berdetik pixka bat urruntzea erabaki dute, israeldarren lurreko sarraldien beldur.

Ezkondu ziren egunetik bertatik, Samia da familia-burua. Oso gaztea zen, 14 urte baino ez zituen, baina berak ziurtatu digunez, ezkontzako bosgarren urtea igaro

arte senarrak “errespetatu” egin zuen. Orduantxe heldu zen hamabi seme-alabetatik lehenengoa.

“Senarrak eskizofrenia zuen. Sugedorriak jaten zituen, behegainean aurkitzen zuen edozer, basapizti baten pare –kontatu du Samiak–. Gero hobetzen joan zen eta gaur egun askoz ere hobeto dago; halere, ezin du lanik egin, arazo fisikoak ere badituelako”.

Palestinarren lehen Intifadan, Samiaren senarra bizkarrean zauritu zuten, lau soldadu israeldar etxean indarrez sartu zirenean. Garai hartan, Israelen segurtasunari aurre egin, manifestatu edota hormetan protesta-esaldirik txikiena idazten zuten palestina-rreri hezurak hausteko ohitura txertatu zen Israelgo doktrina militarrean, eta senarrari eskuineko besoko artikulazioak txikitu zizkioten.

“Nik gobernatzen dut etxea –baietsi du Samiak, irribarretsu–. Goizeko sei eta erdietan jaiki, platerak garbitu eta tea eta kafea prestatzen ditut. Dena prest utzi eta gero, eguneko zereginaren arabera, merkatura joan edo sukaldea egiten du. Protestaren batean parte hartu behar badut, goizago ere jaikitzen naiz”.



*Emakumeak egonkortasunean eta duintasunez
bizi beharko luke*



Izan ere, gatazkaren ondorioz seme-alabaren bat galdu duten beste emakume batzuekin batera protesta-ekintzak egiten ditu Samiak. Laguntza finantzarioa eta psikologikoa eskatzen dute, seme-alabak adingabeak baitziren israeldarren erasoetan hil zituztenean. Samiaren kasuan, lehen Intifadan seme bat hil zuten, eta israeldarren 2014ko eraso militarrean, berriz, seme bat eta alaba bat.

“Seme bat hilda edukitzeagatik ematen dizkiguten 1.400 NISei (320 € inguru) esker bizi gara etxean. Baina, benetan, hiru seme-alaba galdu ditugu gerretan. Horregatik egiten ditugu protestaldiak, kaltetutako familiok diru gehiago jasotzea eskatzeko”, argitu du Samiak.

ISRAELDARREN 2014KO ERASO GOGORRA

2014ko uztailaren 8an, *Tuzk Eytan* (hebreeraz, ‘Haitz gogorra’) ekintza militarra abiarazi zuela iragarri zuen Israelek. Hedabideetan beste izen batekin egin zen ezagun, ordea: “Hegi Babesgarria” esan zioten. Zortzi egun geroago, Israelgo armadak lurreko erasoari ekin zion. Soldaduak zerrendako erdialderaino ere sartu ziren eta 1967ko gerraz geroztik izan den palestinar familien lekualdaketarik handiena eragin zuten. UNRWak zerrendako eremu “seguruetako” ikastetxe guztiak 17.600 familiarentzat egokitu zituen. Samiaren familia horietako bat zen.

“Israelgo armada Gazan sartu zenean etxean geunden. Abioi eta dron asko zebiltzan, baina inoiz ez zitzaigun bururatu Israelgo armada zerrendan sartuko zenik –aitortu du Samiak–. Adreiluz, plastikoz eta metalezko plantxez egindako etxe batean bizi ginen,

eta ez ginen seguru sentitzen. Egun batean, goizaldean, etxetik hurbil obusak erortzen hasi ziren eta oinutsik, aldean generamanarekin joan ginen UNRWAre lehen eskolaraino”.

Samiak UNRWAre eskola-babeslekuko baldintzen berri ematen digu. Unetik unera geroz eta familia gehiago pilatzen ziren. Senarra, seme-alabak eta bera eskailera baten azpian kokatu ziren. Egun batzuetan ezin izan zuten arropa aldatu edo dutxarik hartu ere egin.



Non daude emakumeen eskubideak? Non gure duintasuna?



“Gau batean, biharamunean su-etena egongo zela esaten hasi zen jendea. Seme-alabek hori entzun zutenean, hurrengo hilean etortzekoa zen Ramadanaren Eid-erako (amaierarako) erosi nien arroparen bila joateko eskatu zidaten. Erantzun nien egoera segurua bazen soilik joango ginela”.

Malkoak agertu dira Samiaren begietan. 47 urte ditu eta koadro bakarra dago aurrefabrikatutako materialez egindako etxeko hormetan: israeldarren tiroen ondorioz hildako bi semeen eta alabaren argazkiak. Samiak aurpegia garbitu eta kontatzen jarraitu du:

“Biharamunean esnatu nintzenean ez nituen 15 urteko Wala alaba eta 11 urteko Ahmad semea ikusi. Lagunekin egongo zirela pentsatu nuen. Izan ere, Wala eta lagun bat ikastetxeko goiko solairura joaten ziren eta orduak ematen zituzten hizketan. Haren bila joan nintzen baina laguna bakarrik zegoen. Orduan bonbardaketak entzun nituen. Leihotik begiratu eta urrunean, gure etxea zegoen inguruan, kea ikusi nuen. Txarrena pentsatu nuen”, oroitu du.

Mohammed, Samiaren semeetako bat, anai-arreben bila joan zen. Izan ere, su-etena egongo zelako ustean, Wala eta Ahmad babeslekutik irten eta etxera joan zirela pentsatu zuten. Bidean zihoala, Mohammedek lurrean arropa ikusi zuen. Toki horretan bertan bonbardaketa izan zen. Wala arrebaren gorputz-zatiak zuhaitz baten bururaino iritsi ziren. Ez zuen Ahmed txikiaren aztarnarik aurkitu.



Seme bat hilda edukitzeagatik ematen dizkiguten 1.400 NISei (320 € inguru) esker bizi gara etxean



“Anbulantziari deitu genion. Hasiera baten esan ziguten ezinezkoa zela ingurune horretara joatea, baina azkenean joan egin ziren. Anbulantzia itzulian zetorrela eskola ondotik pasatu zen eta haiekin eramateko eskatu nien. Gidariak ezetz esan zidan eta ni kolpeka hasi nintzaion. Ez zekien nola esan Walaren gorputz-zatiak baino ez zeramatzala”, kontatu du Samiak, burua makurtuz.

Egun batzuk geroago Gazako ospitale batean Mohammeden gorpua aurkitu zuten. Israelgo armadak Israelera eramán zuen, inork ez daki zergatik edo zertarako. Gurutze



Gorriaren Nazioarteko Batzordearen eta giza eskubideen aldeko erakundeen laguntza haren bila ibili zen familia.

“Ahmadi behar bezalako hileta egin ahal izan genion, baina Walari ez, bonbardaketak zirela eta”, azaldu du Samiak.

DUINTASUNA ETXE BATEKIN

Gaur egun Samia eta familia bizi diren etxean ez dago elektrizitaterik eta ur korrontetarik. Etxea eraikitzeko zain dauden bitartean, laguntza humanitario gisa emandako etxe baten material-hondakinez eraikitako txabola batean bizi dira.

“UNRWArekin babeslekutik irten ginenean alokairuan bizi izaten hasi ginen, baina oso garestia zen. Hona itzuli eta denda bat egin genuen plastikoz eta adreiluz. Egun batean alkatea etorri eta zergatik bizi ginen halako baldintzetan galdetu zigun. Eta nazioarteko dohaintza-emaileek helarazitako zurezko etxea eman zigun elkarte baten bidez”, azaldu du Samiak.

Gero etorri ziren arazoak, elkarreak etxea saldu nahi izan zigunean. Samia elkarrearen bulegoetara joan eta hiru solairuko etxe hori premia zuten beste familia batzuen artean banatu behar zela esan zien; bere familia solairu batean bizi izango zela eta gainerako materiala beste familia batzuen artean bana zezaketela.



Leihotik begiratu eta urrunean, gure etxea zegoen inguruan, kea ikusi nuen. Txarrena pentsatu nuen



“Azkenean adreiluak erosi eta zurezko etxea desegin genuen. Txabolako hormak beste etxeko material isolatzailez eginda daude, baina euria egiten badu dena plastikoz es-tali behar dugu, ura sartzen da eta –azaldu du–. Begira praka hauek: atzo erosi nituen semeetako batentzat, eta arratoiek zati bat jan dute”.

Samiak ezin dio barreari eutsi eta barre-algarak eta mugagabeko tristezia tartekatuz gehitu du: “Guk zementuzko eta hormigoizko etxe batean bizi nahi dugu, mundu guztia bezala. Aspaldian bizi ginen bezala”.

Samia senarrarekin bizi izaten hasi zenean, Gazako Sabra auzoko etxe batean bizi zi-ren. Senarrak jabetzarik eta dirurik ez zuenez, berak herentzia saldu eta etxea eraiki zu-ten. Alabaina, minbizia ate joka etorri zitzaion. Mohammed semea umea zelarik, orno batean minbizia diagnostikatu zioten.

“Gastuei aurre egiteko etxea saldu eta txabola bat egin genuen Salqa bailaran. Zazpi urtez Mohammedekin Egiptora joan-etorriak egiten ibili nintzen, bertan sendatzeko –gogoan du Samiak–. 2008ko gerraren ondoren joan ginen lehen aldiz. Rafahko muga ireki zutenean joan ginen Egiptora. Blokeoak min handia egin zigun. Behin batean, hiru egunez lo egin genuen Rafahko muga, ireki zezaten zain. Ez genuen egunero etxera itzultzeko eta bueltatzeko dirurik, Egiptora joaten utziko ziguten zain beti”.



Guk zementuzko eta hormigoizko etxe batean bizi nahi dugu, mundu guztia bezala



Samiak ez du eraztunik eta bitxirik: dena saldu du. Eraztun bakarra dauka ezkerreko eskuan: hil zutenean Wala alabak aldean zeukana.

“Begira nola bizi garen Gazako zerrendako emakumeak! –egin du oihu Samiak–. Osti-raletan (herri musulmanetan jaieguna izaten da) ez dut atsedetik hartzen, arropa guztia eskuz garbitu behar izaten dut. Zorrak ditut, senarrak medikamenduak hartzen ditu eta etxean ditudan seme-alabek ez dute lanik aurkitzen”.

Emakumeak ingurura begiratzen du. Txabolaren barnealde osoa lurrez eta hautsez es-talita dago. Berorrek kargatzen ditu harea-pertzak, txabolaren alboan familiarentzako etxea eraikitzen ari diren langileei helarazteko. Horretaz gain, tea eta sukaldea ere egi-ten du, seme-alabek arduratzen da, erosketak egiten ditu eta elektrizitateak eraginda-



ko arazoak konpontzen ditu. Gazan gizonei esleitutako lanak eta emakumeei esleitutakoak egiten ditu Samiak.

“Ez naiz emakume sentitzen, gizon sentitzen naiz –argudiatzen du–. Nire bizitza ez da Gazako gainerako emakumeena bezalakoa. Gizonek egin ohi dituzten lanak eta enkar-guak egiten ditut. Hemen emakumeak sendagileak, kazetariak, abokatuak edo bankariak izaten dira. Ni ez naiz halako ezer”.

Samiaren bizkar daude familiako eta etxeko ardurak, bai eta esparru publikoari lotutakoak ere. Emakumeak bakar-bakarrik egin behar dio aurre bizitza gatazkatsu horri, inolaz ere egonkorra ez den bizitzari.

“Emakumeak egonkortasunean eta duintasunez bizi beharko luke –baietsi du Samiak–. Nik, ordea, familiaren presioari eta semeen eta alabaren heriotzaren presioari eutsi behar diot. Borrokatu egiten naiz, gogor egiten dut lan, baina ez dut soldatarik. Non daude emakumeen eskubideak? Non gure duintasuna? Ea proiekturen bat abian jartzeko laguntzaren bat jaso eta diru pixka bat irabazten dudan, ezen, ama izanik, familiarentzat ezin baitut ezer erosi, ezta seme-alabentzako fruta pixka bat ere”.

“Etxera itzuli nahi dugu.
Gure eskubidea da”



Isabel Pérezek idatzia

1948ko maiatzaren 18an, Ekialdeko Assawafir herria (*Assawafir Ashsharqiya*) jenderik gabe gelditu zen, hutsik. Herria Gazako barrutian zegoen (barruti hori, garai hartan, gaur egungo Gazako zerrendaren bikoitza zen) eta egun horretan, bertako 1.100 herritarrek ihes egin zuten. Ekialdeko Assawafirreko familiak Palestina historikoko beste herri batzuetan babestu ziren, alboan zeuden Mendebaldeko eta Iparraldeko Assawafir herrietakoak bezala. Ez ziren norabide bakarrerantz sakabanatu: herritarrek behin eta berriro egin behar izan zuten ihes segurutzat jotzen zituzten lekuetatik, israeldar armadak aurrera egiten zuen heinean.

1948an hasi zen palestinarren *Nakba* ('Hondamendia', palestinarrek hala esaten baitiote), Palestinako 531 herri erabat suntsitu zituen. 750.000 lagun inguru etxetik kanporatu zituzten eta lurrak ebatsi zizkieten. Harrezkero, eta gaur egun arte "Palestinako errefuxiatuak" dira. 1950ean, NBEk, UNRWA organismo sortu berriaren bidez, karpak eta oihaldendak eraiki zituen familia horientzat; besteak beste, Gazako zerrendan.

Gaur egun, Gazako zerrendako biztanleen % 80k Palestinako "errefuxiatu" estatusa

du. Estatus hori gurasoengandik seme-alabengana transmititzen da, eta eten-puntua NBEren 194. ebazpenean gauzatu zen, NBEk palestinar errefuxiatuen itzultze-eskubidea onartu zuenean.

NAKBA BAINO LEHEN: PARADISUKO BIZITZA

Zahiyya al-Buheisi Deir al-Balahko errefuxiatu-zelaian bizi da 1948az geroztik. Urte asko dira oihal-dendez osatutako zelai hura hormigoizko zelai bihurtu zela. Halere, eremu txiki horretan eraikinak bata bestearen gainean pilatzen dira, eta geroz eta zailagoa da pribatutasuna mantentzea eta leihoetatik eguzki-izpiak sartzea.

“Ekialdeko Assawafirren jaio nintzen –hasi da kontatzen Zahiyya–. Aita *mokhtar* zen, herriko jauntxoa; komunitateko arazoak konpondu eta Gazara, Jerusalemara eta Haifara joan-etorriak egiten zituen”.

87 urterekin, Zahiyya sasoi betean dago. Arazorik gabe altxatu da besaulkitik kafe bila, eta berriro eseri denean ezin da geldirik egon: hitz egiten duenean imintzio etengabeak egiten ditu eta, hitzaldian etenen bat egin duenean, etxeko txikiek besaulkian utzitako ogi-mamiak edo janari-puskak biltzen hasi da. Gero, atzera berriro hasi da Assawafirgo bizitzaren berri ematen:

“*Nakba* baino lehen Assawafirren bizi ginenean, nekazaritza-lurrak eta harrizko edo adobe-ko etxeak genituen. Asko ginen. Gaur egun familia sakabanatuta dago, diasporan, Palestinatik kanpo –azaldu digu, aspalditik Kanadan bizi den semearen argazkia erakusten digun bitartean–. Hementxe, Gazan, pobretu ginen”.

Zahiyyak “lurreko paradisutzat” deskribatzen ditu Palestina historikoko bere etxea eta lurrak.

“Herriaren erdigunean bizi ginen. Landa-lurrak 10 km ingurura zeuden, baina hara joateko hiru zaldi genituen. Landatzen genuena jaten genuen: tomatea, artoa, garia, dilistak, azenarioak, sesamoa eta fruta”, kontatu digu adineko emakume horrek, atzamarrez zenbatzen hasi den bitartean. Halere, ez du atzamar nahikorik barazki eta fruta-arbola guztiak, batez ere zitrikoak, zenbatzeko.

“Hobe hona etorri aurretik hil bagina!”, egin du hasperen. Ahotsak behera egin du eta gurpil-aulkian dagoen agureari begiratu dio. “Ez ginen sendagilearengana joaten. Sendabelar ugari genituen. Gustura bizi ginen eta dena kendu ziguten”.

JUDUTAR KOKALEKUKO SENDAGILEA

Alboko gelan olgetan dabilzan birbiloben oihuak entzunez, emakumeak berriro ere irribarre egin du.

“Horiek bezain pozik jartzen nintzen ni herritik irten eta al-Majdalera joaten ginenean oihalak edo zaldientzako hornidurak erostera”, gogoan du.

Orduko jabetzen erregistroa kontserbatu ahal izan duen gutxienetako bat da al-Buheisi familia: orri lodiak, denboraren poderioz horitutakoak, Palestinako Gobernuaren zigilu zaharrarekin.

“Etxera itzuli nahi dugu. Gure eskubidea da. Behintzat, gure bilobak eta birbilobak itzul daitezela. Begira non bizi garen orain, *donum* erdiko etxe batean. Guk 100 *donum* (10 hektarea) genituen!”, dio, haserre.



Amaitzeko modu bakarra dago: itzuliz. Gure etxeetara itzuli nahi dugu, gure jatorrizko lurreen lurperatu nahi dugu



Gazako zerrendako pobreziak errefuxiatuen familiak kolpatzen ditu bereziki, ez baitute nekazaritza-lurrik eta ganadurik, *Nakba*-aurreko garaian, ordea, bai.

“Ezkondutuen gure etxea geneukan, ez gaur egun bezala –kontatzen jarraitu du–. 500 m² inguruko patioa geneukan, eta haren inguruan, familia guztien gelak, denok ere al-Buheisitarrek baiken. Teilatuan haziak eta garia lehortzen genituen. 50 ardi inguru ere bagenituen, eta esnea edan edo gurina egiten genuen. Olio kanpotik ekartzen genuen: olibak Zisjordaniako goiko eremuetakoak ziren eta olio-prentsak Gazan zeuden”.

Nakba zuzenean ezagutu zutenen, *mankubinen* (atsekabetuen), kontakizunak bizitza naturaren arabera egokitzen zen garaia garrantzitsua. Zahiyyak kontatu digu ezkontzak topagune bihurtzen zirela; familia zabala ez ezik, beste komunitateak ere biltzeko aukera. Ilbetearen zain egoten ziren beti, argitasuna aprobetxatzen.

“Herri guztietako, al-Falujako, Hattako, Hiribiyako auzokide guztiak biltzen ginen –kontatu du emakumeak–. Ni ezkondu nintzenean behor baten gainean igo eta etxez etxe joan ginen. Jendeak ahariak oparitu eta edateko eta jateko zerbait eskaintzen zigen. Emakumeok eskuz brodatutako soinekoak jantzen genituen. Jendea ondo bizi zen”.

Assawafirren emandako gaztaroko oroitzen ederretena gogoratzen duen bitartean, eskuineko begiak dir-dir egin dio, zirrarari eutsi ezinik. Urte asko dira ezkerreko begia galdu zuela.

“Umetan begia gaixotu zitzaidan. Beti pentsatu dut begizkoa egin zidatela –baietsi du–. Aitak Jerusalemara eramanez ninduen baina inork ezin izan zidan lagundu. Ondoren Jaffara joan ginen, baina han ere ez. Egun batean, aitak judutar sendagile bat ekarri zuen nire begia ikustera. Palestinarrek deitzen zioten bakoitzean etortzen zen herrira. Ez zegoen inolako arazorik”.

Beharbada, sendagile horrek Zahiyyaren begiko gaixotasun arraro hori sendatzeko beranduegi zen. Berak ez du inoiz ulertu zer gertatu zen eta zer sendabide ezarri zioten, baina judutar sendagileak mina arintzen lagundu ziola kontatu du.

“Ez dut gogoan nola zuen izena, baina otomandarren garaian eraiki zuten kokalekuan bizi zen”, baietsi digu.



HAURDUN ETA IHESI

Zahiyyak kontatu digu herriko gizonak arma herdoilduak erosi eta lubakiak egin zituztela. Batez ere gaueko orduetan izaten ziren tiroketak.

“Israeldarrek tankeak eta kanoiak zituzten –argitu du Zahiyyak–. Eta egun batean Assawafiren sartu ziren. Herria erre zuten, dena suntsitu zuten. Ordurako gu ihes eginda geunden”.

1948ko maiatza zen. Hilaren 14an Israelgo Estatuak aldarrikatu zuten eta palestinar biztanleek exodo bihurtuko zen ihesari ekin zioten.

“Nekazaritza-lurretara egin genuen ihes. Haurdun nengoen baina ez nekien. Bi hilabete eman genituen han, zuhaitz artean lotan –jarraitu du azaltzen–. Gudaldiak herrian izaten zirenez, uzta biltzen amaitu eta hurrengo babeslekuraino eraman ahal izaten genuen, nahiko seguru.

Zahiyya eta bere familia ondoko al-Faluja herrira joan ziren. Harrituta ikusi zuten inguruko herrietako jende andana zegoela han bilduta: Hattakoak, Karatiyakoak eta Juliskoak. Asteak igaro ziren eta al-Buheisi familia konturatu zen ez zirela uste bezain laster itzuliko etxera.

“Gogoan dut herriko iturria jendez gainezka egoten zela. Guk janaria geneukan, gurdi eta abereetan garraiatu baikeuden. Guztiok esaten genuen etxera itzuliko ginela”, dio Zahiyyak.

Guda Falujara iritsi zen, ordea, eta arriskuaren aurrean, ihesean ziren familietako asko Hiribyarantz joan ziren.

“Hiribyan bonba handiekin bonbardatu gintuzten –oroitu du emakume zaharrak, bonbak nola erortzen ziren ere gogoan–. Txikienak negar batean, Gazarantz egin genuen ihes. Beste batzuk Libanorantz, Siriarantz egin zuten, baina guk Assawafirretik ahalik eta hurbilen gelditu nahi izan genuen”.

Bost orduz ibili ziren Gazara iritsi arte, oraingo honetan aurrekoetan baino presatsua-go. Zahiyyak haurdunaldiaren pisua geroz eta nabarmenago sentitzen zuen.

“Zortzi hilabeteko nengoen, nekatu samar sentitzen nintzen, baina inguruan gauzak zeuden bezala, ez nuen larregi pentsatzen –onartu du–. Gazan gu babesteko lekurik ez zegoela ikusi eta Deir al-Balahra jo genuen”.

NAKBA AMAITZEA

Gazako zerrendako erdialdean dagoen Deir al-Balahn abereentzako ukuiluak eta kortak baino ez zeuden etorri berrientzako, eta errefuxiatuek pilatuta egiten zuten lo. Baina guda bertaraino ere iritsi zen.

“Familiaren zati bat zegoen ingurunean bonbardaketak zeudela esan zidaten eta berehala hurbildu nintzen. Gogoratzen naiz hondartzan oinez nindoala eta justu heldu nintzenean hasi zirela uzkurdurak. Erditzeko unea heldua zen”.

Zahiyyaren bigarren semearen negarrek israeldarren bonbardaketen hotsekin bat egin zuten. Izeakoak egin zuen emagin-lana.

“1949ko hasiera zen eta semeari Nasser (‘garaipena’, arabieraz) izena eman genion. Garai hartan oraindik pentsatzen genuen guda irabazi eta etxera itzuliko ginela”, onartu du adineko emakume horrek.

1950. urtean, UNRWArek lehen laguntzak eta zerbitzu humanitarioak heltzen hasi zirenean hezurmamitu ziren lehen errefuxiatu-zelaiak: oihal-dendak, janaria, botikak eta seme-alabentzako eskolak. Urteak joan ahala, oihal-dendak adreiluzko eta zementuzko etxez ordeztu zituzten. Alabaina, badago inolaz ordeztu ezin den gauzarik: Zahiyya bezala, *Nakba*-aldia amaitzeko ametsetan bizi diren milaka lagunen nekazaritza-lurrak eta jabetzak.

“Amaitzeko modu bakarra dago: itzuliz. Gure etxeetara itzuli nahi dugu, gure jatorrizko lurreen lurperatu nahi dugu”, argudiatu du Zahiyyak.

